



Joxe Mari Lertxundi

# IGAROARI BEGIRA



AUSPOA

2238  
GAS-128/72



EUSKADIAINU P

# **IGAROARI BEGIRA**

---

Auspoa Liburutegia  
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 67 12 82

Joxe Mari Lertxundi

# **IGAROARI BEGIRA**

Auspoa Liburutegia

*Azalean, Aiako erria.*  
*Juan Ramon Elisbururen marrazkia.*

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN 84-7158-144-2  
Depósito Legal: NA. 1046-1991

## ITZAURREA

Gizaki batek irurogei urte zentzu onez igarotzen baditu, gauza gogoangarri asko ikastera eta ezagutzera irixten da. Baiña aiek danak idatzita jartzen ez baditu, lautatik iru, eta garrantzitsuenak, beti edo geienetan galdu edo aztu egiten dira; eta, zearo azutzen ez badira ere, txetasun geiegirik gabe agertzen dira.

Euskal-Erriko eta euskaldunen nortasun, kondaira eta izate guztiaren muiña gauza oietxen ardatzean dabil, eta ardatz orri zerbait indargarri edo bultzada ematearren, bere osagarri izan dedin, naiz eta gutxi izan, daukadan pitiña eskeintzen diot.

Guraso batek bere ondasun guztiak geienetan bere seme-alabentzat uzten ditu. Gaiñera, legezkoa da ori egitea. Lenengo, odol berekoak izanik, bere maitasun eta ondasun guztiak ondorengoentzat nai izatea. Eta bigarren, aiengan jartzen baidu bere itxaropen osoa. Aietantxe ikusten du etorkizuna, bera izan dan baiño jakintsuago, neurri edo mail goragokoan, bizibide obean izan ditezen. Itz batean, erri osatua goa, nortasunez betetako erri bat egin dezaten.

Era berean, belaunaldi batek urrengoarentzat bere eredia, bere izate dana uzten saiatu bear du, aberastuta, sendotuta eta lenago zan baiño obetoago osatutako erri bat izan dedin.

Ori guztia betetzeko edo irixteko, bakoitzak al degun moduan gure izatea eta gure nortasuna aberasteko, zerbait egiten saiatu bear degu.

Nik ere nere ondar aletxo bat eskeiñi nai nioke; gauza pitiña, apala, utsa, baiña maitasun eta borondaterik onenez egiña izango da.

Saia nadin, beraz, nere bizitza ontan ikusi, entzun edo nabaitu ditudan gauzarik gogoangarrienak liburu ontan agertzen edo kontatzen.



## ZERGATIK ERNIOKO GURUTZEAK?

Galdera orri txeetasun guztiekin erantzuna ematen oso zaila edo eziñezkoa da. Baiña gure mendi gaillurretan antziñako garaietan gertatu ziran gauzarik garrantzitsuenak, eta itxas ertzetakoak berdin, belaunaldi batek besteari beroien aztarnak emanaz, gure egunetaraiño iritxi zaizkigu. Tartean beti izaten dira toki edo izenen aldaketaren bat, urte batzuen okerra, eta abar eta abar. Baiña gertatutako gauzaren mamia bete-betekoa izaten da.

Ernioko gurutzeari buruz, nola sortu ote zan lenengoa? Gai onen inguruan badira iritzi ezberdiñak. Baiña nik, entzun edo jakin al izan ditudan gauzetan oiñarriturik, ikuspegi ontatik emango ditut lenengo gurutzea zutitzeko arrazoa eta Ernio eta Zelatunen sorrera.

Antziñako garaietan ere izaten omen ziran kontrabandoan ibiltzen ziranak. Aiek zaintzeko, karabini-nero edo ertzain batzuk ere bai. Baiña itxas ertzetan egoten omen ziran guardirik geienak, nola atzerrieta-ko indar militarrek eraso asko ematen zituzten, batez

ere iri aundi samarretan, bertan zeuden gauzarik baliotsuenak eramateko.

Arrazoi orrengatik, garai aietako batean, Donostiko sarrera zaintzen egoten omen ziran, uste gabeko erasoren bat izan etzezaten. Eta Igeldoko muturrean zelatari zegoan talde edo patrulla bateko zentinela, gaur Ernio deitzen diogun mendi mutur orretan, gau erdian sua ikusten asi omen zan; eta bereala bururatu omen zitzaion kontrabandista edo erasoren bat prestatzeko ezaugarria izango zala.

Bereala, taldeko kapitanari esan omen zion. Orduan, kapitanak ere, gau pare batean zelata egin ondoren, ikusi omen zuan egia zala, eta taldeko zelatari berezi bat bialdu omen zuan, esanez al zituan aztarna guztiak ateratzen zituanean itzultzeko. Baiña abitu aurretik auxe esan omen zion kapitanak zelatariari:

– Mendi mutur ortan daudenak ez dira edozein izango, eta bidean «ernai io» (igo).

Goizetik erten omen zan Donostitik, eskaleko tankeran jantzi eta makilla eskuan zuala, iñork erre-zelo txarrik egin etzezan. Arratsalde erditik aurrera, gaur Gazume deitzen diogun gain ortara zijoala, bi artzai beren zakur eta ardiak inguruan zituztela arkitu omen zituan; eta, aiekin kontu kontari egon ondoren abitzera egin zuanean, artzaiak esan omen zioten:

– Nora zoaz or gora?

Eta espia edo eskalekoak erantzun:

– Ortxe borda zarren bat arkitzen badet, bertan gaua pasa, eta biar –gaur Errezil dagoan sakon ortarako idea azalduz– orrera jetxi bearko.

Ori entzutean, artzaiak esan omen zioten:

– Kontuz ibili gain ortan gauean eta bakarrik. Or badabilta gero oso tankera txarreko jendea. Guri ere ardiak lapurtzen dizkigute, eta argatik daramazkigu gauerako etxe aldera. Eta geiagori ere ostutako kontuak badira.

Orduan eskalekoak, bildurtu itxura egiñez, esan omen zien:

– Zuen ardi txabolan babesten utziko al didazute?

Artzaiak:

– Bai, bai. Gau batekoagatik gelditu, nai badezu.

Ala, artzaiekin batera zijoan bitartean, galderak egiten jardun omen zitzaien: ardi lapur oiek nundik etortzen ziran; zenbat lagun ziran, eta abar eta abar.

Esan zioten, gaur Ernio dan aitz mutur ori erakutsiz, nunbait ere an gordetzen zirala, eta bazitekela uste baiño talde aundiagoa izatea.

– Orregatik, alderdi auetako ganaduzale guztiak bildurrez gaude. «Zerbait egitera beartuak gera» batzuk esaten asiak daude. Inguru ontako sasoiko jende guztia bildu eta danak aurrean artu ta bialdu. Edo-ta gogor egiten asten badira, il. Nolabait erantzun bearko diegu.

Urrena, zelatari edo eskaleak esan zien:

– Begira: zuei laguntzeko prest nago. Baiña len-dabizi itzegin edo pentsatu egin bear degu.

Ondoren esan zien zein zan eta zertara etorria zegoan. Eta orduan bi artzaiak eta eskaleak, gauean Gazumeko gaiñera zelatara joateko erabakia artu zuten.

Artzaiak beren lanak egin eta ondoren, espiak eta gaiñontzekoak zerbait apaldu zuten; eta, Gazumera abitzeko prest jarri ziranean, artzaien amak esan omen zien:

– Motellak, toki arriskutsura zoazte eta «ernai io» (igo).

Eta zelatari arek esan omen zuan, amari begira:

– Zuk «ernai iotzeko» (igotzeko). Gaur goizean nere nagusiak ere orixe esan dit, eta zerbait izango du mendi orrek.

Ala, irurak igo omen ziran Gazumeko gaiñera gau erdi aurretik; eta, ordua iritxi zanean, an azaldu omen zan, orain Ernio deitzen diogun mendi mutur ortan, egundoko sua. Artzaiak arrituta esan omen zuten:

– Guk ez genduan oraindik or surik ikusi. Zergatik egiten ote dute?

Olako galderak egiten ari ziran bitartean, beste sua agertu omen zan, gaur Aiako Arria deitzen diogun mendi muturrean; eta, beste su ura zelatari edo espia orrek ikusi zuanean, ala esan omen zuan:

– Emen dabilzan gizon oiek erromatarrak izango dira zalantzarik gabe.

Zelatariak bai-baizekian Oiartzungo mendi orren barren aldean erromatar pilla bat zebillela mineralak ateratzen. Eta esan zuan:

– Emengo auek ere mina edo orrelako zerbaiten billa dabilzananak izango dira.

Artzaiak orduan arriturik eta larriturik jarri omen ziran. Ez baizekiten Oiartzungo mendietan erromatarrak minetan zebiltzanik. Ala zioten:

– Emen dabilzan oiek erromatarrak baldin badira, ez da egongo emendik bialtzeko modurik. Eta, orrela jarraitzekotan, akabo inguru auetako bei eta ardiak.

Zelatariak esan omen zien patxaran jarri ta pensatu bear zirala gauzak. Lendabizi, zelatatu eta zen-

bat ziran ikusi; eta ondoren nola jokatu erabaki. Berak ere nagusiari gauzen berri orduan emango zio-  
la, eta seguru asko talderen bat andik ere etorriko  
zirala.

Suak ikusi eta berriro jetxi omen ziran artzaien  
etxera. Baiña zelatariak esan omen zien egunsentian  
berriz igo bear zutela Gazumeko gaiñera, nundik  
nora eta zenbat azaltzen ziran ikustera.

Ala, artean illun zegoala igo omen ziran; eta,  
argitzen asi zuanerako, gaur Zelatun deitzen zaion  
lepo sakon ortatik, dozen erdi bat lagun zelatan  
omen zeuden nun zer ikusiko. Nunbait, besteak bes-  
te, jateko okela falta zuten; eta, ardi edo bei, zerbait  
arrapatu bearrean arkitzen ziran.

Orrela zeudela, Bidani aldetik artzai batek bere  
ardiak Ernio azpiko aitz tartera bota zituan. Ez bai-  
zekian aitz tontor artan gordeta zeuden talde aren  
berririk.

Orduan, gaur Zelatun deitzen diogun lepo sakon  
ortan zelatan zeuden seikote ura, berealaxe abitu  
omen ziran aitz tarte artan beetik gora, ardiak irix-  
terako zai jartzera.

Ori pentsatu omen zuten Gazumetik begira zeu-  
den bi artzai eta zelatariak; eta aiek uste zuten bezela  
gertatu ere.

Erromatar aiek gordeta zeuden tokira ardiak iri-  
txi ziranean, bi arrapatu, bizkarrean artu eta abitu  
omen ziran. Eta ardien atzetik zetorren artzaiak, iku-  
si eta deadar egiten omen zien:

– Utzi itzazute ardi oiek!

Baiña alperrik. Aiek, beren ardiak bizkarrean zi-  
tuztela, goiko muturrean zeukaten gordetokira. Eta  
artzaia ere bai atzetik.

Ala, Ernioko muturrera urreratzen ari zala, gordeta zegoan zaindari batek sarearekin arrapatu omen zuan artzaia.

Gaur gurutzeak dauden toki ortan omen zeuzkaten bi egurrezko gurutze, zutik jarriak; eta, gero zelatari oiek jakin al izango zutenez, gurutze batean gizona ilda zintzilik jarria omen zeukaten, burua estalita.

Artzaia ere, gurutzetik sokekin zintzilik jarrita eduki omen zuten puska batean. Gero aske utzi, ordea. Baiña ulertu arazi omen zioten, ixilik egoten ez bazan gurutzean ilko zutela.

Gazumeko iru zelatariak, Ernioko aitzetan gertatu zana ikusi zutenean, pentsatu omen zuten artzaia ere ilko zutela; eta Igeldoko zelatariak esan omen zien bi artzaiei:

– Ez dago Donostira joan-etorria egiteko astirik. Bereala, inguru auetako jendea bildu eta eraso egin bear diogu goien dagoan talde orri. Bestela, nai duten guztia egingo dute.

Gazumeko irukotea asi omen ziran artzai, ganaduzale eta baserritarrei abisuak egiten, eta illuntzerako eun da geiago prest jarri omen ziran, makilla tantai aundiak eta beste zeuzkaten tresnarik txarrekin.

Batzuek gauean erasotzea nai omen zuten. Baiña Donostiko zelatariak esan omen zuan, eguna argitzerrako, erdiak goiko muturrera inguratu, eta beste erdiak Zelatungo aitz barrenean zai egon bear zutela. Goitik erasotzean, Zelatun aldera iges egin naiko zutela zalantzarik gabe.

Ala, Bidani eta Errezil tarteko baso azpi batean zeudela, erromatarrak arrapatuta eduki zuten artzaia

ikusi zuten nola zetorren bere etxe aldera; eta taldeko bat bialdu zioten, aiengana etortzeko esatera.

Ala, etorri zan artzai ura; eta, jende talde ura ikusi zuanean, zer esan etzekiala gelditu omen zan. Orduan, taldeko zuzendaritza zeramakian donostiar zelatariak esan omen zion:

– Badakigu zuri zer gertatu zaizun, eta kontatu zaiguzu nola erabili zaituzten eta zer esan dizuten.

Bildurrez asi omen zan, baiña dana kontatu zien: nola bi gurutze zeuzkaten, eta batean gizon bat ilda zintzilik zeukatela.

– Neri ere esan didate, ixilik ez banago orixe egingo didatela, eta bildurra etortzen zait.

Berriro ere, zelatari buruangarriak onela esan zion:

– Zuri ori propio esan dizute, zu bildurtu eta ixilik egon zaitezten.

Ori entzutean, besteak ere gauzak itxura bazuala; eta, pentsatu bezela, goizean erasotzeko erabakia artu zuten.

Esan bezela, eguna argitzerako, talde bat goiko muturrera eta bestea Zelatun gaineko aitz ondoan gertu jarrita zeuden.

Goitik joan ziranak, makilla eta beste tresnez gainera, jaso zituzten ganadu koipe eta azufrearekin egindako zaku edo zorroka batzuk, irixten ziranean zorro oiei su eman eta erromatarrak beren gordetokietatik atera arazteko. Baita adar edo turutak ere, aien zarataz aztoratu eta igesian asi zitezten.

Ala, eguna argitzeko une artan, baiña artean illun zegoala, sutu omen zituzten beren koipe zorro oiek; eta, sua zabaltzen zuten bitartean, turutak jotzen asi omen ziran.

Erromatarrak erio sugarrean igesi, eta, uste zuten bezela, Zelatun aldeko ziritura; eta an beera jeisten asi ziranean, batzuek atzetik eta besteak aurretik, erromatar taldea dana garbitu omen zuten.

Ala uste zuten beintzat. Baiña artzai zarrak Gazume barrenetik begira omen zeuden, eta aiek ikusi omen zuten batek nola atzeko aitz kosketatik beera jetxi eta Alkiza aldera iges egin zuan.

Esan omen zioten Zelatungo taldeari bat nola ikusi zuten atzeko aldetik beera jeisten. Orduan talde bat joan omen zan bere atzetik, baiña ez omen zuten aztarnarik atera.

Ortan bukatu omen zan lenengo erromatar taldearen aurka burutu zuten eraso.

Orduan, Igeldotik igo zan zelatari arek, Zelatungo sakon artan talde guztia bildu eta esan omen zien:

– Lenbiziko eraso ontan garaille oso errez irten gera. Baiña ez dezagun uste onekin bukatuko danik. Gaur emendik iges egin duan orrek emango dio Oiarzungo kanpamentuetako buruzagiari emen gertatutako guztiaren berri; eta, ori jakitean, ez det zalantzarik egiten bosteun edo milla gizon artu eta eraso latzen bat egingo duala inguru auetan erromatarren ejerzitoak. Orretarako, komeni da batzuk beti gau eta egun goiko muturretik zelatan egotea, eta bee aldean jenderik geiena erasorako gertu. Nik orain Igeldora itzuli bear det, emen egin degunaren berri kapitanari ematera. Bearbada, etzaio ondo irudituko emen egin deguna, naiz-eta egin bearreko gauza bat gertatu.

Agindu oiek eman eta Igeldora itzuli omen zan. Gertakizunen berri kapitanari eman zionean, zelata-



riak uste zuan bezela, oso asarre jarri omen zan kapitana. Ala esan omen zion:

– Orain zer egin bear degu? Seguru nago erromatarren eraso gogorra izango dala. Mendi orren inguruan bizi diranak, arrapatzen dituzten guztiak garbituko dituzte. Edo-ta beren lurraldea utzi eta iges egin bearuko dute. Ez dute barkaziorik izango. Gu, berriz, ez gaude emendik laguntzera asko joateko moduan.

Baiña azkenik, eztabaida eta buruauste guztien artean, talde bat bialtzea erabaki zuten. Igeldo eta inguru aietako indar militarren buruzagi egiten zuanak, deitu omen zituan bere laguntzailleak, eta mendian izan zan zelataria ere bai; eta, danen artean mendi inguru ura babestu eta bear bazan erasotzeko, plano bat egitea eskatu eta agindu zien buruanga-riak.

Planoa egiteko, gauza auek bear omen zituzten: mendiaren egiturak, toki bakoitzaren izena, eta abar eta abar.

Orretarako, len zelatari izan zan ura zegoan ango berri geiena zekiana, eta bera asi omen zan ango berriak eta tokien izenak ematen. Nola «ernai io» (igo) bein baiño geiagotan entzun zuan, goiko muturrari *Ernio* izena jarri omen zion. Ernio azpiko lepo sakonari, berriz, nola danak andikan zelatan egoten ziran, *Zelatun*.

Orrela osatu omen zuan, Ernioko muturretik asi eta bere inguruan zeuzkan bideak eta aitz zirrikituak, etsaien eraso bati aurre egiteko tokirik aproposenak, eta iges egin bearra izan ezkeron nundik eta nola. Aiek izan omen ziran Ernio mendiko planoan jarri arazi zituan gauzarik aipagarrienak.

Alako batean, itxas ertzeko talde ura abitu omen

zan Ernio bidean, eta egun barruan iritxi omen ziran Zelatun izenez bataiatu zuten toki artara. Ernioko aitzetan zelatan zeuden aiek jetxi omen ziran, eta bereala taldeko kapitanak aginduak eman omen zituan.

Erniora erromatarrak etorri zitezkean, eta Zelatuna irixteko ordubete inguruko bidea gelditzen zan. Inguru aietako tokirik goituenetan jartzeko zelatariak aukeratu zituan; eta Ernio azpian jartzen ziran aiek, Ernioko muturrean zeuden zelatariak ikusten zituztela egon bear zuten. Egunez azaltzen baziran, zapi zuriarekin egin bear zuten ezaugarria; eta, gauez izan ezkerro, sua bi tokitan egiñez.

Zelatariak jarri ondoren, Ernio mendia aztertzea lenengo; eta gero, inguru aietatik bildu arazi zuten jendea edo gudariekin, ekin omen zioten prestaketari: babesleku edo defentsak jartzen; etsaiak aien us-tez igo bear zuten gaiñeko aldeetan arri pillak egiten; gudariei zer edo nola jokatu erakusten; eta abar ta abar.

Ernioko orain gurutzeak dauden aldameneko sakonean, eurentzako bizitoki edo kanpamentua egin, eta eraso bati aurre egiteko zerbait antolatu eta jarri ziran.

Andik aurrera, nunbaitetik al zituzten gudari eta tresnak inguratzea zeukaten lanik gogorrena. Bestela, eriotza edo erromatarren morrontza. Etzeukaten beste irtenbiderik.

Lenbizi Erniora etorri ziran erromatar taldeari, eraso eta garbitu zituzten ia danak, bei eta ardi lapurretan asi ziralako. Bizirik utzi ezkerro, etzutela mendiko ganaduekin pakerik izango pentsatzen baizuten. Itxu-itxuan beren beroaldi artan aunditxoa egin ote

zuten konturatzen asi ziran, eta urrena zetorren erasoarekin ez ote zuten gauza onik. Ernio inguruko euskaldunak ori zan orduan zerabilkiten bu-ruaustea.

Batzuk Ernioko muturrean eta besteak bee aldean zelatari zeuden bitartean, gaiñerako talde nagusia prestaketan jarraitzen zion; eta beste batzuek jaitena eta ura zeuzkaten ekarri bearrak. Ura, uste zuten baiño urrerago arkitu omen zuten.

Ala zebiltzala, erasoari eusteko tramankulu batzuk ere moldatu omen zituzten arriak jaurtitzeko, *katapulta* antzekoak.

Eguna joan da eguna etorri, eta iñoren aztarrenik ez. Batzuk aspertzen asi omen ziran. Baiña kapitana esaten omen zien:

– Guztiontzat obe, etorriko ez balira. Baiña ni seguru nago etorriko dirala. Egun auk luzatzea ez da arritzekoa. Aiek, etortzekotan, ondo armatuak etorriko dira. Baztar guztietan gerran ibiltzen dira eta ondo jakingo dute egin bear dutenaren berri.

Ala, zai zeudela, amargarren egunean, goizeko amarrak aldean, gaur Alkiza deitzen diogun inguruan zegoan zelataria asi omen zan zapi zuriarekin ezaugarri edo seña egiten. Orduan, Ernion zeudena erantzun omen zioten. Baita turutak joaz gudari guztiei abisu egin ere.

Ernioko arkaitzetan zegoen talde ura, danak aztoratuta jarri omen ziran. Baiña kapitana agindu omen zien lasai egoteko; erromatarrak etzutela egun artan erasoko; eta jendea kalmatu omen zan.

Alako batean, ordubiak aldean edo, gaur Sain-azpia deitzen zaion sakonean, egundoko jende eta zaldi pilla azaldu omen zan. Bildurtu omen ziran

Ernriotik begira zeudenak. Baiña sakon ortantxe bazkaria edo arrantxua egiten gelditu omen ziran.

Ura egin zutenean, ogei bat zaldizko Zelatuna igo omen ziran; eta, tokia aztertzen eta abar ibili ondoren, berriro besteak zeuden tokira jetxi. Ernion zegoan euskaldunen kapitanak esan omen zuan:

– Nun geldituko ziran jakin izan bagendu, gauean ortxe erasoko genien. Baiña orain ez dago emendik mugitzerik.

Ernio gaiñean zeudenak gaua ernai igaro omen zuten. Baiña etzan ezer gertatu. Egunsentia iritxi zanean, an zeuden zer azalduko zai. Baiña etsaien taldea, illunabarrean gelditu ziran tokian zeuden, eta lasaitu ziran.

Baiña eguna argitu eta ordubete ingururako, taldearen erdi ingurua abitu omen zan Zelatun aldera. Goitik zelatan zeudenak gutxi gora-beera kontatu omen zituzten, eta seireun bat lagun eta ogei ta amar zaldi igo omen ziran Zelatuna.

Ara irixtean, Ernio aitzaren ondotik urrunduz, Gazume aldeko zabalunean asi omen ziran kanpamentua jartzen. Baita illuntzerako bear zan bezela jarri ere.

Ala, gau ura ere ixil-ixilik igaro omen zan; eta, urrengo goizean, bi taldeak bakoitza bere tokian jarraitzen omen zuten.

Gero, amarrak aldera, Zelatungo taldetik zaldi eta gizon mordoska bat Gazume gaiñean barrena joan omen ziran. Lenbiziko erromatar talde artakoak ere alde artara jo zuten; eta, seguru asko, badira Gazume atzean mina zulo batzuk eta orduantxe billatuak izango zituzten. Goizean Gazume atzera joan

ziran talde ura, illuntzea baiño len etorri omen ziran berriro Zelatuna.

Egun artan, euskaldunen kapitanak pentsatu omen zuan Zelatun gaiñeko aitzaren muturrean su aundi bat egitea gau erdi aldera. Gero, Errezil gaiñeko baso tartean, Ernio alderako itxura egiñez, suziak piztu ta jende mordo bat jarri araztea; eta, geroxeago, erromatarrak zaldia zeuzkaten tokira iru bat lagun inguratu eta *eltzaorra* joaz ango zaldi guztiak izutu eta sakabanatzea. Orixe zan kapitanaren ametsa, ea orrela aldegitera edo erasotzera beartzen ziztuzten.

Kapitanak agindu bezela, ogei bat laguneko taldea Errezil aldeko sakonetik pasa eta illunabarrerako Gazume aldetik jarri omen ziran, adar eta turuta joaz erromatarrak aztoratzeko asmotan. Beste iru, eltzaorrekin. Beste talde bat, Errezilko gaiñeko basoetan onuntza suziak piztu ta etorri zitezten; eta beste mordo bat aitzaren gaiñetik, abaila edo tresna orrekin arria eta sua erromatarren kanpamentura jaurtitzen.

Esan bezela, gau erdia iritxi zanean, su txiki bat egin omen zuten Ernion, orain gurutzeak dauden mutur artan, kanpamentutik ikusi gabe Gazumekoak ikusi zezaten. Orduan, eltzaorra eta turutak ekin zioten, eta zaldi guztiak loturak eten eta igesi. Eta zeuden gudariak, Gazume aldetik eraso zutelakoan, Zelatungo Ernio azpiko babesera. Orduan, aitz gaiñean zeudenak arria eta sua goitik; eta, erio artan eta illunpetan zebiltzala, alkar joaz eta goitik jaurtitako arri erauntsiaren eragiñez ildakoa eta zauritua askotxo izan omen zuten erromatarrak. Gau ura, beste erasorik gabe, artantxe igaro omen zan.

Beean ziran erromatar taldea ere, goizerako danak Zelatungo zelaietan omen ziran.

Euskaldunen kapitanak ikusi omen zuan, eraso arekin uste zuten baiño kalte aundiagoa egin ziotela etsaiari. Baiña pena aundia omen zuan: Ernioko aitzetan zeuden guztiak jetxi eta eraso izan baliote, danak garbituko zituztela. Baiña eraso ura jasan da gero, ordaiñetan gogorra izango ote zuten bildurrez zegoan.

Urrengo goizean, amarrak aldean, erromatarren ejerzituari antzeman omen zioten erasorako prestatzen ari zirala. Goikoak ere danak ernai.

Alako batean, talde bat Zelatunen gelditu eta beste bi talde erasotzera abitu omen ziran. Talde bat, orain Erniora igotzen dan alde orretatik; eta bestea, Zelatundik zuzenean aitz tartean gora.

Aitz tartekoak puska bat igo ziranean, asi omen ziran goien zeuden euskaldunak len egindako arri pilla aiek jaurtitzen, eta ia danak garbitu omen zituzten. Beste aldekoekin ere ari omen ziran arri aundiak bueltaka boteaz eta abar, aiei ere kalte asko egiñez. Baiña beste mordoska bat aurrera, eta Zelatungo taldeari ere *katapult*a edo tresna arekin arriak jaurti eta kalte aundiak egin omen zizkioten.

Baiña beste talde bat, Ernion zeudenak ikusi gabea, seguru asko Sain-azpian egon zan talde artatik, Alkiza gaiñetik barrena, Albiztur aldera pasa eta uste etzuten tokitik sartu zitzaien. Talde orrek ondatu omen zituan euskaldunak. Aurreko aldetik zituztenengatik nagusi omen ziran. Baiña gerran beti maltzurkeria erabiltzen du etsaiak.

Lenago esaten nuan, Ernioko aitzetan gora erasoan asi ziran bi talde erromatar aiei, goiko muturre-

tan zeuden euskaldunak nola kalte aundiak egin zizkieten; ildako eta zauritu asko gertatu ziran erromatarren gudarietan. Baiña, euskaldunen zoritxarrerako gertatu zan, Albiztur aldetik uste gabean sartu zitzairen erromatarren beste talde ura.

Beekoei eutsi eziñik ari zirala, beste taldea beren gaiñetik erasoan ikusi zutenean, al zuana al zuan tokira igesi abitu omen ziran. Aitzetan beera amildu eta ildakoak asko izan omen ziran. Iges egitea lortu zutenak, oso gutxi.

Seguru asko, erromatar aiek euskaldunik bizirik arrapatu balute, lenengo talde arek zutituta utzi zituzten gurutze aietan ilko zituzten, erruki aundirik gabe.

Erromatarren aldean ere, ildako eta zaurituekin erdira jexi omen zan etorritako taldea edo ejerzitua.

Ori izaten da toki guztietan gerraren emaitza: bi alderdietan ildako eta zauritutako mordo bat, negarra eta mixeria. Baiña orrelaxe da gizonaren izatea.

Erromatarrak, bearbada, garaipen errezago bat lortzeko asmotan etorriko ziran. Baiña galesti samar irten zitzairen Ernioko burruka. Bestela, bertan mina edo zerbait aprobetxatuz jarraitzeko era aurkituko zuten. Gaiñera, bertako jaun eta jabe ibiliko ziran, ganaduak eta bertako gauza guztiak berentzat artuz. Baiña bildurtu egiñak izango ziran, emengo jende guztia beren aurka jarriko ote zan. Orregatik-edo, berealaxe joan omen ziran etorritako tokira.

Ara nola agertzen zaigun gure Ernio inguruko euskaldun eta erromatar aien guda gogorraren kondaira edo istoria. Guda orren gora-beeren artetik datoz *Ernio*, *Zelatun* eta *Errezil* izenak.

Ernioko zarata eta iskanbillak bukatu ziranean, bee aldeko sakonetan gorderik egon ziran guraso eta

zar jendea, igo omen ziran Zelatun eta inguru aietan zer gertatu ote zan ikustera. Erromatarrekin batean ilda beren semeak ainbat eta ainbat ikusi zituanean, ama batek ala esan omen zuan:

– Au da gure semeen ondamendia! Oni esaten zaio nekez azi eta errez il!

Ordu ezkeru omen du Ernio azpiko erri orrek *Errezil* izena.

Asera batean galdetzen nuan Ernioko muturrean zergatik eta nola asi ote ziran gurutzeak jartzen. Orain badakigu edo ikusi degu gurutze oien sorrera nola izan zan. Erniora aurrena etorri ziran erromatar aztarnari edo esploradore talde ura izan omen zan lenengo bi gurutze aitz orren gaillurrean zutitu zituztenak. Erromatarren legeetan gurutzea baizuten etsaiak zigortzeko eta iltzeko erabiltzen zuten tresna. Garbi ikusten da etzirala berak ere alde ontara arrapatzen zutenari barkatzeko asmotan etorriak.

Euskal-Erriko mendi gaillurretan geroztik jarri diran gurutzeak, ikusten degu nundik izan duten sorrera; eta lenengo aiek jarri zirala, badira gutxieneko bi milla urtetik gora.

Ara nola osatzen dan Ernio mendiko gurutze eta bere inguruan guda edo burruka gogor aien kondaira edo istoria.

Ernio, zure sorrera ura  
bai goibel eta illuna,  
baiña bera da euskaldun danak  
sonatu egin giñuna.  
Euskaldun eta erromatarren  
burruka etzan biguna,  
aren bitartez au da eredu  
bikaiña utzi ziguna,



beraien eriotza da guri  
bizia eman diguna.

Orduko euskaldunentzat ziran  
ain sufrimentu luziak,  
Ernion gudan illak baiziran  
sasoiko mutil guziak.  
Etsaien iges askotxo ziran  
aitzetan bera jausiak,  
erri gaixoa askatzearren  
beren biziak utziak,  
aien lekuko antxe dauzkagu  
Ernioko gurutziak.

Ernio zaintzeko jarria zan  
euskaldun talde bikaiña,  
agian batek balio zuan  
etsaietako bik aiña.  
Erromatarrak umildu ziran  
arro eldu ziran baiña,  
oso galesti askatu zuten  
Ernioko mendi gaiña,  
odolarekin erosi baizan,  
ura izan zan ordaiña.

Naiz iruditu kondaira ura  
gugandik oso aparte,  
gure sendian gertatu zan da  
danok artzen degu parte.  
Belaunaldiak gureganaiño  
burruka ura dakarte,  
bizi-bizirik gordetzen degu  
naiz pasa bi milla urte,  
gure Ernio ez da aztuko  
mundua mundu dan arte.

Euskaldun eta erromatar aien arteko Ernioko burruka edo guda gogor arek eta bere aztarnak argitara ematerakoan, bi ikuspegi agertzen dira.

Nik banuan Donostian gizon eldu bat, neroni baiño ogei ta bost urte zarragoa, nere lantoki edo serbizioko buruzagi edo administradorea. Agote zuan bere abizena, eta Aiakoa zuala esan oi zuan bere aitonaren aita. Euskal-Errian gertatutako gauza askoren berri zekiana zan. Ama, berriz, eun urte betetzear illa zuan, eta berari ere gauza asko ikasi omen zizkion. Emen gertatutako gauza arrigarri askoren berri ematen zuan, eta nik oso gogoz entzuten nizkion.

Agoteren ikuspegitik, Ernioko burruka ura nik emen jarri detan bezela izan omen zan. Baiña Agote orrek bazuan beste lagun bat, bera baiño zarragoa. Joxe Miel zuan izena. Abizenik ez nion entzun bein ere. Ez dakit Donostiako puertoan jaioa edo bertan bizi zana, bietakoren bat bazuala badakit. Itxas gizona izandakoa zan.

Ni Agoterekin, Donostian erosketak egiten askotan ibiltzen nintzan; eta, geure lanak egindakoa, batzuetan kafetxo bana artuz egoten giñan, eta beste batzuetan meriendatxo bat egiñez.

Oietako atsedean alditxoren bat genduanean, puertoko Joxe Miel ura ere guregana biltzen zan, eta Euskal-Errian gertatutako gauza arrigarri oietako asko zekian. Nik, aien ondoan, denbora pozik pasatzen nuan.

Joxe Mielek danetik zekizkian: itxas ertzeko eta mendi gainetan igarotako gora-beera guztiak kontatzen zituan. Garai bateko Donostiako eraso aien berriak ere ematen zituan: nola Ulia mendi, Urgull eta

Igeldoko gaiñetan zelatari eta zaindaria egoten ziran; eta, itxasontziren bat tankera txarrekoa, edo-ta gauez, ikusten bazuten, nola Santa Klarako ugarte edo islatik *Acuarium* aldeko baztarrera kate aundi bat edo bi jartzen zituzten ur azalaren azpitik, itxasontzikoak ikusten etzutela; eta islatik eta Urgull barrenetik zai jarrita zeuden aiek, kate ura jo eta gelditzen zan barku pirata orri erasotzen omen zioten gaiñetik beera, tiroa, sua eta arria, jo ta eman, al bazuten urperatu arte. Eta olako beste gauza asko.

Baita Ernioko euskaldunen eta erromatarren burruka gogor aren berriak ere ematen zituan. Gertakizunen asera eta Ernioko bi taldeak alkarri nola eraso zioten, Joxe Mielek ere orrela kontatzen zituan.

Baiña nik, lengo ikuspegi artan, euskaldunak galdu egin zutela jarri det; eta erromatarrak, bildurtuta-edo, bereala aldegin zutela. Joxe Mielek, ordea, kontatzen zuan, eraso gogor artan ari zirala, euskaldunak aitz gaiñetan babestuta eta erromatarrak Zelatungo sakonetik gora, auen aldetik ildakoa askoz ere geiago izan zala.

Lenago jarri det nola erromatarren talde bat, uste gabean, Ernioren Albiztur aldetik sartu zitzaie; eta Joxe Mielek ere ala esaten zuan.

Baiña ordurako euskaldunak, bildurtuta-edo, bialdu omen zuten mandatari bat, ganaduak zaintzen eta sendien arduran gelditu ziran guraso eta zarrei, al zuten guztiak etortzeko esanez. Nunbait ala komeni eta, zar jendea igotzeko une ortan, laiño itxu bat sartu omen zuan. Iñor konturatu gabe, goiko muturrera iritxi omen ziran; eta Ernioko gaiñean zeuden euskaldunei erromatar talde arek uste gabean eraso.

Baiña beraiei ere, gero igo zan zar talde arek, laiño tartetik uste gabeen, sardez eta makillaz eraso zietenan, bildurrez aitzetan beera, al zuten moduan, iges egin omen zuten erromatarrak.

Orrelaxe ari omen ziran, egun bat, bi eta iru, alkar autsi eziñik, bi aldeetakoak ere naikoa eginda, baiña iñork bururik makurtu nai ez.

Olako batean, erromatarrak mandatari bat bialdu omen zuten euskaldunen kapitanarengana, eta alkar neurtzeko aukera au jarri omen zioten: egun batzuk atsedentzeko artu eta bi burrukaldi egitea; eun gudara alde bakoitzetik; lenengo burruka Zelatunen bertan, eta bigarrena Erroman; biak alde batekoak irabazi ezkeru, ura nagusi; bestela, irugarren neurketa bat erdi bidean.

Euskaldunen kapitanak, bere jendearekin aztertu ondoren, erantzuna eman omen zion mezulariari konforme zeudela. Baiña sei eguneko epea jarri omen zion; eta sei egunera, esan bezela, eun gizoneko taldea euskaldunetatik, beren zuzendariarekin—eta zuzendari ura Lartaun gaztea, Oiartzungo semea, izango zan, gero azaltzen danez— jetxi omen ziran Zelatungo zelaira.

Burrukarako gertu jarri eta turuta ots batekin eman omen zioten asera. Bi aldeetakoak indartsu; baiña Zelatun nola aizeak indar aundiko tokia duan, emengoak aizea atzeko aldetik omen zuten, eta erromatarrei zakarra eta autsa dana begietara. Orrek ere asko lagundu omen zien; baiña bestela ere bular-tsuago azaldu omen ziran, eta errez nagusitu omen ziran euskaldunak.

Ernioko burrukan estu zebiltzala, esaten nuan nola guraso eta zarrak laguntzera ekarri arazi zituz-

ten; eta ori orrela izango zala adierazteko badira arrazoi geiago ere. Bertso zar batek onela esaten du:

irurogei ta bost urtekoak  
bazebiltzan soldaduak.

Zelatungo burruka euskaldunak irabazi zuten, baiña gero Erromara joan bearra zeukaten; eta orduan ere agintariak, garai guztietan bezelaxe, batzuk oso fiñak izango ziran, baiña tartean baita paltsoak ere.

Itz emanda zeuden bezela, joan omen ziran euskaldun taldea ere; eta, portura iritxi ziranean, Lar-taun taldeko buruzagiak aginduta, eraman zuten ontzia zulatu eta ondoratu egin omen zuten. Erromatar-  
rrak, arriturik, galdetu omen zioten:

– Zergatik ondoratu dezute zuen ontzia?

Eta Lartaunen erantzuna:

– Galtzen badegu, ez degu ontzi bearrik; eta, irabazten badegu, zuen ontziarekin joango gera.

Ain erantzun bikaiña eman eta ixil-ixilik utzi omen zituan.

Bertso zar batean au dago jarria:

Bertan batalla irabazita  
gero Erromara junak,  
Oktabianok galdu zituan  
bere erriko lagunak.

Oktabiano ori ikusten degu iruzurtia edo traido-  
rea izan zala. Gerra guztietan izaten dira orrelakoak. Itxuraz euskaldunen aldetik zebillen; baiña azpija-  
nean ari zan gizona zan. Emengo gudariei esan omen  
zien armadura gauza gogorrik ez jazteko gorputzean;  
mugitzeko erreztasuna galduko zutela, eta batere ga-

be erasotzeko. Erromatarrak, berriz, alderantziz: gerriarainokoa dana txapaz estalia.

Baiña kalte egiteko ustetan asi eta mesedegarri gertatu omen zitzairen euskaldunei jantzi ariñarekin joatea. Bigarren burruka ura asteko ordua iritxi zanean, eraso omen zioten, eta ura une larria noski! Euskaldunen taldekoak *blasta-blasta* erortzen asi omen ziran. Baiña Lartaun, eunkaria edo *centurión* au baizan, laster konturatu omen zan nundik zeukaten eraso bearra, eta onela deadar egiten omen zien bere gudariei:

– Sabel barrenetik! Sabel barrenetik!

Mutillak entzun zuten nagusiaren esana eta, azpitik eraso zietenean, garaille atera omen ziran. Eskerrak Lartaun garaiz konturatu zan. Bestela, etzeukaten zer egiñik. Zenbat engaiño eta azpikeri izaten dan gerra batean! Orduan ere baziran, ikusten denez.

Ara nola izan zan euskaldun eta erromatarren burruka gogor ura. Orduan ere negar egingo zuten makiña bat gurasok. Baiña errialde bat zainduko bada, orrelako asko gertatu dirala ikusten degu istorian zear. Etsairik izango ez balitz, lasai biziko giñake. Baiña andik edo emendik beti sortzen da zerbait. Erniora ere erromatarrek etorri ez balira, eta lapurretarik egin ez balute, etzan iñor aien aurka asiko. Baiña norberak bear duana kentzen asten zaizkigunean, min artzen degu; eta orixe izan da gerra askoren sua pizteko arrazoia.

Zelatunen lendabiziko sarraskia euskaldunak gauzez erromatarrei eman zietenean, aitatzen nuan nola *eltzaorra*-rekin zaldiak izutzen zituzten; eta bateonbategen tresna ori zer dan ez baleki, orain adierazi-

ko diot beraren berri. *Eltzaorra* da egurrezko tresna; eskuarekin eltzeko elduleku bat; eta, bueltaka erabiliz, zaldiak bildurtzen dituan ots bat ateratzen du: *tak-tak-tak*. Orren berdintsua izaten zan elizetan aste santuan garai batean jotzen zuten matraka.

Ikusi eta aztertu ditugu garai aietan gure Ernio zarraren bizkarrean izan ziran burruka eta gorabeera gogoangarrienak; nolako eraso gogorak eman zizkioten batak besteari euskaldun eta erromatarrak; Ernioko gurutze oien sorrera nundik eta nola izan zan; Ernio azpiko euskaldunen askatasuna zenbat kostata lortu zuten; Ernio, Zelatun eta Errezillen izenak zer arrazoirengatik jarriak dituzten.

Seguru asko, gaur ezagutzen ditugun Erniorako jendeak artuta dauzkan jaiak eta Zelatungo erromeriak ere, Ernioko euskaldunen garaipen artatik oiñarritu ta asiak izango dira. Ainbat urtean jarraitzen dion gauza batek, berak esaten du, oitura orrek indar ori gordetzeko, euskaldunentzat bultzada eta arrazoi bereziren bat izan zuala antziñako garaietan. Belau-naldi batek besteari eman dio ori guztiaren jarraipena, eta orain bertan ere oso indarrean dauzkagu Erniorekiko oitura eta loturak. Bera degu igaroaren lekuko.

## ITURRIOZKO ERMITA

Iturriozko benta zarra edo baserri ori da Aian goiena edo altuen dagoan bizitoki edo etxea. Zazpireun bat metrotara dago itxasotik.

Sortaldera, Asteasuko erri saillekin mugatzen du; eta Errezilkoekin ego-mendebalera. Iturriozko bentatik eun bat metrotara egongo da Asteasuko saillekin mugatzen duan tokia; eta Errezillekikoa, berriz, amar edo amabost metro inguruan.

Iturriozko bentatik ogei bat metrotara, Ernio bidean dijoala, San Juan Bataiatzailleari eskeiñitako ermita bat dago. Oso polita, gaiñera.

Urtearen buruan, mezak egun auetan izaten dira: San Juan eguna, bigarrena, urrengo igandea eta San Juan txiki egunez. Beste egunen batean edo bestetan ematen badute, gauza bereziren batengatik izango da.

Iturriotz, baserri bezela ere, oso bikaiña eta zabala da. Saillez, berriz, Aian dan aundienetakoa. Labore toki bezela, kaskar samarra, oso goien dagoalako. Belardiak eta garomanak berdingabeak ditu, danak



ordeka eta zelai-zelaiak, patxara ederreko tokiak. Gaindegi zoragarria, itz batean esateko.

Iturriozko izenak berak dion bezela, San Juango ermita orren azpitik, sortaldeko ertzetik, Erniorako bidearen ondoan, iturri bat sortzen da. Ur garbi, otza eta ederra benetan. Liburu zarretan agertzen danez, garai bateko jendeak sinismen izugarria zuan San Juango iturriko urarekin. Sarna eta beste gaitz asko sendatzen zituan. San Juango ermitaren kontra, ari landuz egindako aska bat dauka, bide aldetik arrizko iru eskaillera mailla dauzkana. Baserri edo bentaren izena ortik dator: Iturri-otz.

Iturri ortako urak gero ermitaren azpitik joaten dira, eta bertatik asten da errekatxo bat osatuz beerraka. Goi alde ortan Muatz-erreka deitzen zaio. Gaur erorita badago ere, len Muazko baserriaren azpiko aldetik jeisten zan San Juango ura, eta izen ori ortatik etorriko zaio.

Gure inguruko beste errekak ere, zein baserriren ondotik igarotzen diran, izen orrekin ezagutzen dira. Eta beste gauza asko, erreka oien antzera. Orrelaxe dira gure arteko oiturak, eta oitura oiek lege eginda daude.

San Juango ermitaren ondoko aska edo putzu ortan, amorraiak askotan ikusten dira; eta, Iturriozkoak esaten dutenez, oso fiñak gaiñera. Ur garbia eta otza dalako izango dira olako amorraiak.

Gaur San Juango elizaren ertzean dagoan iturri ori, orain millaka urte sortua izango da; eta iturri ortako ura, ikusten danez, oso berezia eta doaiez betea izango zan orduan —eta oraindik ere ala da—, gorputzeko gaitz asko sendatzen zituana, azalekoak batez ere.

Aurtxoak osasuntsuak izateko ere, iturri ortako urarekin onestea berdingabetzat jotzen omen zuten garai artako gurasoak.

Orduko jendeak San Juango iturriko urarekin zeukan sinismen arek, gaurko kristauetan ere badauka jarraipena. Urtero-urtero, San Juan eguneko meza nagusira, inguruetako guraso asko igotzen dira beren aurtxoekin. Apaizak, meza aurretik, iturri ortako ura onetsi eta gero aurtxoei onespren berezi bat ematen die; eta orduan gurasoak aurtxoekin pozik itzultzen dira beren etxeetara.

Gizonaren bizitzan sarritan izaten dira bear aldi latzak. Gaitz txarren erasoak eta goiko laguntzaren premi gorriak garai aietan ere izango ziran, eta gogorrak gainera. Gaitz txar oietakoren batekin jo ta etsipenduta, sendatu eziñik zegoan oietakoren bat edo beste, noiz edo noiz, ezkutuko eskuren batek bultz eginda, iturri ortara joan eta ango uraren bitartez sendatua edo sendatuak izango ziran. Orrelaxe asiko zan jendea San Juango iturriko uraren billa geroz eta geiago.

Iturri ortako ura ain birtutetsua zala ikusirik, eta milagrogille bezela arturik, gaur dagoan San Juango ermita ori, edo orren antzekoren bat, zutitua izango zuten garai artako kristau sinimentsu aiek.

Orain Iturriotzen dagoan San Juango ermitak, 1525'eko zenbakia dauka orma batean barrengo aldetik. Lenbizikoa erre edo ondatu zalako, edo ez dakigu zergatik –gai ontan ez dago ezeren ziurtasunik–, orain dagoan elizatxo ori bigarren egiñaldikoa dala esaten dute; eta orain orma batean agertzen dan zenbaki ori, egiñaldi ortako urtea esan nai duana

izango da. Lenbizikoa egin zanetik onezkero, milla urte ez dira urruti izango.

San Juango iturriko urarekin orduko kristau aiek zeukaten sinismen eta itxaropenarekin, jendea baztar guztietatik geroz eta geiago inguratzen omen zan Iturriotzera.

Noiz edo noiz, orrelaxe asiko ziran, aurrerago aitaturko ditugun Saiazko alkateak edo ordezkariak, Iturriotzen beren errietako artu-emanak erabakitzeko billerak egiten. Nolabait ere, orrelaxe sortuko zan gerora ain ospetsu izango zan Aszentsio eguneko eliz billera.

Garai artan apaiz eta eliz gizonengana itzal edo begirune aundia nola kristau erriak edukitzen zuan, Iturriozko eliz billera berealaxe indarrean jarria izango zan, lenago ikusi degun bezela. Egun ortako otoitz, letani edo errogatibak eta elizkizunak, orduko kristau aiek ortarakoxe jarriak izango zituzten, ikusten danez: Jaungoikoari eskariak egin eta eskerrak emateko, bereziki.

Iturriozko Aszentsio eguneko eliz billera indartzen eta erromesak ugaltzen zijoazen bezela, eta ango gain edo inguruak jendetza aundiak biltzeko aukerakoak izanik, orduko Saiazko alkate edo agintariak, Iturriotz inguruak eskeintzen zituan alderdi berdingabeak ikusirik, eta eliz billerarekin baliatuz, Aszentsio egunean ganadu feria jartzera ausartuak izango ziran.

Iturriozko gain ortara jendeak artu zuan joera ura, urteen buruan era ontantxe lortua izango zan, pixkabana-pixkabana gauza batek besteari bultzada emanaz eta lagunduz.

Iturriozko kondaira guztiari argi egin dion kande-

lari sua eman zion txinparta, San Juango iturriko ur birtutetsu ortatik sorrera izan zuala garbi ikusten degu.

Lenengo, ur ori zala bide, jendea asi; eta gero, joera orren bitartez, jendearen billera ugaltzen zijoan bezela, ermita bat zutitzen dute; eta orrelaxe datoz, bat bestearen ondoren, ermita, benta zaarra, Saiazko alkateen billerak, Aszentsio eguneko eliz billera, Aszentsio eguneko feri sonatuak, eta abar eta abar.

Alderdi oiek guziak eragin aundia izango zutela periaren sorreran, gai ortan ez dago batere zalantzarik. Baiña orduko agintariak bazuten beste arrazoi garrantzitsu bat, peria bertan jartzera beartu zituana.

*Alcaldía de Sayaz* alkarte orren barruko ziran bost errien mendi sailletan edukitzen zituzten ganaduak omen zituzten beren bizibide. Uraxe aien etorkizuna. Urtean mordo bat azi eta gero saldu. Baiña salduko bazituzten, perietara eramán bear, eta peritokiak urruti. Orixe zeukaten arazo latz eta aspergarria.

Urtean bein gutxienez, eta bitan askotan, jende mordo bat bildu, ganadu pilla bat artu eta noizbait iritxi peritokira; eta, saltzen ez bazituzten, berriro lengo mendira ekarri bear. Arrazoi orregatikan, askotan gaizki saltzera beartzen ziran, batetik dirua bear zutelako; eta, gaiñera, berriz ganaduekin ez etortzeagatik.

Era askotako kalteak zeuzkaten; eta gauzak aldatzera batik-bat orretzek beartu arazi zituan. Ortatik etorri zala esaten dute Iturriozko Aszentsio eguneko ganadu eta gaiñontzeko gauzen peria.

Iturriotzen Aszentsio egunez jendeak billera aun-

dia zeukalako, orren babesean peria etorri zala garbi ikusten da. Ez dago ukatzerik. Eta gero, peria zalako len baiño askozaz jende geiago Iturriozko gain ortara inguratzen zala, liburuetan ere ala agertzen da. Ara nola izaten diran gauzak.

Gizonetan ere gertatzen dira orrelakoxe gorabee-rak. Gaur bat diru askoren jabe izango da; eta ezi-ñean arkitzen dan beste bat, asko daukan orri dirua eskatzera beartuko da. Orren diruarekin asiko da bizimodua aurrera ateratzen, eta andik urte batzue-tara alderantziz arkituko dira. Orrelaxe Iturriozko eliz billera eta periaren arteko gertakizuna ere.

Batak besteari lagundu ziotela ikusteko, badago arrazoirik asko. Ganaduen sal-erosteka zala bide pe-ria sortu bazan ere, peri danetan gertatzen dan beze-la, Iturriozkoan ere laster asiko ziran beste gauzen saltzailleak etortzen, arropa eta garai artako tresna mota guztiak ekarriz.

Gaiñera, gauza ori ulertzen oso erreza da. Jende asko biltzen dan toki artara etortzen dira saltzailleak, eta gauza asko saltzen dagoan lekura erosleak. Bi alderdiak daukate alkarren premia. Biak, alkarrekin bear dutenak dira. Bakarka ez dute balio. Ez dauka-te bizirik.

Bearbada, Iturriozko peria Aiara aldatu zanera-ko, ganaduen gorabera aitu samarra izango zan. Eun ta irurogei urtetako Aiako periaren berriak ematen dituzte, nola Gipuzkoa guztitik zerbait erosi bear zutenak Aszentsio eguneko perira etortzen ziran; eta Gipuzkoatik kanpokoak ere bai.

Baiña aitatzen ditudan urte oien barruan, bein ere ez det entzun ganadu peri bezela egin izan zanik. Bearbada gertatuko zan bitarte ortan idi, bei, abere,

ardi edo olako zerbaiten sal-erosketaren bat. Baiña orrek ez du esan nai, garai artara ezkerro ganadu periaren izena merezi zuanik.

Gaiñerako gauzak, garai artan merkatuan zebiltzan guztiak, gaiñezka izaten omen ziran Aiako enparantza eta eliz jiran. Baiña ganadurik ez. Periaren sorrera ganaduak eman bazion ere, geroko jarraipena beste tresna auen sal-erosketak eman zion: sega, sega maillu, atxur, ondi-atxur, sarde, aizkora, tron-tza, arpana, soka, kate, idi manta, kopeteko, abereen krabisto, pasta edo albarda, eunezko erropa, abere eta ardien zintzarri, kaiku, beste ontzi, eta abar eta abar.

Aiako Aszentsio eguneko peri edo azoka sonatu arek berreun urte eta geiagoan orrelaxe iraun zuan. Sal-erosketak berekin duan giro orrek lagun egiñez, eta oitura zarrak berekin izaten duan indarrari esker, biziari eustea lortu zuan 1977'ko urtera arte.

*Alcaldía Mayor de Sayaz* alkarte orren barruko ziran errien mendi sailletan ugaldu edo azitzen zituzten ganaduen artean, salmentarako eragiñik aundien eta periari indarrrik geiena bere garaian eman ziona, idia izan omen zan. Gipuzkoan bai omen zan garai bat, eta baita Gipuzkoatik kanpora ere, beia baiño idia geiago erabiltzen zutena giza-bizitzarako etorkizunaren serbitzuetan. Gaur Euskal-Errian beia askozaz geiago arkitzen da. Idia eunetik batera ez da iritxiko. Ori da aldakuntza, ori! Ara nola izaten diran bizimoduaren gorabeerak.

Garai artako lanik aundiena edo gogorrena eraman-ekarria edo karraioa omen zuten zalantzarik gabe. Orain bost edo sei gizaldi emen bizi ziran euskaldun aiek, orduko burni ola aientzat bear zan minera-

la jaso, eta gero inguruko basoetatik aiek sutan jartzeko ikatza jetxi; beroietan egiten zituzten burnizko tramankulu astun aiek itxasontziren batera karraiatu, gero aien bidez Europako merkatuetara eraman zitzaten; gure baserrietako karobiak betetzeko arria inguratzen; gero aiek erretzeko egur karraioa; gure mendietako orma azken gabeko aiek bear zituzten arri pilla bildurgarriak; Euskal-Erriko ainbeste baserri eta arrizko jauregiak zutitzeko bear ziran ainbeste gauza; gure azken gabeko baso aietan orduan ziran aritz eta pago gerri bikain eta lerden, ikatz eta egur, gauza oiek guztiak zeuden tokietatik komeni ziran lekuetara eraman-ekarri guztiak, idi indarrez baliaurik egiten omen zituzten. Derrigor idi asko bear zuten orduko gizon aiek, bizimoduari arpegi emateko.

Saiazko mendi sailletan udaldia larrean igarotzen zuten ganaduak, negurako Ernio azpitik bee aldeetara jexten omen zituzten. Ardi, beor, eta larre beientzat erri bakoitzak larre toki bereziak edukitzen omen zituan. Baiña bost erriren artean zeuzkaten idi guztiak, negurako ere danak talde batean jexten zituzten, esaten dutenez, Andatza mendi azpiko Iri-sasira.

Andatza mendi au, Aia, Zizurkil, Andoain, Zubieta eta Usurbil, bost erri auen erdian arkitzen da. Andatza mendiaren muturra eta orren itzulian dagoan eremua da Iri-sasi deitzen zaion mendi sail aundia. Usurbilko Agiña auzoarena da; beroien erri sailletan kokaturik dago Iri-sasi.

Saiazko mendietan udaldia igarotzen zuten idi taldeak negurako Iri-sasira jexteko, zer eskubide ote zeuzkaten Saiazko alkateak?

Liburu batzuetan zerbait agertzen danez, eta gure

aurrekoengandik entzutea degunez, Aia eta Usurbil auzo erriak ziralako batetik, eta guk ez dakizkigun beste arrazoen batzuegatik, artu-eman bereziak zituzten garairen bat izan omen zuten bi erri auek, batzuek diotenez.

Fermin Gillisasti Aiako semea ola gizon sonatua izan zan bere garaian. Aiako San Pedro auzoan ziran ola aietan, barkuen aingura eta orrelako tresnak egiten oso gizon artetsua omen zan; eta garai artan Usurbilko Agiña auzoan itxasontziak egiten ziran astilleroetan partea zuan gizona izanik, berak Usurbilko agintari eta jauntxoekin zeuzkan artu-emanengatik sortua izango zala diote batzuek, Aia eta Usurbillen arteko Iri-sasiko tratua.

Usurbil eta Agiñan ere, bearbada, garai artan idi asko edukiko zituzten; eta Saiazko alkarreko eta Usurbilko idi guztiak alkarrekin ibiliko ziran, udaran Ernio azpiko mendietan eta neguan Iri-sasin.

Iri-sasi, gaur dana piñu *insignis* orrekin beterik dago. Baiña garai artan, Euskal-Erriko mendi geienak bezela, goi aldetik pagadiak eta gaiñontzekoa geiena aritza eta gaztaiña omen zan; tarteetan, lizar eta urki; eta erreka zuloetan, altza ugari. Gaur dagoan baiño garbiagoa izango zan. Baiña orduan ere otsolarra eta otea asko omen zan. Idiak baso eta sasi tarte artan larrean ibiltzen ziralako omen datorkio Iri-sasi izen ori.

Gaur mendi sail ori esan liteke –len ere zerbait jarri det eta– ia dana piñua dala. Bide ertzetan eta tarteetan badaude urki, lizar, bertako aritz, aritz amerikano eta pago batzuk. Baiña oso gutxi. Mendi zikin samarra dago gaur. Badauzka toki ederrak jartzeko moduko saillak, pagadiak eta ariztiak jartzera



iritxiko balira. Baiña gaur dagoan bezela, dana piñuz beteta, mendia zikiña izaten da; eta ori ere ala dago.

Iri-sasi mendi sail aundia da. Zortzireun ektarea izango ditu gutxienez, eta bear ere bai ainbeste idi larratuko baziran. Urtearen erdia edo geiagoko negualdia igarotzen baizuten; eta udaran ere Usurbil edo Agiñako beiren batzuk erabiliko zituzten, ainbeste aundiko mendi saillean.

Orrelaxe agertzen zaizkigu gizaldiz-gizaldi Saiazko alkarteko errien bitartez sortutako Iturriozko eliz billera eta periak.

Aiako alkate eta beste gizon sonatu batzuen bitartez Iri-sasin idiak larrean ibiltzeko tratuak egin bazituzten Usurbil eta Agiñako agintariekin, Saiazko beste lau erri aiek ere, ardi, beor eta beiak negu denboran larrean ibiltzeko tokiak orrelaxe izango zituzten.

Orrelakoxe arremanak bear izaten baidute errien artean. Danetik osatutako erri gutxi izaten baidira. Orregatik, bat bestearengana beartzen da. Erri bati gertatzen zaio gauza batzuetatik geiegi; eta beste gauza asko, berriz, urri edo bat ere ez. Orregatik, bata bestearikiko arreman orren premia izaten dute. Orretxen bitartez lotzen dira baserriak, erriak, probintziak eta nazioak. Bear orri esker, gizonak arreman geiagorekin bizitzen gera. Danetik osatuta arkitzen diran gizon oiek ikusi izan ditugu, jauntxokeriz eta berekoikeriz gizatasun guztia galdu eta iñorekin konfiantzarik ez dutela; eta azkenerako gelditzen dira bekaizkeriak eta arrokeriak biotz guztia legortuta, patxaran eta lasaitasunez egun bat igaro eziñik.

Norbere ondasunetan eta indarretan uste osoa jartzen duanak, eta iñoren bear ez dala pentsatzen

duanak, ez dauka ezer egitekorik. Lagunik ez du izango. Beti bakarrik arkituko da; eta, azken batean, bera izango da aberats ustekoa, baiña beartsurik aundiena.

Iri-sasin sei edo zazpi illabete larrean ibili ondoren, Andatza azpiko sailletan arkitzen ziran idi guztiak bildu eta Iturriozko Aszentsio eguneko peri nagusi ortara jasotzen omen zituzten. Nola Iri-sasitik Iturriotz ain urruti etzeukaten, bezperatik idiak jasotzen astea naikoa izango zuten.

Gero, Iturriotza jasotzen zituztenean, esbarruetan sartzen omen zituzten idiak ere, gainontzeko ganadu guztiak bezela, abere mota bakoitza bere saillean.

Garai artan esbarru asko eukiko zituzten alako peri toki batean. Ez dago zalantza aundirik. Gaur bertan ere, oraindik Iturriotz arresiz inguratuta arkitzen da; eta garai artan nola etzituzten eukiko, ain bearrezkoak izanik?

Aszentsio eguneko Iturriozko peri aietara, Saiazko alkarte orren barruko etziran errietako ganaduak ere eramaten omen zituzten. Peri egun ortan saldu gabe gelditzen zitzaizkien ganaduak, berriro bakoitzak bere larre tokietara: kanpokoak beren mendietara eta Saiazkoak Iturrioztik gorako mendi sailletan banatzen omen zituzten, urrengo udazkena arte antxe larrean ibili zitezen.

*Alcaldía Mayor de Sayaz* len ere aitatu det. Izen orrekin ezagutzen ziran ondoren jarriko ditudan bost erri oiek osatzen zuten alkartea: Albiztur, Bidani, Goiatz, Errezil eta Aia.

Aszentsio egunez, Iturriozko San Juango ermitarra izugarritzko jendetzak biltzen omen ziran. Bost erri

oietako jendea derrigortuta bezela gertatzen omen ziran egun ortan ermita ortara etortzera, aurreragoan argi eta garbi ikusiko degun bezela. Baiña beste erri eta errixka geiagotatik ere jendea inguratzen omen zan San Juango ermitara egun ortan.

*Alcaldía Mayor de Sayaz* orren barruko ziran erri bakoitzetik, jende talde aundi samarra etortzen omen zan: apaizak beren laguntzailleekin, alkate eta alkate ordeak, eta etortzeko moduan zeuden erriko beste jende guztia.

Gizon bat aurrean gurutzearekin jarri eta beste talde guztia aren ondoren letaniak kantatuz, orrelaxe otoitz eta kantu bi edo iru orduko bidea igaro ondoren, irixten omen ziran Iturriozko San Juango ermitara. Gero, elizan, beste otoitz aldi bat egiten omen zuten, santuen bitartez Jaungoikoari eskariak edo errogatibak egiñez, eta eskerrak emanaz amaitzen omen zuten.

Elizkizunak bukatzean, bearbada festa aldi koskorren bat antolatuko zuten. Nola jende geiena gaztea eta sasoikoa izaten zan, ez da batere arritzekoa. Baiña ordu garai ortako gauzarik garrantzitsuena, an biltzen zan jendearentzat, bazkaltzea omen zan, batic-bat bi arrazoi auengatik: bata, goizean goiz irten bakoitza bere etxetik, ia iru orduko bidean etorri izerditan blai, eta ainbeste nekearen ondoren goseak irikita zeudelako; eta bestea, garai aietan jan aldi on bat egiteko jendeak eukitzen edo eukiko zuan ametsagatik. Batere giro ona zutenean beintzat, a zer pozarekin bazkaltzen erasoko zioten!

Erromes jende aren zuzendari bezela etortzen ziran alkate, apaiz eta laguntzailleak, Iturriozko bentan bazkaltzen omen zuten; eta gaiñerako jendea,

bakoitzak berak pardelean ekarritako bazkaria. An-txe, inguruko pago azprietan eta belardietan taldeka sakabanatu eta bapo. Zeiñen ederki eta alai bazkalduko zuten! Giro ona zutenean jende arek zenbat gozatuko zuan, proatu gabe ez dago jakiterik.

Bazkaria bukatzen zutenean, erromeri giroa izango zutela ez dago zalantza aundirik. Txistulari, trikitixa, dantza, jolas eta bertsolari, danetik izango zuten, ainbeste gazte sasoiko euskaldun bildurik zegoan alako toki batean.

Baiña beren erromeri saioa egin eta Iturrioztik garaiz abitzen omen ziran, talde bakoitza beren errietara. Orduan ere, danak etziran gogo onetik etxerako bidean abituko. Baiña garai artan etzan izango gaurko konturik. Alde batetik, goiz etxeratzeko oitura egongo zan garai aietan; eta, bestetik, erri bakoitzeko jendea apaiz eta alkateen mendean egun artan ibiltzen ziralako, etzeukaten iñolako moduz berandu arte Iturriotzen egoterik.

Iturriozko eliz-billera, peri eta jaialdien berri txetasun guztiekin jartzerik ez badago ere, era ontako aztarnak utzi dizkigute aurreko zarretatik iritxi zaizkigun oiartzunak.

Aszentsio eguneko peri eta jaialdiak, Iturriotzen ospatuz, eunka urtetan jarraitu ziotela agertzen da liburuetan. Peri eta eliz-billeraz gaiñera, Saiazko alkateen biltzarrak urtearen buruan Iturriozko bentan sarriagotan egiten omen zituzten; eta derrigor egin bearko ziran gaiñera.

Alaz ta guztiz ere, beti etzuten errez izango, bost errien artean sortzen zitzaizkien arazoak konpon-tzen. Billera oietan bero aldi ederrak eta eztabaida galantak ateratzen zituztela esaten dute istorigilleak;

eta, egia esan, ni ez naiz batere arritzen. Gauza guxtiagorengatik guk ere ateratzen ditugu galantak amaika aldiz.

Luis Murugarren jaunak garbi agertzen du, nola Karmelo Etxegaraik bere liburu batean ematen duan, 1544'eko Aszentsio egun artako Iturriozko billeran gertatu ziran naspilla, burruka eta ilketen berri.

Errezil eta Aiako alkateak beren alkate ordeekin, eta beren errietako jende mordo bat lagun zutela, baita Bidani eta Goiazko beste jende talde bat ere Aia eta Errezilkoekin batuta, ez dakit lengo urtetan oiturarik bazuten, baiña urte artan bai beintzat, danak armatuta omen ziran; eta, Albizturko alkatea eta bere laguntzailleekin aurretik zeukaten gorabeeraren baten gaiñean gogor mintzatu ondoren, indarraren legera jo omen zuten.

Errezil eta Aiako taldea askoz aundiagoa, eta gaiñera danak armatuta zeudelarik, albizturdarrei gogor eraso omen zieten, eta oso mendean artu omen zituzten, burruka giro orren barruan arrazoiaren indarrak eta gizalegeak galdurik.

Itxumen artan, Albizturko alkate ordea il eta bere semea iltzat utzi omen zituzten; eta beste iru gizoni eskubiko besoak moztu omen zizkioten, lapurretan ibiltzen ziralako. Gaiñera, deadar izugarriak egiñez, otsegiten omen zuten:

– Traidoreei eriotza! Traidoreei eriotza!

Aiako eta Errezilko alkateak ere, pakea egiten saiatu bearrean, suari indarra ematen alegindu omen ziran. Indarrez zapaldu ta justizia jartzea uste zuten nunbait, andik aurrera beren mendietako ganaduak pakea izan zezaten.

Aiek uste zutenez, besoak moztu zizkioten iru gizon aiek ziran Ernio azpiko mendietatik ganaduak arrapatzen zituztenak. Errezelo ori zeukatelako, zigor ura eman omen zieten, aurrerantzean lapur bildur gabe lasaiago ibili edo bizi zitezen.

Alde orretatik begiratuta, ikusten da arrazoi pixka bat bazeukatela aserretu eta kargu artzeko. Baiña beti gertatzen dana: odolak ainbesteraño berotu eta gizonak alkarri erasotzen diotenean, gauzak aurrerartxo joaten dirala; eta orduko billera artan ere orixe gertatu zan.

Iturriotzen Aszentsio egun artan aunditxoak gertatu ziran, ikusten danez. Egun artako gorabeerak sortu zituzten aserreak eta gorrotoak, urte askotxo bearko zituzten aztu edo bere onera etortzen.

Etxegarai jaunak bere liburuetako batean esaten digunez, 1544'eko Aszentsio egun artan Iturriotzen gertatu ziran gorabeera gogor aiek zirala bide, bertan egiten ziran feri, eliz-billera eta jaialdi guztiak Aiara aldatuak izan ziran. Baiña Gorosabel eta beste geiagok esaten dutenez, edo liburuetan agertzen danez, geroztik beste berreun urte inguruan jarraitu zioten lengo tokian ospatuz Iturriozko Aszentsio eguneko peri eta jaialdiak.

1747'an Zumaian egin zan batzar nagusian erabaki bat artu eta agindua eman zutela diote batzuek; eta besteak, Ordizian egin zan batzarrean emandako agindua zala. Nik ez dakit nun egin zuten batzar ori. Baiña agindua berdiña dan ezkerro, ez dio batere ajolik. Ikusten danez, lege edo agindu au eman zuten: babeslekurik gabe mendietan egiten ziran feriak erri bereko enparantzetan egingo zirala andik aurre-

ra; eta Iturriozkoa Asteasuko enparantzan egin zedilla.

Agindu orren berri jakin zutenean, Aiako alkate eta agintariak batzar nagusiari eskari au egin omen zioten: nola Iturriotz Aiako erriarena zan, len an egiten zan peria Aiako enparantzan egiteko baime-na.

Orduan, batzar artako zuzendariak, Aiaren eskaria bidezkoa zala ikusirik, peria Aian egiteko eskubidea edo baimena eman omen zien Aiako agintariei; eta andik aurrera Aiako enparantza edo eliz jiran periak egiñez jarraitu zion 1977'ra arte; Aszentsio eguna ostegunez jai izatetik kendu zuten arte. Iturrioztik aldatu eta beste berreun eta ogeitamar urtean jarraitu zuan Aiako Aszentsio eguneko peri sonatuak.

Ala ere, peri orrek berriz ere piztualdia izan zuan 1989 urtean. Baiña orduan, osteguneko ospakizuna galduta zegoan ezkerro, urrengo igandera aldatu zuten. Eta geroztik orrela jarraitzen du.

Ona orain emen 1989 urtean Aiako Aszentsio periarri buruz jarri nituan bertsoak:

Zerbait esan nai nuke  
Aszentsio periz,  
Aian ospatzen dana  
ia bost gizaldiz.  
Eten baten ondoren  
indarrean berriz,  
aurtengoakin degu  
irugarren aldiz.

Iñork jakin nai balu  
emengo berririk,

pake giroz ez dago  
olako erririk.  
Gozatu nai duanak  
biotz ta begirik,  
ez dezala utsegin  
Aiako peririk.

Sal-erosketa degu  
perian jatorri,  
indarrean eustea  
nai genduke orri.  
Erropa, tresna, zekor  
eta abelgorri,  
ikusi zale dana  
Aiara etorri.

Aian danetik dezu  
peri eta festa,  
irakurle, bixita  
egiteko presta.  
Oso ondo bazkaldu  
ta bi milla pezta,  
orrela etortzea  
arritzeko ezta.

Auzo erritan bizi  
diran aiatarak,  
esnatuko al ditu  
nere deadarrak!  
Agurtzeko aideak  
eta lagun zarrak,  
egun oiek ez dira  
ortarako txarrak.



Peri egunez ez da  
euria atsegin,  
Santa Klarari bear  
diot nik itzegin.  
Arrautzak artu eta  
bixita bat egin,  
egun ortan giroa  
ona izan dedin.

Orduan giro ona  
nola dan komeni,  
sinismena badiot  
santa maite oni.  
Arrautzak artu eta  
jungo naiz neroni,  
iritxiko detala  
seguru nago ni.

Lengo oitura zarrak  
bear du segira,  
irakurle, jar zaitez  
onuntza begira.  
Aszentsio igandez  
Aiako errira  
bixita bat egiñez  
azaldu perira.

Senti bezela diot,  
sinista ezazu,  
Lertxundi zuri deika  
gaurdandik daukazu.  
Neri zerbait esan nai  
baldin badidazu,  
egun orretan Aian  
ikusiko nazu.

## ITURRIOZKO BENTA

Garai batean, *Benta* deitzen zitzaaien etxeak toki askotan omen ziran. Euskal-Errian ziran geienak, baserri serbitzua egiten zuan sendi baten ardurapean egoten omen ziran. Bearbada, bentako lanarekin bakarrik etzuten bizimodurik sortuko, eta tartean baserri lanak egiñez jardungo ziran: labore puxka bat, etxerako esnea, larrean beste ardi, beor eta beiren batzuk eta abar.

Garaian garaiko gauzak izaten dira, eta orduan benta oietzek ziran oso bearrezko etxeak.

Erri alde batetik bestera, peri sonatuak egiten ziran tokietara, eta era ortako ibillaldi luzeak egitera, garai artan jende geiena zaldiz ibiltzen ziran; eta, jakiña, urrutitik zetozenak, eta berdin urrutira zijoazenak, derrigor bear zuten bidean jateko eta lo egiteko tokia. Gizonentzat bakarrik ez; baita zeramazkiten zaldi edo abereentzat babeslekua ere, bear zutena janez gaua bertan igaro eta indarberritzeko.

Iturriotz ere oietako benta bat zan; eta, dirudia-

nez, ingurumari auetako sonatuena. Pasara aundiko tokia zalako-edo, zerbaitek eman zion adur berezia.

Garai artako Euskal-Erriko bidazti geienak, eta urrutiagoakoak ere askok, Iturrioztik igaro bearra zeukaten. Orduko ibilbide nagusiak mendi aldetik izaten baiziran. Itxas ertzetan eraso asko izaten ziralako-edo, mendi aldeko bideak lasaitasun geiago eskeintzen zien, ikusten danez. Orduko istorigilleak ala agertzen dute beintzat beren liburuetan.

Goierrikoak Beterrira, eta alderantziz berdin, Iturriotz zuten beren geltokia; eta urrutiagotik zetozenak, lo toki eta atsedan toki. Gaur eguneko otel bat bezela zan bera. Liburuetan azaltzen danez, izan zuan garai bat erabat jendez beteta egoten zana. Ez da zalantza aundirik gauza orretan.

Liburu zarretan agertzen da, nola San Juango ermitan meza sarritan ematen zuten, eta bolaraz egunero ere bai, Iturriozko bentan geldituta zegoan jendearentzat. Gertakizun auk garbi erakusten dute Iturriotzek bazuala garai bat oso indarrean egon zana.

Iturriozko benta ori antziñakoa dala esan genezake batere zalantzarik gabe. Gertakizun asko daude ori egiztatzen dutenak. Ara zeintzuk diran oietako batzuk.

Loiolako seme Inazio, gero ain santu aundia izango zan ura, bere santu bizitzari ekin eta gero, Parisen ikasketak egiten ari zala, osasunetik oso motel omen zebillen; eta sendagilleak esan omen zion, gaitz ura sendatzeko, sorterriko aizeak bezelakorik etzuala ezer. Orduan, asto baten gaiñean jarri eta ekin omen zion bere errirako bideari.

Iturriotza irixten zala, illundu egin omen zitzaion;

eta, ain nekatua eta gauak jo zuanean, benta zarrean gelditu omen zan. Etxekoandreari, zerbait jateko eta baztartxo bat lo egiteko eskatu omen zizkion, dirurik etzeukala ta. Etxekoandreak aparria eta lo egiteko gela bat eman ere bai.

Gelara sartu zanean, etxekoandreak, an zegoan azpeitiar bati galdetu omen zion, an sartu zan gizon ura zein ote zan; eta azpeitiar orrek, gelako atearen giltza zulotik begiratu eta, barruan otoitzean ikusi zuanean, esan omen zuan:

– Au Iñigo da, nere anai ordekoa!

An zegoan azpeitiar ura, Iñigo azi zuan inñudearen semea omen zan, eta ezagutu egin omen zuan. Ara nola izaten diran gauzak.

Inaziok lo egin zuan gela orri, oraingo denboretan, «San Inaziok lo egindako gela» deitzen diote Iturriozkoak.

Igarotako gertakizun oiek garbi esaten digute Iturriotz oso antziñakoa dala. Inazioren istoriak berak ematen dizkigu bosteun urteko aztarnak. Beste gauza batzuek, berriz, milla urtetara ere aixa eramaten gaituzte, beren sustraiei begira jarri ezkerro.

Baiña garai artako benta askotako baserri lana kontrabandistak babesteko edo gordetzeko edukitzen omen zuten. Ala esaten zuten gure gurasoak. Jakiña, orduan ere, batetik bestera gauzez betetako pardela eraman bear zuanak, izango zituan bere eragozpenak; eta benta oietan laguntza zeukatenak, ondo ibilliko ziran.

Nik entzun izan detanez, Zarateko bentan bi kontrabandista beren pardelak gorde eta lotan gelditu omen ziran. Goizean, bentako nagusia jeiki zanean, mikeleteak edo karabineroak ez dakit, oietakoren

batzuk ikusi omen zituan Andatza aldeko bidean onuntza.

Orduan, nagusiak jeiki arazi omen zituan kontra-bandistak, nola guardiak zetozen esanez, eta garo ebaten jarri omen zituan bere bi semerekin batera.

Ertzain oiek etorri ziranean, zerbaiten errezeloa bazeukaten nunbait, eta Zarateko benta dana miatu omen zuten, eta bai galdera zorrotzak egin ere. Baiña alperrik; ederki ezkutatu ta jarriak zeuzkan ordu-rako.

Nagusi ura lenago ere oitua egongo zan alako gauzak egiten; eta, bien bitartean, baserriko lanak ederki egin araziko zizkien kontrabandistei. Batzuentzat babeslekua eta bestearentzat baserri lanak egiteko laguntza, bi alderdiak atera ziran irabazian. Bada biak galtzea aiñakoa.

Gaur toki izen guztiak sorreratik ziran bezela erabiltzeko erabaki bat artu zuten, orain dala gutxi Gasteizen egin zuten batzar batean; eta oso erabaki garrantzitsua eta bidezkoa derizkiot. Mendi, muiño, bide, erreka, aitz tontor, malda, leize zulo eta beste ainbat eta ainbat gauzen izenak sorreratik ziran bezela beren esan naiarekin erabiltzea, bakoitzak bere tokiko izatearen aztarnak eta berriak emanez, beren nortasunaren lekukotza egiñez, ondorengo gizaldietan zutikan jarrai dezaten.

Andazarrate edo Andatz-zarateren deiturarekin ere beste oinbeste gertatzen da. Gaurko garaietan Andazarrate deitzen dio mundu guztiak. Baiña, nik gaur bizi izatera urte askoren jabe bear zuten bi gizoni entzun nienez, Andatz-zarate du bere izena.

«Zergatik izen ori?» galdetu lezake norbaitek. Aiek ziotenez, Iturriozko benta eta Zaratekoak,

orain dala bosteun urte edo geiago bidaztien gelto-ki eta babesleku ziran bi benta aiek, bai omen zuten jende mota berezi batzuen bixita sarri samar izaten zuten garaia. Gizon oiek kontrabandistak omen ziran; eta, beste askotan bezelaxe, bi benta oietan arreman bereziak omen zituzten orduko aiek ere.

Andatz-zarate oso toki berezia eta garrantzitsua omen zuten orduko kontrabandista batzuek, batez ere *Ontza* eta bere lagunak. Izen ori deitzen omen zioten gauez ibiltzen oso ona zalako, edo gaueko abere eta piztiak bezela ikusten zualako.

*Ontza* edo zalako ura bere gisa bakarkako kontrabandista omen zan asera batean. Baiña oso azkarra zalako, edo gauerako zeuzkan doai berezi aien-gatik, bereala asi omen zan mutillekin, bera buru eta nagusi zala. Mutillak pardel eta pakete karraio jarri eta bera aien zuzentzioak egiten ibiltzen omen zan.

Andatz-zarate edo dalako toki ori omen zuten nagusia eta mutillak biltzen ziran edo igarotzeko toki berezi bat; eta nola beti ordu eta egun jakiñetan biltzerik izaten etzuten, orduan ezaugarri edo seiñaleen bidez alkartzeko tokiak izendatzen omen zituzten.

Urola alde, Goierri, Napar alde eta Ipar aldetik beren pardelekin zetozen mutillak Andatz-zaraten biltzen omen ziran; eta an, borda baten ondoan, arri lauki bat omen zuten, alde batean Andatz eta besteetan Zarate jartzen zuana. *Ontza* edo nagusi orrek, ertzaiñak nondik nora zebiltzan zaitu ondoren, zein tokitan biltzea komeni zitzaien, izen ura bistan zuala jartzen omen zuan zalako arri ura: batzuetan Andatz eta besteetan Zarate; eta orduan mutillak jakiten

omen zuten nagusia zein tokitan aien zai eukiko zuten.

Lengo denboretako kontrabandisten biltokia zalako, eta aiek beren arremanetarako erabiltzen zuten arri ura ondorengoak ikusi zutelako, eta abar eta abar, Andatz-zarate izen ori orrelaxe sortu zan, ikusten danez; eta gaur egun deitzen zaion ori baztertu eta bear dan bezela deitzea komenigarri dala derizkiot nik, eta besteak ere ala pentsatuko dutela iruditzen zait.

Iturriotzek, garai batean, beste baserri bat bazuan aurrez-aurre, Muatz izenekoa. Bosteun bat metroko tartea zeukaten batetik bestera.

Muatz ere oso baserri erosoan zan. Iturriotz baiño txikiagoa; baiña soro, belardi eta garomanak ezin obeak zituan orrek ere, danak etxearen inguruan.

Etxea bera gaur erorita dago. Baiña garai bat izan zuten –nik gogoratzen detana, eta lenagotik ere ala omen ziran–, lengo jaki gozo eta sano aiek jartzen oso doai berezia zutena. Iturriotzen eta Muatzen, bietan ziran oso sukaldari onak.

Erromeri egunetan eta udara garaian, jendea erruz biltzen zan gain ortara. San Juanetan, Iturriozko Zaindaria dalako; San Inazioetan, festa jartzen zutelako; San Juan txikietan, Ernioko jaiak lau igandez nola jarraitzen zuten, beti erromeria Iturriotzen eta Muatzen. Beti naiko jendea; geiegi askotan. Bazkaria aurrez enkargatzen etzutenentzat, etzan beti tokirik izaten.

Jakiak era ontakoak erabiltzen zituzten: larrean nai zutena janez ibilitako oillo zarrekin egindako zopa ederra; nasgarritutako oilloa edo menestra egiña; patatekin gisatuta ere bai; bertan azitako oillasko

ederrak; ardi zezeiña; aragi ona; mamia; bertako ardi gazta; eta abar eta abar.

Baziran garai artan bazkari eta apari ederrak egindakoa pranko, Donosti, Tolosa, Asteasu, Bidani, Errezil, Zarautz, Orio, Aiako eta toki geiagotatik ere bai. Alde guztietatik inguratzen zan jendea, Iturriotzen edo Muatzen bazkari eder bat egiñez eguna lasai pasatzera. Ura zan bizimodua, ura!

Orduko billera edo erromeri giroari berea emateko, orduko gertakizun batzuei aitamen eman nai diet. Gaur baiño jendea lasaiago bizi zan orduan. Etzeukaten baserrietako gazte askok, gaur bezela, igande edo jai biaramonean zortziretan lan tokian sartu bearrik; eta, orregatik-edo, baziran garai aietan Errezil, Bidani, Asteasu eta Aia aldeko mutil taldeak, noizbeinka Iturriotza erromerira etorri, gau guztia bertan igaro, iñoiz urrengo eguna ere bai eta orduan etxeratzen ziranak. Etziran utsik ertengo Iturriotz eta Muaztik.

Alde batetik, gaur baiño jatorrago, sanoago eta elizkoiagoa zan garai artako gazte jenderik geiena. Gaur ere gazte jator asko dagoala ez dago ukatzerik. Eta izan ditezela, gaiñera. Bestela, galduak giñake. Baiña orduko jendea, gauzari dan bezela berea ematekotan, gaur baiño baldarrago eta basatiagoak ziran, gauza batzuetan beintzat, orain ikusiko degun bezela.

Beste toki eta erromeri askotan bezelaxe, Iturriotz eta Muazko billera aietan ere bazan amaika zalaparta, okasio eta burruka izana. Aia, Asteasu, Bidani eta Errezil, besteak beste, lau erri oietatik etortzen ziran jendearen artean, bai omen ziran propio gauza orretxen billa ibiltzen ziran batzuk.



Onekin ez det esan nai danak ala ziranik eta gutxiagorik ere. Ez dezala iñork gaizki ulertu. Baiña baziran, danak dakigun bezela, ortantxe gozaten zutenak. Burruka edo antzeko gauzaren bat ez bazuten, jende orrek etzuan gozamenik. Ori gabe, festa leloa zan aientzat.

Errezilko baserri bateko aitak bere semeei egin-dako galdera datorkit gogora. Bein batez, sendi ortako bi seme etorri omen ziran Iturriotza festara. Seme oien aita burrukari gogorren bat omen zan. Joaten zan tokian beti alaxe ibilia. Bi seme aiek festan izan eta etxeratu omen ziran. Eta urrengo goizean, jeiki ziranean, aitak galdetu omen zien:

– Iturriotzen zer festa modu izan dek?

Semeak erantzun:

– Festa polita.

Aitak:

– Burrukarik-eta izan al dek?

Semeak:

– Ez. Burrukarik ez.

Aitak:

– Kaka egiten zioat nik olako festari!

Garbi ikusten da aita orrek bere gazte denboran zer gauza zuan gogoko, zartu ta gero ere burrukarik gabeko festa txartzat jotzen zuanean.

Beste batean, San Juan txiki jaietan, Iturriotzen jende asko omen zebillen erromerian. Alde guztietako jendea noski.

Aiako Olazabalegi baserriko semea, *Ezkerra* deitzen ziotena, burrukari oietakoa omen zan. Bestea, Errezilko *Katran* izenekoa. Oietako jendeak, askotan oi duan bezela, nunbait lendikan ere zerbaiten

intxa eukiko zuten alkarrentzat; eta egun artan, alkar ikusi zutenerako, desafioka eraso omen zioten:

– Ire bildurrik sekula ez dit izan nik –batek.

Eta besteak orduan:

– Iregatik igesi joango naizela uste al dek? Etorri adi, nai dekenean! Lokatzak ederki miaztuko dituk!

Eta abar eta abar. Alaxe ari zirala, berotu eta azkenean izugarrizko burruka egin omen zuten. Alako batean, ez dakit gaiñeko jendeak banatu edo galarazita, baiña burruka ura bukatu omen zan. Orduan, *Katran* eta bere lagunak Iturrioztik Muatz aldera abitu omen ziran.

Une edo garaitsu ortantxe iritxi omen ziran Aiako mikeleteak Muatzera. Norbaitek esan omen zien nola Iturriotzen *Katran* burrukan zebillen edo jardun zan. *Katran*'en izena mikeleteak askotan entzuna zeukaten. Oso sonatua baizan inguru aietan. Baiña etzuten ezagutzen, itxura danez. Ori jakin zutenean, mikeleteak abitu omen ziran Muaztik Iturriotz aldera. Eta *Katran* bere lagunekin Iturrioztik Muatzera.

Lizarreta deitzen zaion tokia dago erdibide inguruan, eta antxe topo egin omen zuten mikeleteak eta *Katran*'ek. Mikeleteak galdetu omen zioten *Katran*'i:

– Aizu: *Katran* ikusi al dezu?

Eta *Katran*'ek erantzun omen zien, eskuarekin Errezil aldera zijoan bidea erakutsiz:

– Bai. Iturrioztik onera nere aurrean zetorren; eta, zuek ikusi zaituztenean, orrako bide ortan barrena joan da.

Mikeleteak, ura entzun zutenean, laster joan omen ziran *Katran*'en atzetik, arrapatuko zutelakoan. Etzeukaten erreza gizarajoak.

Egun artan *Katran*'ek mikeleteei sartu zien ziri

ederra. Baiña beste batean obe izango zuan argi samar ibilita, aien eskuetan erori gabe. Bestela, izango zituan ordaiñak.

Iturriozko ingurumari aietan badago atsedeen leku ederrik. Besteak beste dirala, nork ez du izango aditzera Iturriozko Barruti Aundiarena edo Trintxalekurena?

Bi zelaietan, baiña batez ere Barruti Aundian, ez dakit noiztik asita, sega apustuak jokatuz datozte. Trintxalekuko zelaian ere bai, baiña geienak eta sonatuenak Barruti Aundian jokatu izan dira.

Badakigu Iturriotz, antziñako denboretatik asita, oso toki sonatua izan dala. Garai bateko Aszentsio eguneko eliz-billera, peri, bidaztien geltoki, eta abar eta abarrek, gizaldietan zear, Euskal-Erri osoan, entzute aundiaren jabe izateraiño jaso zuten, aurrera-goan ikusiko degun bezela. Baiña peri eta eliz-billera aien aroa edo garaia igaro eta ondoren, Iturriozko bizia edo izatea motelduta eta itzalita ikusten degu. Urte mordo batean, lengo izar dizdiratsu ura, laiño tartean ezkutatuta gelditu zitzaigun.

Berriro, urteen buruan, Iturriotzek argi dizdira zabaltzen asi zuan, Erniorako jendea zala, erronomia zala, sega apustuak zirala, eta abar eta abar. Urte batzuk igaro ondoren, len gauza batzuekin bezela, urrengoan beste era batera, baiña berriz ere oso ospetsu egin zala ikusten degu, Gipuzkoa maillan batez ere. Baiña Euskadi osoan ere, toki askotan, sega apustuak asi ziran ezkeroztik, Iturriotz sonatua eta entzute aundikoa agertzen zaigu, bai liburuen bitartez eta bai gure aurrekoak utzi ziguten testamentuan ere.

Nik askotan entzun nizkien nere gurasoei, eta

erriko jende elduari, Iturriotzen jokatu izan ziran sega apustueta kontuak: nolako jendetzak biltzen ziran, zenbat tokitako jendea izaten zan, eguna nola pasatzen zuten, eta abar eta abar.

Garai aietan Elizak indar edo eskubide aundiak nola zeuzkan berekin, igande eta jai egunetan lan gogorrik egiten etzuan uzten, oso bearrezko gauzaren bat ezenean: belar ontzea, igita edo gari ebatea, edo antzeko zerbait. Eta sega apustua nola ain premizkoa etzan, eta bi ordu luzekoa gainera, etzuan ortarako baimenik Elizak ematen. Igande eta jai egunetan jokatzea galerazi egiten zuan. Orregatik, sega apustu guztiak aste egunean jokatzen omen ziran, orain dala berrogei bat urtera arte. Geroztik asi ziran igandean jokatzen.

Sega apustuak Iturriotzen jokatzen asi zirala, eun urte inguru izango dira. Geroztik, zenbat apustu eta zenbat jende bildu ote da Iturriozko inguru oietan?

Sega apustuaren sorrera Euskal-Erriko beste kirolen antzekoa izango zan. Urte guztian nola base-rrietan zerbait ebaten jarduten ziran, bereala nabarmenduko ziran segatan ondo samar egiten zutenak. Batzuetan, auzo berekoak gertatuko ziran bi mutil gazte; beste batzuetan, erri banatakoak. Bat on samarra zegoan soñua zabaltzen asten bazan, bereala beste almoduzkoren bat gertutzen edo prestatzen asiko zan nunbait ere. Gero, segari oietakoren lagunen batzuk asten omen ziran erronka jotzen peri, erromeri eta tabernetan. Beste aldeko segari aren lagunen batzuek ikusten zituztenean, esango zioten:

– Guk, nai duanean jokatuko zioagu zuen mutil orri. Aren bildurrak ez gaituk egongo.

Orrelaxe ekiten omen zioten. Bulla eta zalaparta

galantak atereaz ibili, eta azkenean jokoia egiten omen zuten.

Bein apustua egiten zutenean, segari bakoitzarekin talde bat jartzen omen zan. Jokorako eta beste gastuetarako bear zan diru guztia, talde orren gain izango zan. Aiek izaten ziran artarako sozioak, eta berak egiten ziran gastu guztien kargu.

Sega lanean maixu zan gizon bat ere artuko zuten alde bakoitzetik, mutillari segatan ondo erakutsi eta bear zan bezela gertutzeko.

Jokoia egin eta bi edo iru illabetera jokatuko zuten. Bien bitartean, segariak an eta emen egunero belar ebaten saio galantak egiñez prestatuko ziran. Baita batak besteari al zituzten zelata guztiak egiten saiatu ere.

Orrelaxe, iritxiko zitzaien ainbeste aldiz amets egindako jokatzeke egun ura. Alde batera pozak txoratzen, eta bestera bildurrak, joko guztietan gertatzen dan bezela.

Orduko sega apustua jokatzeke garaia, asi dagonillaren azken aldetik eta urrillaren azken aldera bitarte izaten zan. Orain gauzak asko aldatu dira gai ortan. Nola urtearen buruan sariketa eta txapelketa asko jartzen dituzten, orain garagarrillean asten dira segalarien leiaketak. Baiña lenago ez.

Sega apustuko eguna irixten zanean, jendea era ontan erteten omen zan bakoitza bere etxetik: pardel batean egun guztiko jatenak eta zatokada bat ardo bizkarrean artu eta goizeko seirak edo zazpirak aldean ateratzen omen ziran, urrutikoak beintzat. Baserritarra geien bat; baiña kalean ere garai artan baserrietatik ertendako seme asko nola zegoan, kaltetik ere askotxo igotzen omen zan. Danen artean se-

kulako jende pilla. Kamiorik eta kotxerik orduan ez egon arren, ala ere garaiz biltzen omen zan jendea Iturriozko ingurura. Ez omen ziran egoten azkenengo orduaren zai.

Aiako erriaren jiran dauden amar bat errietatik, erabat oiñez bide guztia egiten zuten jendea zan Iturriotza inguratzen ziranetatik parterik aundiena. Gaiñerakoak urrutiagotik etortzen ziralako, edo ez dakit zergatik, baiña alde batekoak trenez Oriora, eta beste aldekoak Billabonara, eta andik edo oietatik gora danak oiñez igotzen ziran Iturriotza, gaiñerako guztiak bezela.

Sega apustu egunetan, batere giro itxurazkoa zala, Iturriozko gain ortara jendetza aundiak biltzen omen ziran. Millaka, batzuetan beintzat.

Gero, danak antxe taldeka, bakoitza bere lagun artean an-emenka mordosketan eseri eta gosalduz, tartean ardo trago ederrak egiñez. Bitartean, kontu jakiña erabiliko zuten: sega apustua gora eta sega apustua beera.

Gosaldu eta pixka bat indarberritzen ziranean, jende guztia apustu zelaira, lagun mordoska bakoitza bere aldetik, al zituzten tokirik onenak artzera, segariak ondo ikusi al izateko.

Gero, an jardungo ziran alkarren artean eztabaidan. Batzuek belar erreza zegoala esango zuten. Beste batzuek, berriz:

– Belar au ebaten oso zailla zio.

Eta abar eta abar. Orrelaxe jardungo ziran, bakoitza bere jakinduri eta iritziak ematen, guztiak jakintsu eta danak ezjakin. Apustuak beti berekin daraman gauza da ori.

Alako batean, apustua asteko gertu jartzen omen

ziran bi segariak, bakoitza bere tokian, eta une artan jende guzia ixil-ixilik, begiak ateratzeko zorian, segariak zer asera emango ote zioten begira.

Bein asten ziranean, eta segari bakoitzaren joera jendeak ikusten zuanean, era guztietako maxiaketak egingo zituzten begira zeudenak:

– Onek azpiagotik jotzen dik. Pixua ateratzeko ori bear dik emen.

Orrelako kontuak esango zituzten alde batekoak. Bestearen alde zeudenak, berriz:

– Au kolpe azkarragoan ari dek. Mailla aundia-goa zeramakik. Ori dek! Jo, motell, irea dek eta!

Eta abar eta abar. Orrelaxe bi ordu luzetan jarduten omen ziran, segariak eta erakusleak jo eta jo. Azkenean, biak zearo lertuta gelditzen omen ziran.

Gaiñeko jendea ere, goizean garai artan jeiki, ainbeste bidean oiñez igo, gero bi ordu zutik igaro zelai baztarrean, eta ederki nekatuta eta aspertuta ordurako.

Baiña ia beste ordu ta erdi itxoin bear belar pixaketak egin eta irabazlea zein zan jakiteko. Segar apustu askotan gertatzen omen zan, batek irabazi zualakoan egon eta, pixuaren berri ematen zutenean, besteak kilo geiago. Jende geienak irabazle jotzen zuana, gero galtzaille gertatu. Orduan izaten omen ziran naspillak. Okasio eta burrukak ere iñoiz bai. Orduko saltsa oien ondoren, beste sega apustua askotan egiten omen zuten.

Sega joko ori tranpa eta zikinkeri asko egiten zituzten jokoa omen zan. Jende asko bear izaten baita sega apustu batean zelai barruan; eta, ainbeste jende dabillen tokian, gauza garbirik ez. Alde batekoak belarra lur ta guzti biltzen zutela; tartean arri-

ren batzuk ere sartzen zizkiotela. Eta beste aldekoak ere alegin guztiak egiten, sorta belar bat edo beste bi aldiz pixatu edo beste zerbait. Bakoitzak al zuan guztia, beren alderdikoak irabazteko. Joko zikiña, baiña uraxe jendearen gozamina eta giroa sortzen zuana.

Iturriotzen orrelaxe izan da sega apustuen aldetiko kondaira. Lenagoko garaietan, Aszentsio eguneko peri, eliz-billera, bidaztien geltoki eta guk ez dakizkigun beste zenbait gauzengatik jendeak ain gogoko bazuan, eta alako billerak izan baziran Iturriotzen, azken aro onetan sega apustu giro orrek bizia eman diola garbi ikusten degu. Bizia eman bakarrik ez. Gaiñera, orren bitartez, oso ospetsu egiteraiñoko izena eman dio.

Lengoak lengo dirala, azken urte auetan leiaketa asko eta aundiak izan dira. Bi urtetan, Euskadiko segalarien txapelketa ospatu zuten. Beste urte batean sokatira txapelketa. Tartean, beste sega apustu geiago ere jokatu zituzten. Eta beste urte batean, Euskadiko txirrindulari itzuliaren amaiera.

Aurrekoetan jendetza arrigarriak izanak baziran. Amar millatik gorako berriak eman zituzten bi egunetan beintzat. Baiña txirrindularien leiaketa bertan bukatu zaneko arratsalde ura izan zan ortik onera-koa. Kotxea eta jendea txindur-aski batean txindurria baiño ugariago. Zer zan ura? Euskadiko itzuliaren irabazlea Contini italianoa gertatu zan, eta bera eta bere lagunak arrituta gelditu omen ziran, mendigain bakar ortan ainbesteko jendetza ikusita.

Besteak beste, 1988 urtean jokatu zan Iturriotzen sega apustu famatua, orduan jarri nituan bertsoak adierazten dutenez:



Milla beatzireun ta  
larogei ta zortzi,  
iraillak amaika  
bear det idatzi.  
Bertsoak jarri gabe  
nik ezin det utzi,  
istorirako badu  
ainbeste garrantzi,  
erriak jakin dezan  
biar edo etzi.

Egun ortan ospatu  
sega joko latza,  
ta bazuan berekin  
piperra ta gatza.  
Aia ta Asteasu  
or zegon ardatza,  
erri bakoitzak zuan  
bere esperantza,  
baiña Aia aldera  
jausi zan balantza.

Erasun aurkeztua  
zan Aiako erriz,  
luzea ta zabala,  
aundia da neurriz,  
ogei ta lau urteko  
sasoi arrigarriz.  
Lengo marken gaiñetik  
berria ezarriz,  
ainbeste egitea  
kostako zaik berriz.

Juan Joxe Irazusta  
asteasutarra,

gorputz ariña baiña  
zaiña ta giarra.  
Segan beti izan da  
iaio ta azkarra,  
menderatu duana  
Erasun bakarra,  
berrogei urte dauzka  
ta orixe txarra.

Jokua egin zuten  
zarra ta gaztiak,  
biña milloi jarrita  
bata ta bestiak,  
gaiñetikan jokatuz  
sarrera guztiak.  
Irabazteko ziran  
bakoitzan ustiak,  
pena ematen zuan  
galtzen ikustiak.

Ni orain Erasuni  
aitortzeko nago:  
edozeiñek ez dik, ez,  
aurpegi emango.  
Beatzi milla kilo  
ebakita ago,  
ta alde atera  
milla ta geiago,  
egin duan azaiña  
testigu or dago.

Joko denboran jardun  
giñan gu esaten:  
«Ain estuak ez dituk  
sarritan izaten».

Trabesa ere zegon  
beti neurri baten,  
berdintsu ari ziran  
belarra ebaten,  
ainbat alde zegonik  
etzuan ematen.

Gizaldiko joko  
orra erabaki,  
ikustera eldu zan  
jendea galanki.  
Zarrak urteen zama  
berekin dakarki,  
gazteak ainbat belar  
etzuan ebaki,  
orain onena zein dan  
erriak badaki.

Testigu gelditzen da  
Iturriotz gaiña,  
eskeiñi digu beintzat  
egun bat bikaiña,  
aundieneko markak  
autsi alajaiña.  
Jendea ta kotxea  
bildurtzeko aiña,  
inguru danak bete  
aundia da baiña.

Orain zuzendutzen naiz  
segariengana,  
gogoan artu bertso-  
lariak esana:  
nola txalogarri dan  
zuek bion lana,

ortxen bukatu bedi  
lengo seta dana,  
alkarri luzatuaz  
besarkada bana.

Segari bikotea,  
ez dakit dakizun  
Euskal-Errian zear  
zer fama daukazun.  
Nik zuentzako badet  
oinbeste naitasun,  
bioi opa dizutet  
pake ta osasun,  
nola Irazustari  
ta berdin Erasun.

## ITURRIOTZ: LEEN, ORAIN ETA GERO

Orrelakoxe billerak egiteko gai izan da Iturriotz len eta orain. Toki orrek badu zerbaiten adurra eta berezitasuna. Baserri bikain eta inguru lasai eta paxarako bezela agertu degu Iturriotz. Seg aputu eta jendearen biltoki bezela ere ikusi degu nolakoa izan dan eta dagoan. Auetzaz gaiñera, Iturriotzen istorian era askotako gauzak gertatu dira. Antziñatik asi eta gizaldietan zear, era guztietako serbitzuak izan ditu, aurreragoan ikusiko degun bezela.

Garai edo aro bakoitzak, berari dagokion erako bizibidea eta oitura bereziak izaten ditu. Orrelaxe sortzen da erri baten kultura. Urte askotako egintzetan oiñarritua eta aberastua izan oi dalako, berak ematen dio aunditasun eta nortasuna.

Erri bakoitzaren izatea edo kondaira zugaitz baten antzekoa da. Zugaitza ere txiki-txikia sortzen da. Gero, urtetik urtera, azitzen eta sendotzen joaten da. Urtero, kimu eta adar berriz bere enborra osatzen, apaintzen eta aundiagotzen jarraitzen du. Zugaitz ori indartzen ari dan denbora edo bitarte orretan, tar-

tean urte batzuk besteak baiño mardulagoak eta aberatsagoak izan oi ditu. Urte oietako kimu tartea aundiagoa izango du, eta adarrak beste urteetakoak baiño sendoagoak eta luzeagoak. Zugaitzari ere aro edo garai bakoitzak orrelakoxe ezaugarri bereziak uzten dizkio bere izate gutzirako, eta gure erriaren istorian ere berdin-berdin gertatzen da.

Iturriozko erromes, peri sonatu, Saiazko alkate billera, bidaztien geltoki, erromeri, apustu eta abarrek, Gipuzkoa maillan batez ere, baiña baita Euskal-Erri osoan ere, eragin eta oroipen aundiak zituztela ez dago zalantza txikienik ere; eta gure erriaren kondaira osatzen duan zugaitzari, Iturriozko gertakizun aiek ospatuz igarotako aro aldi orrek adar eta kimu aundi ta bikaiñak eta ezaugarri bereziak bere enborrean txertatuta utzi dizkiola garbi ikusten degu.

Gure istoriaren ardatzean loturik dauden gizaldietako egintza aien bitartez daukagu degun gutzia. Gure arbasoak erein zuten azi txiki ura, edo jarri zuten landaretxoa, urteen buruan zugaitz bikain egitera iritxi da. Zugaitz orrek eman digun ezkurra eta egin digun itzalari esker iraun degu bizirik. Beragandik jaso degu daukagun nortasun pitiña.

Istorigille batzuek beren liburuetan orduko gertakizunen berri ematen digutelako, eta liburuetan agertzen ez diran beste gauza askoren aztarnak gure aurrekoengandik jaso ditugulako, liburu ontan josita utzi nai izan ditut Iturriotzen gizaldietan zear gertatutako gauzarik garrantzitsuenak, gure ondorengo belaunaldietan ere beroien berri jakin al izan dezaten.

Iturriotz, ain gertakizun arrigarrien sorleku eta bizi emale izan dana, eta oraindik ere bizirik dagoana. Baiña bere garai bateko argi dizdira ura itzaltzen

asia dagoala nabaitzeak, goibeltasunez beteta jartzen nau, eta bera berpizteko nere esku dagoan indar guztia eskeiñi nai nioke. Orren biziari zutik eusteko laguntzarik inñundik lortu al baliteke, jo ditzagun jo bear diran ate guztiak, batez ere errikoak.

Erriko agintariak dira lenengo, gauza orren ardurara artu bear lutekenak. Ondo pentsatzen jarri ezkerero, Iturriotzek Aiako erriari nortasun eta sona aundiak eman dizkio. Orrek baiño entzute gutxiago izan duten tokiak badira, len izandako izen ura berreskuratu dutenak. Iturriotzek zergatik ez?

Iturriotz orrelaxe agertzen zaigu gizaldiz gizaldi, bere sega apustu, erromeri, burruka, negute luze eta aspergarri, ainbat peri eta eliz-billera, ainbat gudate, ezpata eta fusil, su eta gar... Bertan bizi izandako semeak zutituko balira, zenbat gauza kontatuko lituzteke, guk aztarnarikan gabe dauzkagunak? Baiña ori eziñezkoa dan ezkerero, konformatu gaitezen dakizkigun apurrak al danik garbien eta egokien agertuz, ondorengoak beroien berri jakin al izan dezaten.

Ermita dago deitzen zaiona  
Iturriozko San Juan,  
garai batean egin zalako  
iturri baten onduan.  
Benta zar orrek ere izena  
Iturriotz nola duan,  
orko urari esker sortuak  
dira besteak orduan,  
zenbat mesede egin ote du  
ainbat urteren buruan?

Aspaldi artan Jainkoak entzun  
gaixo baten deadarra,

ur orren bidez sendaturikan  
gorputzeko sarna txarra.  
Gero jendea ur orren billa  
danetikan barra-barra,  
bai eta beste ainbat bidaztik  
ortik igaro bearra,  
ori zalako zutitu ziran  
ermita ta benta zarra.

Gero Saiazko bost erri auek  
sortu zuten elkarteak,  
Aia, Errezil, Bidani, Goiatz  
ta Albizturko alkateak,  
alkarrekiko arremanetan  
lotu zituzten kateak.  
Bostak biltzeko Iturriotzen  
zabaltzen ziran ateak,  
era ortantxe pasa zituzten  
urteak eta urteak.

Bost erri oien mendi sailletan  
etekin on bat lortzeko,  
ardi, bei eta idiak zeuden  
bizimodua sortzeko.  
Gero perira eraman bear  
askotan gaizki saltzeko,  
Iturriotzen egin zeikela  
kanpoko aien antzeko,  
arrazoi orren eragiña zan  
bertan peria jartzeko.

Guk bitarteko gorabera aiek  
naiz eta ondo jakiñ ez,



Saiazko alkartea gerora  
indartu zan etekiñez.  
Ta Aszentsio jarria zuten  
urteko egun aundiñez,  
lendik zetozen batzar guztiei  
gaiñetikan eragiñez,  
eliz billera eta peria  
biak batera egiñez.

Iturriotz txit ospe aundiko  
izan da urte askuan,  
peri garaia joanda ere  
dabil era tajuzkuan.  
Ernio jaiak, erromeria,  
berdin sega apustuan,  
billera oiek antolatzeke  
doaia dauka eskuan,  
orretarako toki oberik  
bai ote da Gipuzkuan?

Noizbait joatean eliz billera  
eta perien aroa,  
zerbait oztutzen joan zan gero  
Iturriotzen beroa.  
Baiña ondoren beste gauz auek  
egiñikan anparoa,  
berriro ere eldu zitzaion  
oso garai oparoa,  
kirola eta mendi joerak  
osatu dute geroa.

Zuk, Iturriotz, jendea biltzen  
zer doaia daukazuna!  
Zuri zerbaitek emana dizu  
ortarako nortasuna,

eta Aiako erriarentzat  
zera aberastasuna.  
Itzaltzen zoaz eta orretzek  
dakarki goibeltasuna,  
garai berriak sortu bezate  
zuregan alaitasuna.

Iturriotzen goraberekin  
ni bai kezkatzen naizela,  
ikusten baidet bere arnasak  
bukatzen dijoazela.  
Agintariak, mugi zaitezte,  
galduak gera bestela,  
bear diraden erabakiak  
azkar artu ditezela,  
aurrera ere jarraitu dezan  
orain artean bezela.

## IDI GANADUEN AROA

Euskaldunen bizitzan, beste arraza edo errialdeetan bezelaxe, ikusten ditugu urteen buruan izan diran aldakuntzak. Lenbiziko euskaldun aiek arrantza eta eiza zituzten beren bizibide. Babestokiak, berriz, aitz zuloak.

Emengo giroa edo *clima* epeltzen edo aldatzen zijoan bezela, bizimodua ere aldatzen joan zan. Jakiña, millaka urteren buruan gertatu zan ori guztia. Len gizon eta basapiztiak be aldeetan bizitzen ziran, ibai inguruetan eta itxas ertzetan. Mendi aldeak elur eta izotzez beteak baizeuden. Baiña aldaketa oien ondoren, giroa epeldu zanean alegia, gure mendiak ardi, bei eta aberez beteta agertu ziran. Batzuek artzantzan eta besteak larrebeiak eta abereekin bizimodua sortzen zuten, eta lengo aldean aberatsak ziran orduan.

Gero, bizimodua aldatzen zijoan bezela, aitz zuloak utzi eta egurrez, arriz eta zotal-lurrez egindako etxoletan bizitzen jarri ziran; eta, jakiña, etxola aiek egiteko bear zituzten gauzak karraiatzeko, eta men-

dietako arresiak egiteko bear ziran arri pilla aiek inguratzeke, lenbizitik abereez baliatzen omen ziran. Baiña denbora aurrera zijoan bezela, konturatzen asi omen ziran karraio lanetarako idia ohea zala aberea baiño, Euskal-Erriko toki maldatsu auetarako batez ere; eta idia jarri zan gure errietako etorkizun eta bizibidearen iturririk aberatsenetako bat.

Asten bagera idiak gure lurralde ontan egin zuten serbitzua piska bat aztertzen, konturatuko gera egin zituzten karraio lanak arrigarriak izan zirala. Lenbiziko lana toki askotan izango zan zubiak egitea, eta aiek ere orduan danak arrizkoak egin zituzten. Gero, zenbat jauregi, eliza, arresi, etxe, kaleetako galtzara, baserri, ola, mendi gaiñetako ermita eta abar eta abar?

Oiek danak idi indarrez baliaturik egiten zituzten. Gizon mordo bat arrobietan arria ateratzen; beste mordo bat idiekin arri aiek bear zan tokira karraioan; beste gizatalde batzuk basoan, batzuek zugaitzak moztu eta prestatu, eta besteak idiekin eramane... Garai artan, itxasontsiak ere danak egurrez egiten zituzten, eta artarako ere zenbat zugaitz karraiatu ote zituzten idiekin ibai ertz eta portueta-  
ra?

Garai aietako perietan izaten zan gauzarik nagusia, idiaren sal-erosketa eta karraiorako bear ziran apareju edo tresna aiekin osatutakoa izaten omen zan. Jakiña, peri guztietan bezela, gero oien inguruan gauza asko azalduko ziran. Baiña idia zan orduko perietako izarra.

Idiekin karraioko serbitzuak egiten asi ziranean, idi para eta gurdia atzera-aurrera ibiliko baziran, derrior bideak bear zituzten; eta, gauza batek bestea

nola ekartzen duan, idiaren etorrerak ere bide egitea ekarri zuan, eta ez nolanaikoa gaiñera.

Erri batetik besterako eraman-ekarria erabiltzeko bideak idiki zituzten. Gaurko karretera edo bide zabalak bezela ziran orduko gurdibideak, eta aiek *erri-bideak* deitzen zitzaien. Errietako jendea bildu eta udaletxeen ardurapean egiten zituzten. Gero, arrobi batetik norabait ere arria eraman bear bazan, an ere bidea egiten zuten. Basoetatik etxegintzarako eraman bear ziran zugaitz gerri eta tantaiak erabiltzeko ere, bideak egin zituzten. Ola edo ferrerietako karraiorako berdin. Erri batetik bestera, basotik errira, menditik errira eta abar eta abar, Euskal-Erri guztia batetik bestera bidez gurutzatua gelditu zan.

Garai artako ganadu arraza oraingoa gaiño txikiagoa zan. Idiak ere oraingoak baiño txikiagoak ziran. Baiña oso gogorak eta indartsuak omen ziran. Jakiña, aseran idi arraza ura zalako, gurdibideak ere aientzat moduko zabaleran egin zituzten; eta andikan urte mordo batera, nik ez dakit ziurtasunez jartzeko bosteun edo milla urteren buruan gertatu zan edo geiagora, baiña beste ganadu arraza sortu omen zan, lengoa baiño aundiagoa. Batzuek Bretañatik etorri omen ziran, eta arraza orri *betroia* esaten zioten. Beste arraza, *gorria* edo *pirenaica* esaten zaiona, Euskal-Errian oso maitea izan dana.

Orrelaxe joan zan arraza aldatzen, eta ganadu mota auen ondoren sortu ziran idi aundiak. Orduan arazo berri bat sortu zan, ordea. Idi aundia karraiorako obea zan, baiña gurdibideak idi txikientzat egiñak izan, eta aundiak ezin kabitu lengo bideetan.

Lenengo, bide nagusiak zabaldu omen zituzten, eta idi aundiak karraiorik gogorrenak egiñez jarri

omen zituzten. Baiña baso eta mendi lanetan idi txikiak urte askoan ibili omen ziran. Aldaketa guztiak izaten dituzte beren eragozpenak; eta, idi aundiak etorri ziranean ere, indarra ugaltu egin zan, baiña baita bideak zabaltze artan lan ederrak jarri ere. Alderdi danak onak dituanik ez da inor izaten, eta idi aundiak ere bazituzten beren onak eta txarrak.

Idi ganaduen serbitzua noiz asi zan? Ez dago ziurtasunez bere berri ematerik. Baiña badakigu gizaldi asko igaro dirala, lenbiziko idiak karraioan asi zira-netik.

Aseran esaten nuan lenengo idi aiek gorputz txikiko ganadu arraza zirala, eta zerbait aztertu dezagun beroien izatea eta nortasuna.

Idi txiki aiek bei basati batzuen umeak ziran; eta, naiz basatiak izan, urteen buruan gizonak bereganatu egin zituan, gaur beraren inguruan dabilzan abere, ardi, auntz, zakur eta beste ainbat animala basati bezelaxe. Bei arraza orri *basabeiak* deitzen zieten, eta oien umeak izan ziran ain idi mota gogorra.

Gero, idiaren sal-erosketa ori zala bide, Euskal-Erriari peri sonatu asko egitera iritxi ziran; eta Aia-ko Iturriotzen Aszentsio egunez ainbat urtean egin zan peria ere, Saiazko erri sailletan Gazume azpiko larre oietan azitzen zituzten idi, abere eta ardiak saltzera beste errietako perietara eraman bearrak sortzen zizkieten arazo gogor aien ondorioz sortu omen zan. Aszentsio eguneko eliz billera aprobetxatuz asi eta izugarritzko indarra artzera iritxi gaiñera.

Peri guzietan bezela, beste ganadu eta tresna asko izaten omen zan Iturriozko perian ere. Baiña idiaren sal-erosketa izaten zan peria oinarrri eta ardatz. Gaur kotxe eta kamioiak bezela zan nonbait orduan

idia. Garai artako bizitzari begira arretaz jartzen bagera, garbi ikusiko degu idi indarra bear zala orduko lan mota geienak aurrera eramateko.

Gipuzkoan toki geiago ere izango ziran, bei eta idi buru asko mantentzen ziran mendiak. Baiña Ernio azpiko mendi sailletan izugarrizko taldeak larrean ibilitako garaia izan zala aitortzen duten arrazoi batzuk jarriko ditut lekuko.

Aiako errian bakarrik, irureun eta ogei idi pare lanean ibilitako garaia izan omen zan, eta tarteka geiagokoa ere bai. Ontatik kontuak atera bearra dago, Aian bertan ainbeste idi bear baziran, ea zenbat idi gazte larrean eduki bear zuten, erriko premiak osatu eta gero Iturriozko perira beste errietatik etortzen ziran erostunak bear zuten aukera jartzeko; gutxienez bosteun edo geiago udaran goiko Gazume azpian eta neguan Iri-sasi eta inguruetan larratzen zituztela, eta garai artan Saiazko alkartea osatzen zuten Aia, Albiztur, Bidani, Goiaz eta Errezil, bost erri auen bizibideko etorkizun nagusia beren mendi sailletan azitzen zituzten ganaduetatik lortzen zutela, batez ere idiak ematen zuan etekiñagatik. Bera bai-  
zan merkatuaren ardatza.

Idi eta mendiko ganaduen garai edo aroari jarraituz, ikusiko degu oitura eta izen batzuk nundik eta zergatik sortu ziran.

Badira sorginkeria dala pentsa erazten duten gauza batzuek. Baiña bere garaian garrantzi aundia ematen zitzaien orduko oitura aiei, eta gaur ere gaurkoei alaxe ematen zaie. Len eta oraingo oitura eta bizi-moldeak erriaren muiñean loturik dauden gauza batzuek baidira, eta erri bakoitzak oietxei zor die bere izatea eta nortasuna.

Ernio azpiko mendi sailletan basabei eta txekor edo idi gazteak zaintzen zituztenak edo aien ardura zeukatenak, bazituzten gaurko ikuspegitik begiratu eta xebreak ematen duten oitura batzuk. Beren basabei talde artan, ilberan jaiotzen ziran ume edo txaletatik, aurrerako bear zituzten bigai edo beigaiak uzten omen zituzten; eta idiak egiteko, berriz, ilberrian jaiotzen ziran idiskoetatik.

Urteen buruan oitura ori galdu bada ere, garai artako euskaldun ganaduzale aientzat ezinbestekoa izango zan bei eta idien jarraipenerako zeukaten baldintza ura. Aiek sinismen osoa edukiko zuten aurretik zetorren usuario artan, eta oitura zarra azkenerako lege egiten dala esan oi da; eta, egintzak esaten dutenez, alaxe izango zan.

Gure mendietako muiño eta toki askoren izenak ere, zerbaiten eragiñez sortu ziranak dira, eta urteen buruan toki batzuen izena zerbait aldatu egin da, beste askok beren osotasunean jarraitzen baldin badute ere.

Ernio azpiko mendi sailletan ibili ziran basabei, beren ume eta idien larre-tokietatik sortu ziran izen batzuen berri eman nai nioke orain irakurleari.

Len esan det bein baiño geiagotan, Andatza azpiko Iri-sasi izenez ezagutzen dan mendi sail orrek, neguan idiak larrean ibiltzen ziralako datorkion izena duala.

Orain ikusi ditzagun Beama, Gazume eta beste batzuk.

Aiako Iturriotz eta Erdoiztako ermitaren edo auzoaren artean dagoen baillara bat da Beama. Errezilko erri sailletan dago, Aiarekin mugatzen duala. Ga-



rai batean baziran dozena bat baserri edo geiago, batzuk oso onak gaiñera. Oso ganadu toki aberatsa zan. Errezilkoa izan arren, Aia erosoago zeukatelako, bizimodurik geiena Aiatik egiten zuten. Gaixotasunen bat zutenean ere, Aiako sendagillearekin ibiltzen ziran.

Orain goazen lengo arira. Zergatik datorkio Beama izen ori? Ikusi dezagun. Orain dan bezelaxe, antziñako denboretan ere oso larretoki mardula omen zan, eta orduko basabei aiek larretik bizitzen ziran. Bei oietakoak, umea egiteko aurreratuta zeudenak eta ume txikia zutenak, Beamako sailletan larratzen omen zituzten; eta ortatik datorkio izen ori. Sorrerako izena «Bei-ama-larre» omen zan. Baiña urteen buruan «Beama» izenarekin gelditu da, eta orrelaxe jarraitzen dio.

Gazumeko mendi sail ori, Beama eta Iturriotzen gaiñean dagoan tontor aundi bat da. Antziñako denbora aietan, zati aundi bat zugaitzez jantzia izango zan, baiña larretoki fiña omen zan oso. Beama eta bealdeko larretokietan azi eta puska bat gogortzen ziran, irendu; eta, Iturriozko Aszentsio peria ospatzen zanean, Gazume jira ortara jasotzen omen zituzten, eta ortatik datorkio izen ori: «Bas-ume-larre». Basabeien umeak baiziran, eta orrela deitzeko arrazoa ortatik du. Baiña denboraren denboraz izki bat aldatu egin zaio, eta Gazume izenarekin gelditu da. Gaur orrela ezagutzen degu. Len ezjakiñean zeundetenak, orain badakizute mendi orren izena garai bateko basabei aiek dirala medio datorkiona dala.

Bei-bategi eta Ume-larre beste bi izen. Auek ez dute Iri-sasi eta Gazumek aiñako aitamenik. Baiña orduko basabeien bizitzan arremana eta lotura bat

daukaten ezkeru, beroien aztarna ere zerbait agertuta utzi nai nuke.

Bei-bategi deitzen zaion toki ori, iru bat ektarea dituan baso sail bat da. Beama auzoaren ipar aldera eta baso sail orren aurrez-aurre, Etxeta ballara dago. Auzo ori Aiako sailletan dago; eta Beama, berriz, Errezilkoa da. Bi erri oien muga egiñez, Iturriozko San Juango ermitatik bera abitzen dan errekatxoa jexten da; eta Beamako auzoan dauden soro eta belardi patxarazko terrenoak bukatzen diran ertzetik beko errekarara bitartean, malda aundi bat dago. Basoa da. Pago, aritz eta lizar batzuk badaude, baiña geiena txaraka da: urritza, altza, saratsa eta abar eta abar. Bei-bategi deitzen zaion sail ori ere malda ontako baso zati bat da.

Bei-bategi izen orren sorrerari buruz, bi ikuspegi edo bi eratako aztarnak ematen dituzte. Alde batetik entzun edo jaso ditugun aztarnak diotenez, Beamako auzo ori udara eta udazkenean oso toki beroa zan, edo da orain ere; eta eguerditik aurrera, olako beroa zanean, belardi ertzetik beko errekarara bitarteko maldan dagoan baso orretara freskura billa biltzen omen ziran beiak; eta orregatik deitzen zioten Bei-bategi. An inguruko baserrietako jendeak, berriz, Beitegi izenez ezagutzen dute.

Bigarren ikuspegiak ere baditu bere arrazoibideak. Garai artan, Saiazko bost errien arteko alkartean zeuzkaten bei eta idien sal-erosketaren bitartez, etorkizun onaren jabe omen ziran udaletxeak, eta ganaduzaleak ere bai. Udaletxe bakoitzak babesluak baizeuzkan mendi oietako taldeetan ganaduak zeuzkaten guztiak. Baiña ortarako bertako semea bear zuan; edo, bestela, larretoki oietan lur zati baten jabe izan bear zuan. Orduan bazuan eskubide

beiak edo idiak besteekin batean larrean ibiltzeko, eta irabazi edo galerak banatzeko orduan ere partaide izateko.

Beti izan diran bezela, garai artan ere jauntxoak eta dirua zeukatenak ere baziran; eta oiek, zer gauzatan dagoan etorkizuna, an jokatu nai izaten dute. Orduan ere bazan, esaten dutenez, dirudun oietako bat, Aiako Laurgain auzoko nagusia, Beamako bei talde artan partea nai zuana; eta, artarako eskubidea izateko, Bei-bategi izenez ezagutzen dan lur zati ori erosi omen zuan, nola ori Beamako sailletan dagoan. Orduan arrazoi guztiarekin jarri zan, eta ortik dator kio Bei-bategi izen ori; bei toki orrekin bat egin zuala, alegia.

Ara nola izaten diran gauzen sorrerak. Askotan, gure aurreko gertakizunei begira jartzen gera eta eziñezkoak iruditzen zaizkigu. Baiña igaroa zerbait aztertzen asten bagera, lenago ain illun zeuden gauza aietan berealaxe argia ikusten asten da; eta gure aurrekoak nola bizi izan ziran eta zer gauza egiñez bizimodua atera zuten jakitean, oso pozik gelditzen gera, eta gure izatearen muiñean lotuagoak eta arreman geiagorekin. Orretzek ematen baidigu gure nor-tasuna.

Ume-larre izenari buruz beste zerbait argitaratu nai nuke. Gaur egun, Beamako auzo orrekin mugatzen duan Etxeta baillaran, Iturriotz aldeko muturrean dagoan baserri bat da Ume-larre. Baiña, bear bada, baserri ori baiño lenagokoa da izen ori, eta ikusi dezagun zergatik datorkion.

Beaman bei umedunak larratzen zituzten; eta, beren umeeekin saioa egiten zutenean, eta umeak bost edo sei illabeteren buruan larretik mantentzeko

moduan jartzen ziranean, beren amengandik banatu edo kendu egiten omen zituzten. Orduan len esan ditudan sail aietara aldatzen zituzten umeak, eta argatik Ume-larre izenez bataiatuta utzi zuten. Gazume gaiñera idiak edo idigaiak jasotzen zituzten bezela, Ume-larre sail oietara bigantxak edo beigaiak aldatzen omen zituzten; eta, seguru asko, garai artan Etxeta baillara guztia izango zan bigantxa aien larretoki.

Gaur Ume-larre baserria dagoan inguru orretan, garai artan estalpe edo babestokiren bat egingo zuten lenbizi, eta gero baserria. Bizitzaren kurpillak beti jiraka jarraitzen baidio; eta, ori dala bide, garai bateatik besterako aldakuntza guztiak etortzen dira.

Saiatu naiz Iri-sasi, Gazume, Beama, Bei-bategi eta Ume-larre zergatik eta nola sortuak ziran adierazten. Oien antzeko geiago ere erri guztietan egongo dira.

Adibidez, Aiako Pagoeta mendiaren izena oso ulertu erreza da. Garai batean dana pago zugaitzez jantzia baizan. Orregatik egin zan izen orren jabe.

Mendi ortan bertan badago toki bat, bere muturrik goituena, gure aurrekoak Urruztume deitzen ziotena. Baiña bere sorrerako izena Urruz-ume omen da. Nik ala entzun diet mendi orren aztarnak dakizkitenei.

Beste sail bat badago Pagoetako gurutzetik Aia alderako bide azpian, beorak larrean ibiltzen ziran tokia, eta Beor-barruti izenez ezagutzen da.

Beste baso sail bat badago, Foru Aldundiak Laurgaiñen daukan eremu edo finka orretan. Sagastizabal baserriaren azpikaldetik asi eta bere parean beko karretera bitartean dagoan mendi sail orretan, bil-

dotsak larrean ibiltzen omen zituzten, eta orregatik Arkume-larre izena jarri zioten bere garaian, eta gaur ere izen orrekintxe jarraitzen dio.

Ikusi degu gure aurreko edo antziñako euskaldun aien bizimoduaren eragiñetik sortu ziralara mendi, baso, bide, erreka, ibai, erri eta baserri askoren izen oiek. Beti izaten da arrazoiren bat ala deitzen asteko; eta gero, izen orrekin ezagutzen dala gelditzen da gauza bakoitza.

Orrelaxe sortuak dira antziñako denboretatik datozen ainbat izen. Batzuk, oso esan-nai garbikoak edo ulertu errezak gertatzen zaizkigu. Beste batzuk, berriz, garai artatik onera aldakuntza aundiak izan diralako-edo, ezin antzemanik gelditzen gera. Bere esan-naiaren aztarnarik ez baida iritxi gureganaiño.

Ori dala bide, izen asko eta asko betirako illunpetan gelditu dira. Baiña au ez da gure errua. Gure aurrekoak, beren belaunaldietan, gauza askotan eman zuten lengo gertakizunen berri. Baiña gai batzuetan izan ziran nunbait alako etenaldiren batzuk, eta orretxegatik gelditu dira aztarnarik gabeko gauzak.

Orretarako gerta zitezken milla arrazoi –gerra-teak, izurriteak eta abar eta abar–, ez lengoak eta ez oraingoak, iñoren zabarkerizko errurik gabe. Baiña lengo gertakizun eta gorabera batzuen arrastoa betirako galdua.

Orain bizi geranok, saiatu gaitezen, bakoitzak dakigun apurra ondorengoengana irixteko moduan argi eta garbi jarrita uzten. Erri baten kondaira edo istoria igarotako gauzetan oiñarriturik baidago; eta guk ere, geure erria aberastea eta bere nortasunean sendotzea nai badegu, jarri ditzagun gure aurrekoak emandako guk dakizkigun pauso guztiak.

## SANTA KRUZ APAIZAREN AIA INGURUKO ERASOAK

Santa Kruz apaiza Elduaingo seme eta Ernialdeko erretorea zan, eta barruan zeramakian erri maitasunak eraginda, sortu zuan liberalen gogorkeri eta zapalkuntzari aurre egiteko talde berezi bat.

Bildurgarriak baiziran etsai gaizto aiek gure baserri, errixka eta alamoduzko tokietan egin zituzten geiegikeriak. Inon emakumerik aien eskuetan erortzen bazan, jakiña zeukaten gaixoak: indarkeriz derriortu edo biolatu. Mendiko ardi eta ganaduetatik arrapatu eta jan. Bizirik uzten bazituzten ere, danak sakabanatu eta ondatuta utzi. Baserriak erre, eta ez gutxi gañera. Besteak beste, Andoain eta Urnietako inguru oietan eun ta geiago etxe kiskali zituztela badakigu ziur. Aian ere lau edo bost baserri bazirala sutan desegiñak esaten zuten gure aurrekoak. Astearsu, Larraul eta Zizurkil jira ortan ere berdin.

Ibili ziran tokietan era berean jokatu zuten. Eta etxeak erre bakarrik ez. Aietzaz gañera, sartzen ziran errietan, denda, ostatu edo beste zerbait zan

tokietatik, danetik ostu, puskatu eta ondamendi izugarriak egiten zituzten liberalen buruzagi eta guda-riak. Badaude oraindik orduko egintza aien aztarna eta oroigarriak, nola portatu ziran lekukotza egiten dutenak.

Garai artan gure Euskal-Erri au, geroztik sarritan egon dan antzera, atzerritarren indarrez eta maltzurkeriz zapaldua gertatzen zalako, Santa Kruz apaiza talde ori prestatu eta aurpegi ematen asi zan. Nik jakin al izan dedanez, liberalen aurka toki askotan neurtuak izango ziran Santa Kruz eta bere lagunak.

Gure gerrilleroak euskaldunak babesten zebiltzan garai berean, bazegoan beste indar militar bat. Karlistak deitzen zitzaien. Karlos erregearen jarraitzaileak ziralako zuten izen ori. Karlistak eta Santa Kruztarrak etsai baten aurka burruka egiten zuten. Baiña, ikusiko degunez, Elduaingoak zuzentzen zuan taldeak karlistengandik etzuan laguntza aundirik jaso. Indar gutxikoa izan nunbait, eta goikoak txikiarekin traturik ez du nai izaten. Gauza ori ez da ordukoa bakarrik. Garai guztietan gertatzen dana da, eta aurra ere ala jarraituko du.

Ori orrela izanik, gure apaizak bere gisara ekin zion bideari. Batzuetan eraso eta garaipenak lortzen zituzten. Urrengoan, eziñean eta estutasunean arkitzen ziranean, iges egiten zuten baso tartera, mendiko borda edo aitz zuloetara. Baserrietan ere bai omen zituzten gordelekuak.

Aiako erri eta mendietan sarritan gertatuak izango ziran aurkari aiekin burrukatu bearrean. Asi gaitezen inguru auetan izan zituzten sonatuenak aipatzen, eta nun eta nolako jokaerak egiñez ibili bearrean gertatu zan gure euskaldun talde txiki ura.

Liberalen kanpamentu bat, aundi samarra gaiñera, Andoaingo Sorabilla inguru ortan omen zegoan. Gero andik, pentsatzen zutenean, irten eta erasoak emateko prest jarrita zeuden.

Itxura danez, inguruko baserrian bizi zan gizon batek liberalen mugimentuak zaintzen zituan, eta aren bitartez Santa Kruzek ere jakin zuan nola egun gutxi barru Iturriozko gain ortara igotzeko gertutzen ari ziran.

Ori jakitean, ekin zion ogei ta amar bat gizoneko taldeak, Elduaingo kapitana zuzendari zutela, presaketak egiten: bakoitza gordetzeko zuloak egin; bigarrenen gaiñeko aldetik, maldarik aundiena zegoan lekuan arri aundiak mordo bat pillatuta jarri; eta al zituzten neurri guztiak artzen saiatu ziran, burruka asten zanean garaile irten zitezzen. Etsaiak eltzen ziranerako, beren ustez gauzarik bearrezkoenak pronto jarri zituzten.

Andik aurrera, itxogitea zan zeukaten eginkizuna. Baiña ernai antzean. Batzuk lotan edo atsedentzen zeuden bitartean, besteak zuloetan gordeta, eta zelatan ere bai.

Era ortan egun mordoska bat igaro ondoren, goiz batez, eguna argitzen asi eta laster, non ikusten dituzten gudari mordoa Andatz-zarateko gaiñetik gora; eta, euskaldun taldea konturatu zanean, bakoitza bere tokian bai aguro gordeta jarri ere.

Alaxe, patxara ederrean, nagusi jendea zaldi gaiñean eta gaiñerakoak oiñez, liberalak Iturriotza inguratzen ari zirala, zai zeudenentzat unerik egokienera iritxi ziranean, Santa Kruzek agindu zuanean, mutil guztiak batean eraso tiroka.

Orduan liberalak itxumustuan, zer egiten zuten



etzekitela, itzuli eta beeraka abitu ziranean, len jarritako arri aundi aiek goitik beera jaurtitzen ekin zioten euskaldun gudariak; eta batzuk elbarritu eta besteak il eta abar, txikizio ikaragarria egin zuten etsaien artean. Bizirik edo ondo gelditu ziranak ere, danak sakabanatu eta erio sugar artan ezkutatzeko modua egin zuten.

Zizurkil aldetik igotako gudari talde aren laurdena etziran izango Iturriotzen zeuden euskaldun aiek. Baiña Santa Kruz eta bere lagunak egin zituzten prestaketak zirala medio, izugarrizko garaipena lortu zuten.

Gerrak eta apustuak, irabaztun gertatzen danarentzat, egundoko arroaldiak sortu izan ditu; eta Santa Kruztarrak ere pozaldi aunditxoak izan zuten egun artan. Baiña etzuan luzaro iraun alaitasun arek. Laster iritxi zitzaizkien ordaiñak.

Iturriotzko sarraski ura jasan eta gero, liberal taldeko gauza ziran guztiak berriro beren kanpamentutara biurtu ondoren, bertako buruzagiak amorrubizian ekin omen zioten zeaztasun guztiakin gauzak aztertzen, urrengoan zein tokitan eta nola egurra eman, orduan garaile gertatutako aiei.

Euskaldun gudariak, Iturriotzko garaipena lortuta gero, pozez txoraturik, Aiara jetxi eta geienak bertan planto egin zuten. Baiña Santa Krutz, beste bi lagunik berezienekin, Zarautza aldatu bearrean gertatu zan. An arkitzen baitzan Lizarraga, karlistetako jenerala, gudari mordo batekin; eta jaun orri armak eta mutil batzuk eskatu zizkion, Aia ingurua etsaien erasoetatik babestu al izateko. Lizarragak agindu ere bai bialduko zizkiola.

Jeneral Lizarragagandik baiezkoa artu zutenean,

irukotea oso itxaropentsu itzuli omen ziran lagunetara, Aia gaiña babesteko ainbat gizon eta armaren laguntza lortu zutela uste orrekin, ala gertatu ez bazan ere.

Zarauztik joan etorria egin eta gero, Santa Kruzek bere taldearekin Aiako Aitzpeako elizaren ondoko etxe zar batean babestokia antolatu omen zuten, saio luze samarra egin bearrean arkituko zirala uste zutelako.

Bien bitartean, taldeko bat edo beste bialtzen zituan buruzagiak zelataritzara, ea liberalen aldean zer berri edo asmo zerabilzkiten aztarnarik ateratzen zuten.

Orrela zebiltzala, ibiltari berezi batek jakin zuan Andatz-zaratetik barrena Aiara sartzen dan erri-bidetik erasotzeko erabakia artuta zeudela militar buruak.

Etsaiak urrengo pausoa nondik nora emango zuten aztarna atera zutenean, ekin zion Aian kokaturik zegoan euskaldun taldeak aurkariak etorri bear zuten bide orretan, aiei aurre egiteko arkitutako lekurik egokienean, alamoduzko tranpak eta trepetak jartzen.

Toki ori arrobi antzeko zerbait zalarik, egun batez, arriak ateratzen ari zirala, gerorako zer edo zer prestatzen noski, eskaleko zarpa zarrez jantzitako batek, aiengana inguratzean, jateko pixka bat eskatu omen zien an ari ziranei; eta, errukiturik, urdaia eta talo errea eman ere bai. Baiña aiek jaten ari zan bitartean, galdezka eraso, lanean jende asko al zebiltzan arrobi artan, arriarekin zer egiten zuten, eta abar eta abar.

Santa Kruz buru azkarreko gizona zalarik, az-

tarnari edo espia ote zan tankera emanik, onela erantzuten asi zitzaion:

– Beste arrobia Zarautzen daukagu, eta an jende mordo aundia jarduten da. Emengo arri au, berriz, Aia inguruan ermita berri bat egin nai dute eta artarako ateratzen degu. Beste lagun talde bategen basoko lanak egiten ditu: egurrak moztu eta pronto jarri.

Orrela, izketaldia egin zuanean, eskaleko itxuran zebillen traste gaizto arek aldegin zuan, Kurpide auzorako bidea arturik. Baiña arri ateratzen ari ziran euskaldun aietako bati Santa Kruzek agindu au eman omen zion:

– Ori nondik nora dijoan zaindu bear dek, baiña bera konturatu gabe.

Esan bezela, eskaleari urrutitik jarraituz saioa alaxe egin ondoren, illunabarra inguratzen ari zala, Zarate azpiko erreka zulo batera sartu zan zelataritzat zeukaten zarposo ura. Andik gutxira, iru zaldizko irten erreka baztarretik; eta aietako bat, jarraitu zion gizon ura. Andikan gora, Zarateko Benta Zarean barrena Zizurkil aldera ezkutatu zitzaizkion.

Ori ikustean, zaintzaille euskalduna itzuli zan al zuanik azkarren Aitzpea ondoko etxe zarrera, eta nagusiari eman ere bai gertatu zanaren berri. Santa Kruzek, ori entzutean, laster esan zien bere lagunei:

– Nik uste nuan bezela, gizon ori gure etsaiak bialdutako zelataria da; eta, ala izanik, orain joeraz aldatu egingo dira. Aiaren goi aldetik sartzeko tokian, beetik etorriko zaizkigu, eta guk ere geure aldatetak egin bearrean gera, eta al dan azkarren gainera. Bestela, oraingo zabarkeria geronek ordainduko degu.

Santa Kruzek bere taldekidei agindu edo kontseju auek eman zizkien:

– Zalantzarik gabe, liberalak datozenean, Zarate-tik barrena San Pedrorra jetxi eta ortik gora sartuko zaizkigu, egunez badatoz. Ez daukagu ogei ta bost lagunek bakarrik aurre ematerik. Lizarraga jaunak ere agindu zizkigun mutil eta armak bialduko zituala, baiña ez dira agiri. Onezkero, ez da ezer azalduko onera. Nik galdu ditut itxaropen guztiak. Burutapen txarrak dauzkat oso gai orretaz: azpikeriz mintzatu ote zitzaigun jeneral ori, geren gisa utzi eta etsaien atzaparretan erortzearren, orrela danok garbitzeko modua egingo dutela pentsatuz. Errezelo orrekintxe nago; eta, estuasuna datorrenean, zer egin edo nola jokatu gogoan ondo artzea komeni zaigu, irtenbide bat izan dezagun, danetik inguratu eta bertan garbitu ez gaitzaten. Len esan bezela, goizetik edo arratsaldez, argi dagoala, etorriko balira, tiro, su, arri eta prestatuta dauzkagun gauza guztiekin eraso bat eman, al bada atzeratu eta sakabanatutzea lortzeko modua egin eta bakoitza dagoan tokitik igesira jo Pagoeta mendiko basoetara, bertan gorde gaitezen. Eta, alkarrengandik galduko bagiña, Altzolako eliz aldera azaldu. Baiña ardura aundiz ibili, etsaiak kon-turatu ez ditezen. Burrukan asitakoan, orain entzun dezutenik ez aztu. Argi eta buruz jokatzea bearrezko zaigu, ondamendian erori gabe. Eta, gauez badatozte ere, naiz-eta guk berai kalte egiteko aukera geiago euki, neurri berdiñak artu bear ditugu.

Onelako itzaldi bat egiñik, lagun guztiak jakiñean jarri zituan, zer egin bear zuten erakutsita.

Artean ere egun batzuetan etzuten ezeren az-tarnarik izan. Bien bitartean, zerbait antolatzen ja-rraitu zioten.

Besteak beste, talde ori babesten zan etxe zarraren aldamenean, bertako bizi-lagun bat liberalen alde zelatari edo espia bezela lana egiten zuala jakin zuten *Azaria*'ren bitartez. Orrela deitzen baitzioten Santa Kruzentzat aztarna guztiak biltzen zituanari.

Santa Kruzek sarritan itzegiten zuan beren aurka iruzurrean zebillen orrekin; eta egun batean, kontu kontari ari zirala, Ernialdeko apaizari galdera onela egin omen zion zelatari maltzur arek:

– Zer? Denbora askoan egon bear al dezute Aia inguru ontan?

Santa Kruzen erantzuna:

– Bai. Oraindik puska batean egon bearco degu. Emendik bi astetara etorriko omen dira liberalak, eta bitartean goi aldeko erri-bide inguru ontan babestoki edo tranpa batzuk prestatu bearco ditugu gaiñera, etsaiak datozenerako. Lizarraga jeneralak ere gudari mordo bat eta armak bialduko dizkigula aginduta dago.

Orrelaxe, batek gezurra esan, baiña besteak egi-tan jardun zala uste zuan; eta bereala asi zan pentsatzen, disimuluan liberaleri kontu oien berri nola emango.

Izketaldi ori egin zutenean, igandea izaki; eta Santa Kruzek, buru azkarra zualarik, kontu oiek propio esanak izango zizkion bere etsaien laguntzailleari. Biaramonean astelena zalarik, Tolosako peri aitzakian liberaleri jakin zituan guztien berri ematera joango zala ziur baizegoan.

Ernialdeko apaizak bereala jakiñean jarri omen zuan *Azaria* izeneko aztarnaria, bere alde lana egiten zuan gizona alegia, aien aurka zebillen ura ondo zaintzeko esanda.

Zelatari ori bizi zan etxeko orma batean maats-parrala zegoan nonbait, eta *Azaria* igande gauean bertan jarri zan, maatsean gora igo eta etsai iruzurti arek lo egiten zuan leio ertzean, barruan zeuden senar-emazteak ezer itzegiten bazuten aretzaz jabe-tzeko asmotan.

Goizeko laurak aldean, senarra jeiki eta erropak jazten asi zanean, emazteak:

– Nora zoaz garai ontan?

Senarrak:

– Tolosako perian aspaldian izan gabe nago, eta gaur araxe joan nai nuke.

Emazteak:

– Zazpiretan abituta ere badaukazu naiko denbora. Edo ixilkako ibillaldiren bat bai al dezu orain ere?

Senarrak:

– Egon zaite lasai, emakumea. Esango dizkizut nere eginkizunen goraberak. Aruntzean, Sorabillako inguru ortan daukat enkargu bat egin bearra, eta goizago abitu bear det.

Emazteak:

– Sorabillara? Ez al dakizu liberalez betea dagoa-la inguru ori? Oiek arrapatzen bazaituzte, kapaz lirake espiaren bat zerala iruditu ta bertan garbitzeko.

Ikusten danez, andreak etzekian gizonaren jokabiderik. Senarrak:

– Ez daukat bildurrik, Badet ezaugarri berezia nerekin, kanpamentu ortako buruzagiak emana. Kontrabandoan nenbillela, bein mesede bat egin nion. Aren ordain bezela, eskeiñi zidan agiri au, eta nik artu. Orain argatik nago inguru oietan lasai ibiltzeko moduan.

Emazteak:

– Joan zaite eta ibili berriketan. Ez al dakizu militar asko nola izaten diran? Gaur emandako itza, biar ukatu egiten dutela? Nik esan dizut. Ortik aurrera zerorrek atera kontuak.

Zelatari ori *Kontrabandista* izenez ezagutzen zuten errian, bere garaian ibilia zalako; eta artean ere baliteke zerbaiten saltsa edukitzea.

Andrearekin orrela mintzatu ondoren, irten etxetik eta San Pedro alderako bidean barrena abitu zanean, *Azaria* ere jetxi poliki-poliki maatsean beera eta Santa Kruzengana jo zuan.

Entzun zituanak kontatu zizkionean, bere taldeko bi mutil laguntzeko emanik, *Azaria* eta irurak zelataria zaintzeko eta al bazuten arrapatzeko aginduarekin bialdu zituan.

Irukoteak, bidean zijoazela, alkarri onela zioten:

– Gizon ori Zaratera aterako dek. Obe diagu laster-bideetatik joanda aurrea artu eta gordeta jar-tzea.

Alaxe egin zuten. Beren aukerako edo alamoduzko tokia arkitu zutenean, jarri ziran irurak txoko banatan. Alako batean, argi txiki bat azaldu zan eta ari zitzaien urreratzen. Nai zuten lekuraiño iritxi zanean, batek otsegin zion:

– ¡Alto!

Ori entzutean, ekin zion igesira. Beste biak ere «¡Alto!» eta «¡Alto!». Orduan zelataria bere rebolbera atera eta tiroka eraso zien. Baita besteak ere tiroka erantzun. Ala ari zirala, jo zuan bularrean bala batek *Kontrabandista* eta bertan gelditu zan.

Etzuten iltzeko asmorik; baiña orrela gertatu zitzaien ezkerero, aurrera egin bearra zeukaten. Bere

patrikak miatu zizkioten, eta arkitu zioten ezaugarri berezi ura.

Lenbizi, gorputza zulo batean gorde zuten: orbelez eta arriz estali eta ondo ezkutatuta utzi.

Ondoren, erabakia artu zutenean, beste biak non egongo ziran zekiala, *Azaria* joan zan liberaletara. Sorabillako kanpamentura iritxi zanean, goardian zeudenak zein zan galdetu omen zioten; eta *Azaria*, bere agiri ura erakutsiz, onela mintzatu zitzaien:

– Zuen nagusi edo jefearekin itzegin nai nuke.

Orduan eraman zuten buruzagiarengana, eta biak utzi zituzten. Jaun onek ekin zion galderak egiten:

– Zu zein zera?

*Azaria*'k:

– Ni zuen zelatariaren koñadua naiz. Bera pulmonia edo gaitz orrekin oian oso gaizki dagoalako, ni bialdu nau. Nola Santa Kruzen goraberak jakin dituan, beroien berri zuri emateko esan dit.

Orduan kontatu zion, goi aldetik sartuko ziran ustean, bide inguru aietan ari zirala parapeto, zulo eta tranpa guztiak jartzen.

– Emendik bi astetara joango zeratela, eta ordu-rako Lizarraga jenerala armak eta gudari mordo bat bialtzeko aginduta dago. Orain bertan daudenak, ogei ta bosteko taldea bakarrik da. Nere ustea au da: orain bereala joango baziñate gaez eta bee aldetik, etxe zar batean lotan daudela arrapatuko dituzute. Oraindik oso lasai ikusten dira. Norbait zaintzen jartzen dutenean ere, goiko bidean bakarrik egoten dira.

*Azaria*'k esan bear ziranak esan zizkionean, liberal jauntxo arek bere laguntzailleekin billera bat egin omen zuan, an joan zitzaien espiari buruz. Gezurre-



tan ote zebillen edo ez eztabaidatu ondoren egitakotzat arturik, buruzagia berriz etorri eta zelataria aginduak emanda utzi zuan:

– Emendik bi egunera, gaueko amabietarako, San Pedro gaiñeko bide gurutzean egon bear dezu gure zai. Baiña Aia aldeko berriak eta Santa Kruzen aztarna guztiak ondo ikasita etorri. Orain zoaz iñor konturatu gabe. Bestela, danontzat galera izan liteke.

Jeneralaren ordenak artu eta *Azaria* bazetorren berriz etxerako bidean. Zarate'ra irixtean, goizean utzi zituan bi lagun aiei disimuluan esan zien beren gisa atzeragotik etorri zitezela; danak batera ikusi ezkeru, bateonbatek errezero egin zezakela eta ohea zutela buruz jokatzea.

Bakoitza bere aldetik Aia'ra biltzeko modua egin zuten. Gero, gauean, *Azaria* Santa Kruzengana inguratu eta liberalekiko arremen guztiak agertu ondoren, Santa Kruzek, gauzak aztertuz pixka batean pentsatzen jardun da gero, erabakia eman zion *Azaria*'ri:

– Zuk San Pedrora esandako garairako joan egin bear dezu. Nondik etorri bear duten erakusteko, aurreko muturrean jarriko zaituzte; eta orrela, Agerre aldean gora, Aitzperako bidetik ekarri bear dituzu. Zuek zatoztenerako, guk bi gurdi zar alkarrri lotu eta arriz kargatuta jarriko ditugu aldapa orren goenean. Gaiñerako jenderik geiena, goiko aldeko basatartetik tiroka ekiteko zai egongo da; eta zuk, gurdi otsa entzuten dezunean, al badezu, goiko aldera iges egin bear dezu. Errian gelditu ezkeru, arriskuan arkituko ziñake, eta bereala joan zaite Erdoizta aldeko Martzelo artzaiarengana. Nik esanda zoazela esaiozu eta

oso pozik artuko zaitu. Etxean ez esan nora zoazetik; Azpeitira joan bear dezula egun batzuetarako, eta kito.

Orrela banatu ziran bakoitza bere aldera; eta, esandako eguna eta ordua iritxi ziranerako, Santa Kruz pronto zegoan, gurdi eta mutillak beren tokietan jarrita.

Baita *Azaria* ere San Pedro gaiñeko bide gurutzean. Gauerdi inguru orretan azaldu zitzaizkion liberalen tropela: ogei ta amar bat zaldun eta beste berreun bat gudari-edo. Etzuten bein ere gau artan zenbat etorri ziran segururik jakin. Aiako euskaldun talde arek aurre egiteko geiegi zirala bai.

Alkartu ziranean, liberalen buru egiten zuanak, zelatari edo beren espiatzat zeukaten orri, zer berri eraman zituan galdetu zion; eta besteak erantzun:

– Lasai dabilta. Lizarragaren mutil eta armak noiz iritxiko, itxaropen orrekin daude. Baiña etzaizkie etortzen. Bartarratsean ere, bi mutillek goiko bidera egin zituzten joan-etorri batzuk; eta gaiñerakoak etxe zar batean daude.

Orduan nagusiak beste bi gudarirekin *Azaria* tropelaren aurrean jarri arazi zuan, eta ekin zioten Aiarako bidean, Illarramendi baserritik gora. Gero Agerre; eta, an pasa ziranean, zaldunak tropelaren aurrea aldatu zituan buruzagiak.

*Azaria* ere, aurreko zaldiari sokatik eldu eta bidea erakutsiz an zetorren estu eta larri. Bere bizia arrisku aundian ikusten baitzuan.

Goien zai zeuden Santa Kruzarrak ere konturatu ziran oso gertuan zirala; eta an zeuden, bakoitza bere tokian, illeak zutik zituztela.

Alako batean, zaldunak azkeneko bide-zati alda-

pa artan sartu ziranean, «Aibaaa!!!» orrua egin eta arriz kargatutako gurdiak bialdu zituzten goien zeudenak zaldunen gaiñera. Ango zaldi irrintzia! Une berean, baso tartean gordeta zeudenak tiroka eraso. Naaspilla artan zebiltzala, *Azaria*'k aldegitoko modua egin zuan. An botatako gurdiak ere naiko kalte egin zuten zaldunetan: batzuei anakak autsi, besteak elbarritu, lagunak il ere bai. Tiroka beste mordoska bat.

Baiña itxumustu ura pasa eta zerbait baretu zanean, gudari asko zeuden liberalen aldetik eta tiro eta tiro ekin zioten, besteen sua ikusten zuten aldera. Eta eskerrak igesira jotzeko moduan, gaua zalako, gertatu ziran. Bestela, danak bertan garbituko zituzten. Illunpetan izanik ere, sei-zazpi bat bai omen ziran Santa Kruzen taldetik ildakoak.

Eraso artatik iges egitea lortu zutenak, aurrez maisuak esanda zeuden bezela, danak Pagoeta mendiko baso tartera sartu ziran, eta goizerako alkarren-gana bildu ere bai. Baiña bildurrez zeuden, beren lagunetakoren bat zauritu ta bizirik arrapatu bazuten, liberalak atera araziko ziotela gaiñerakoak nora joateko asmoak zituzten.

Aiek uste zuten bezela, Errialdeko apaizaren taldekidea, ankean balazoa artuta zegoana, artu zuten estu eta larri, eta aitortu egin zuan gizarajoak:

– Altzolako eliz aldera biltzeko agindua eman zigun Santa Kruzek.

Ori jakin zutenean, asi omen zitzaizkion berriro galdezka, *Kontrabandista* deitzen zioten gizona bazala Aian eta ezagutzen al zuan.

Baietz esan zien; eta non bizi zan erakutsi ere bai.

Orduan, liberal agintaria eta gudari batzuk etxe

artara inguratu eta atea jotzean, etxeoandrea erten zan, eta agintariak galdera:

– *Kontrabandista* deitzen diotena zure gizona al da?

Andreak:

– Bai. Alaxe da.

– Gaixorik al dago?

– Ez; ez dago gaixorik. Astelen goizeko bostetan irten zan etxetik, Tolosako perira joanez. Aruntzean Sorabillan enkargu bat egin bearra zeukala esanda aldegin zuan, eta geiago ez da azaldu.

Ori entzutean, liberal buruzagi arek, seguru gelditzeko, etxe ura miatu arazi zien bere gudariei. Baiña andreak egia esan zuala ikusi zuten. An etzegoan gizonaren aztarnarik. Prueba oiek danak egin da gero, agintaria mintzatu zitzaion etxeoandreari:

– Astelenean gizon bat joan zitzaigun. *Kontrabandista*’ren koñadua zala esanez. Ura gaixotu zalako bere orde zijoala, eta arek emandako agiri bat ere bazeukan berekin. Esandako guztia sinistu egin genion, eta orain konturatzen naiz paltsoa zala. Guri kalte aundiak egin dizkigu. Zure senarra ere, seguru asko, illa izango dute tarte ortan ibili diranak. Danen arrastoa ateratzen saiatuko gera, eta jasoko dute me-rezi duten ordaiña.

Era ortako jardunaldia egin ondoren, etxeoandre gaixoa negarrez utzi eta militar aiek itzuli omen ziran beren kanpamentu edo babestokira.

Bi edo iru egunean errian bertan jarraituak omen ziran. Kanpamentuak prestatzeko aitzakian, eginkizun bakarra zerabilkiten esku artean: aiei traizioa egindako *Azaria* eta aren lagunak nor ziran aztarna ateratzea. Bien bitartean, denda, taberna eta gaiñe-

rako lekuetatik arrapatzen zuten guztia artuz ibili omen ziran.

Erri barruan orrela baztarrak aztoratu ondoren, zaldun mordo bat Aiatik irten eta Urdanetara dijoan erri-bidean barrena puska batean joan eta Neberako Lizarretik aruntza Altzolara jo zuten. Ara irixtean, arkitu zituzten baserritarrei asi ziran galdezka:

– Santa Kruz eta bere mutillak nun daude? Base-  
rriren batean gordeta arkitzen baditugu, etxe artan ez da bizirik inor geldituko. Obe dezute azkar esatea. Bestela, zuen etxe eta inguruak danak erreko ditugu.

Desapio aiek entzutean, danak bildurrez etsita jarri omen ziran altzolatar gizarajoak. Inor etzuten ikusi eta ezin esan. Ernialdeko apaiza bere taldearekin gauez aldatu baizan Pagoetako baso tartetik Santa Engraziko txaraka edo maldara; eta une artan, liberalak nondik nora zebiltzan, begira zeuden Altzolaz beste aldetik.

Altzolako eliz aldean etzutela ezeren aztarnarik ateratzen etsi zutenean, beetik gora abitu ziran, basarri, borda eta gaiñerako baztar guztiak arakatu, Pagoeta gaiñera igo eta andik Aiara bitarteko zirrikitu eta gordetokirik onenak, edo ala uste zutenak, danak miatuz. Baiña ezer arkitu gabe itzuli ziran kanpamentura, aiek uste zuten baiño urrutiago gordea ze goan Elduaingo azari zarra.

Santa Kruzek, Aian zeuden etsai aiei nolabait azioa egitea zerabilkien buruan; eta, ortarako zerbait prestatu asmoz, zeuden gordetoki artatik, urrengo goizean goiz, taldeko bi bialdu zituan, bakoitzari bere eginkizuna emanda.

Lenengoari agindu au betetzeko eman zion:

– Joan zaite Pagoetaren azpikaldean dagoan Sa-

gastizabal baserrira. Aizarnako baserritarra zerala esan, ezer galdetzen badizu. Aurrez eginda askotan edukitzen omen ditu eltzaorrak; eta, ala baleuzka, bost ekarri bear dituzu.

Ikusten danez, garai artan eltzaorra edo dalako traste orrek abere zaleen artean bolara edukiko zuan, orrela egin da saltzeko pronto edukitzen zituan. Garaian garaikoak.

Beste mutillari zelataritza jarri zion, Aia gaineko Arreta deitzen zaion muñoa erakutsiz:

– Zuk, ango tontor artan, ikuspegi onak dituan txoko bat arkitu bear dezu. Andik liberalen aurrera-atzerako guztia zainduz egon bear dezu. Irteera gaiztoren bat nabaitu ezkerro, Pagoeta gainean sua egin.

Urrena, onela esan zien bi mutil aiei, Pagoetako egoaldeko gaur Ernio-txiki izenez ezagutzen dan inguru ori izendatuz:

– Eta, ezer ikusi ezean, illundu eta laster, zuek eta emen gelditzen geranak, danok antxe bilduko gera.

Taldeko batek ontzak bezela oiua egiteko grazia zeukalarik, oiua entzutean bazekiten banatuta zebiltzanak lagunak non zeuden eta nora joan bear zuten.

Aurrez aginduta bezela, garaia iritxi zanean, el-tzaor-zalea, zelataria eta Aizarna aldeko taldea, danak izendatutako leku artan alkar jo zuten; eta, zeukatenetik zerbait jan zutenean, bertan igaro gaua.

Santa Kruzek egunsentian bere mutil bati agindu zion trapu zati zuri bat artzeko berekin, eta Olarteta-ko muturrean jartzeko. Aiatik gora liberalak azaltzen baziran, zapi zuri arekin gertatzen zanaren berri

aiei emateko. Olarteta ori dago Pagoetako gurutzea eta Ernio-txiki bi toki oien erdi inguru bezela, eta Aiaraiñoko bitarte ori ikusteko leku berezia da.

Mutil ori an zegoan bere kabian gordeta; eta, goizeko amarrak inguruan, non ikusten dituan, Aiatik gora, Arretako bide gurutzean, zaldizko tropela. Bereala, pixka bat atzeratu zegoan tokitik, zaldunak ikusi etzezaten, eta bere lagunei ezaugarri edo seiñak egiten asi zan.

Santa Kruzarrak, konturatu ziranean, maldarik aundiena zegoan bide-unearen gaiñeko txarakan gordeta jarri ziran.

Zaldun liberalak, Azkorteaitz inguruko zulo eta zirrikituak eta beor-barrutiko baztarrak miatu ondoren, Ernio-txiki alderako bideari ekin zioten; eta Olarteta muturrean zegoanak bere taldekideei ulertu arazi zien nola etsaiak aiengana zetozen, ernai egon zitezten.

Orduan, izkutuan zeuden gerrillari aiek, saguaren zai dagoan katuak baiño begi argiagoeekin, bakoitza bere tokian jarri ziran, batzuk eltzarrarekin eta besteak armak eskuetan artuta, danak gertu, ondo gordeta eta ixilik.

Zaldunak beren aurrera edo parera iritxi ziranean, asi ziran lau eltzarra jotzen. Une berean, gaiñerakoak tiroka eraso zioten. Ura iskanbilla! Zaldiak itxumustuan maldan beera; gaiñeko lagunak batzuek jausi eta besteak anka ugaletan katiatu, zaldiak arrastaka artu eta il. Tiroz ildakoak ere bai. Itz batean esateko, liberal talde guztia sakabanatu eta desginda utzi zuten une txiki artan.

Santa Kruz eta bere lagunak etzuten uste ain errez suntsituko zituztenik. Baiña naiz etsai guztiak

ezkutatu, bada ez bada ere artean ernai antzean zebiltzan, ustekabeen beste zaldun edo talderen batek arrapatu etzitzan; eta, mutil pare bat Aia aldeko bidea zaintzen zeuden bitartean, gaiñerakoak liberalak galdu zituzten arma eta munizioak biltzen zebiltzan.

Aiek ontan ari zirala, Olartetako muturrean zelatari zegoan arek ikusi omen zuan zaldi gaiñetik erorita edo zauritutako bat azpikaldeko aitz artean nola gorde zan. Orduan bean zeudenei abixua egin, eta aiek bereala jetxi eta aitzean gordeta zegoanari atzaparrak erantsi zizkioten. Pentsatzen zuten aldean arrai aundia eskuratu ere bai. Zein izango ta zaldun edo kaballeri artako komandantea. Buruzagi egiten zuana beintzat.

Santa Kruzen eskuetan erori zanean, bildurtua egongo zan nonbait. Liberal orrek, aske uzteagatik, berak pisatzen zuan aiña urre emango ziola agindu omen zion Elduaingoari. Baiña etzion sinistua izango, ikusten danez. Bertan il zuten berriak ematen dituzte batek baiño geiagok. Gaiñera, il-era gogorra gertatua izango zitzaion: bi lagunek gora jaurti eta beste bik azpitik baionetak sartu. Gizonak, une oietara irixten diranean, abereak baiño okerragoak jartzen dira, eta gerran ibili diranak zenbat olako ikusi ote dute?

Santa Kruztarrak orko garaipen ori lortu zuteanean, batik-bat nagusiak ikusten zuan, liberalei kalte aundi samarrak nola egin baitzizkieten, Aia inguruan jarraitzen bazuten etzutela atarramentu onik aterako; eta egun artan bertan Erdoiztara aldatzeko modua egin zuten.

Aruntza iritxi ziranean, an arkitu zuan Santa Kru-



zek len Aiatik berak ango artzaiarengana bialdutako *Azaria*, zelatari ibilitako ura. Gaua alkarrekin igaro eta urrengo goizean alda-aldi aundia egiteko asmoa zerabilkian euskaldunen kapitanak; eta, abitzera-koan, esan omen zion artzai morroi zebillen *Azaria*-ri:

– Goazemazu gurekin.

Eta besteak ezetz:

– Emendik puska batera liberalak aldegingo dute Aiatik, eta orduan etxera itzuliko naiz.

Itz oiekin agurtu ziran, alkar serbitzen ibilitako bi lagunak. Santa Kruzek artzaia eta *Azaria* agurtuta, taldearekin Gazume gainetik barrena Bidani pasa eta Santa Marina inguruan geldituak izan bear zuten.

Toki geiagotan artean ere burrukan jarraituak izango ziran. Baiña Aia aldeko azken saioa Olarteta azpiko ura izan omen zuten.

Nik gauza auen aztarna pitiñak ustekabeen jakindakoak ditut, geienak beintzat. Orain amalau bat urte, Donostiko ospitalean ebakuntza eginda nengoala, aldameneko gelara joaten nintzan bisitara, eta an gizon eldu bat zegoan. Larogei urte edo geiago ere eduki zezazkean, eta berarekin kontu kontari sarritan jarduten nintzan.

Berak tolosarra zala esaten zidan. Egun batean, itz-bidea ala etorri zitzaidalako, Aiakoa nintzala esan nion. Ori entzun zuanean, arrituta bezela asi zitzaidan:

– Kontxo, kontxo! Aiakoa zera orduan? Zuen erri ortan gertatutako istoria pranko kontatzen zizkigun gure aitona zanak. Bere osaba, Santa Kruzekin inguru oietan liberalen aurka egin zituzten burrukal-di guztietan, tarteko gertatu omen zan.

Orrelaxe asi zan kontu zaarrak astintzen; eta nik liburu ontan Santa Kruzi buruz jarri ditudan eraso eta ibillaldirik aundien edo aipagarrienak, beragandik jasotakoak dira. Entzuten oso pozik egoten nintzan aitona orri. Baiña, gaur bezela jakin izan banu garai artan istori aiek liburu batean jarriko nituala, arreta aundiagoz gauza guztiak jaso edo ikasten saiatuko nintzan. Gizon aren izenik eta beste aztarnarik batere gabe gelditua, orain naigabe gogor bat nabaitzen det barrenean. Kalekoa edo baserrikoa, tolosarra zala besterik ez dakit. Bizi izatera, eun urte bear lituzke gutxienez. Baiña onezkero illa izango dala ustean nago ni.

Gauza askorekin gertatzen zaigu: bere garaian ez degu aintzat artzen edo bear duan garrantzirik ematen. Denbora joan da gero konturatzen gera galdutako pitxi aren balioaren aunditasunarekin. Nik ere aitona arengandik askoz geiago ikasi nezakean. Baiña aukera ura galdurik dagoan ezkerro, gogoan dauzkadan pixka auekin konformatu bearko. Ez dago beste erremediorik.

Aia inguruko gertakizunekin jarraituz, berriro ekingo diogu. Olarteta azpiko erasoan garaille gertatu ziran pozaldi aren ondoren, Ernialdeko apaiza eta lagunak emengo burruka guztiei agur egin eta aldegin zuten, bada ez bada ere, urruti samarrera.

Baiña liberalak Aian zeuden, eta euskaldun gerri-llari aiei ordaiñak emateko asmotan. Zaldun eta oiñezko, urrengo egunetik danak batera irteten asi omen ziran Pagoeta eta Alzola aldera. Miatzen iru bat egun jarraituetan ibili arren ezer arkitu etzuteanean, Andatz-zarate aldean barrena ostera Andoain inguru ortara itzuliak izango ziran, gero ikusiko degunez.

Aiatik aldegin zuten liberal aiek ikusi zuten, beti bertan zebiltzala etzutela mendiko basoetan gordezten ziran etsai aietakorik topatuko. Baiña ezkutatu itxura egin eta ustekabeen etorri ezkeru, aztarna aterako zutela itxaropen ori zeukaten.

Baita egin ere. Andikan zortzi edo amar egunera, gauzez etorri eta azken burruka izan zuten inguruko pagadietan gorde; eta zelatariak, Aiatik Pagoetarako bide eta inguruak zaintzeko, batzuk Arretako tontorrean eta besteak Olartetako muturrean eguna argitzerako pronto jarrita zeuzkaten.

Len aitatu det, Santa Kruztarrak urrundu zira-nean, aien alde zelatari edo etsaien aztarnak ateratzen ibilitako *Azaria* Erdoiztako artzaiarekin gelditu zala, egun mordoska bat igarotzen zanean Aiako bere etxera etortzeko asmotan.

Eta ara: ura ere orduantxe zetorren bere txokoan atsedentzea buruan zuala. Baiña liberalak gogorazten zitzaizkion eta alde askotara begiratzen zuan. Pagoetara irixtean, alde guztietara bista luzatu eta ekin zion baso tartean beera. Puska bat jetxi zanean, Arretako muturretik baztarrak zelatatzea pentsatua izango zuan eta aruntza igotzen asi zan.

Baiña lenagotik gordeta liberalak zeuden an. Aiek, berengana zijoala ikustean, jarri ziran ondo ezkutatuta; eta, beren gaiñera eldu zanean, »*¡Alto!*» otsegin zioten.

*Azaria*'k, ori entzutean, igesari eman. Baiña alpe-ririk. Tiroka erasotzean, bertan zerraldo utzi omen zuten gixaraxoa.

Lenago *Kontrabandista* eta gero *Azaria*, ara bi zelatarien bukaera nola izan zan. Lantegi edo serbitzu oietan ibili izan diran geienak atarramentu ber-

dintsua eramaten dutela entzun izan det nik, eta zerbait badu ofizio orrek: zelatari edo espia, besteak ondutzen ibiltzen da, eta azkenean bere burua ere bai.

Arretan ori larunbatez gertatua bearko zuan. Urrengo arratsaldera arte goiko basoetan gordeta jarraitu omen zioten liberalak; eta, igandea zalarik, Aiako eliza dana jendez betea omen zegoan. Garizumako elizkizunen bat izango zan, alako jendetza gertatzeko.

Frailea itzaldia egiten ari zan bitartean, sankristau errena koruko leiotik kanpora begira zegoala, Arreta gaiñetik beera gudari tropela zetorrela ikusi zuanean, elizara jetxi eta ateak zabalduz asi omen zan liberalak zetozela oska; eta jendearen irteteko erio-sugar artan, besteak salbatzeko alegindu zan ura, ankapean lerturik iltzea gertatu berari. Gaiñerakoak, liberalak iritxi baiño lenago ezkutatzeko modua egin zutela esaten dute.

Baiña aiar bat, funtziotik irten eta San Pedro aldera dijoan bidean barrena zijoala, Dotoene base-riaren inguruan zegoan zuatz edo meta garoaren baztarreko zirrikituan sartzen ikusi Aia gaiñean begira zeuden militar aiek. Baita bertara joan eta ezpata edo baionetekin zuatz ura dana sasteatu ere.

Baiña an gorde zana, ez tontoa izan. Garo azpitik sartu eta, aitzaren babesean zegoalarik, an zulo bat eduki. Orregatik salbatu gizona. Bestela, bertan garbituko zuten.

Ara nola izan ziran liberal eta Santa Kruzarren arteko burruka, eraso eta gaiñerako gorabeerak. Gerra ibili dan toki guztietan bezela, garai artan Aian ere, kale eta baserrietan, jasan bearko zituzten estua-

sun ederrak. Baita galera galantak izan zituzten sendiak ere. Bat baiño geiago gertatu ziraneko berriak ematen zituzten gure aurrekoak.

Aiako elizan gertatu zan jendetza ura gorriak ikusteko zegoan, sankristau arek etsaien berri eman ez balie. Baiña uraxe zan gizonaren suerte txarra: beste guztiak iges egiteko aukera jartzen ari zan bitartean, beretzako eriotza arkitu zuan.

Beratzaz oroitzean goibelduta gelditzen naiz. Beste aldera begiratuta, berriz, kristau baten bizitzan dan gauzarik aundiena egin zuala aitortu bear: gaiñerakoak salbatzeko bere bizia ematea. Jesukristok ere orixe jarri zuan maitasun aundienaren neurri edo lekuko.

Sankristau ura aitaturteza  
nere iritzian on da,  
bestela bere egintza aren  
sentidu pitiña non da?  
Koruko leio artatik ura  
zelataritzan zegon da,  
kanpoko berri ez da jakiten  
beti barruan egonda.

Errena zan da ibilitzeko  
etzan gertatuko abil,  
bere bizitza aztertutzean  
auxe pentsatuaz nabil:  
etxe ortatik urrutiago  
gaur makiña bat badabil,  
ark egin zuan elizan bizi  
ta azkenean bertan il.

Koruko leio artan zeduzkan  
eginkizun nagusiak,

argatik ziran liberal aiek  
bere begiz ikusiak.  
Dei egin zuan gerta baiño len  
ain ondoren itxusiak,  
aren bitartez salbatu ziran  
bera ez beste guziak.

Anka azpian lerdekatuta  
beste mundura joana,  
eliztar danak salbatzarren  
bizia eman zuana.  
Egintza ori ausnartutzean  
au zan pentsatzen nuana:  
aldareetan jarri leikela  
ori egiten duana.

## ERNIO-TXIKI ETA PAGOETAKO GURUTZEAK

Gure Ernioko mendiari oinbeste aitamen eman dizkiot, erromatarren eta euskaldunen burruka aiek gogoratuz; San Juan txikietan asi eta lau edo bost igande jarraituetan izaten dira Erniorako jaiak. Euskal-Erri guztitik igo izan dira bere gaillurrera. Baiña batez ere gipuzkoarren artean arrigarria da Ernioekin izan eta daukagun arremana. Aurreko gizaldietatik datorrena da, eta aurrera ere orrelaxe jarraituko diola uste osoa daukat nik.

Ernioko gertakizun eta gorabeerekin ari naizen ezkerero, onen jarraian jarriko ditut Ernio-Txiki eta Pagoetaren aztarnak, zein diran eta nun dauden.

Ernio-Txiki au Aian dago, Pagoeta mendi-katearen ego aldeko ertzean. Aiako enparantza edo plaza-tik ordu beteko bidea da, igoera jator edo normalean.

Nola sortua dan izen ori? Oraindik ere sinismendunak gera, batez ere estualdietan; eta gure aurrekoak oso kristau sinismen aundikoak ziran, geienak beintzat. Ezbear edo larrialdietan egundoko eskeintzak eta promesak egiten zituzten. Egin bakarrik ez;

baita bete ere; eta orrelako premialdiren baten ondoren sortu zan Aiako Ernio-Txiki.

Nere guraso eta erriko zarrei entzun eta ikasia det, nola 1920'ko agorrilla edo iraillaren 3'an, Aiako erri sailletan, arri jasa bildugarri bat egin zuan. Arto, babarrun, belar eta kanpoan zegoan jateko gauza guztia auts eginda utzi omen zuan. Nola pertsonentzat, ala abereentzat, danak mixeri gorrian. Baso eta zugaitzak berdin. Ostoak, azalak eta adarrak, danak autsita utzi omen zituan. Baserri eta kaleko etxeen teillatuak, danak txikituta. Mendian edo etxetik kanpo arrapatu zituan ardi, abere eta abelgorriak ere gaizki; batzuk il ta besteak bizkar alde zaurituta. Gero, andik sarna sortu omen zitzaien. Pertsonak ere bai omen ziran, al zutena babestu arren, azala puskatuta gelditu ziranak. Txoriak eta piztiak, berriz, ildakoa asko omen zan. Baita erbiak ere. Sasiak eta otadiak ere, danak txeetu eta deseginda. Ura omen zan ondamendia eta erriaren negarra!

Txikizio arek emandako etsipenaren ondorioz eta sinismenaren indarrak sortutako argiaren itxaropenez etorri omen zan Ernio-Txikiren sorrera.

Arri jasa ura izan eta urrenko igandeko meza nagusi ondoren, eliz aurrean baserritar mordoa alkarturik –gure aita zana ere bai besteekin batera–, beren naigabe eta samiñak bata besteari kontatzen ari zirala, On Lorentzo Ibarguren, Aiako erretorea, gizon talde artara inguraturik, aien artean nabaitzen zuan goibeltasuna argitu nairik, era ontan itzegiñez ekin omen zion:

– Premi auek osatzeko zerbait egiten asi bearko degu. Alamoduzko tokietan ateak jo eta laguntza eskatu ezkeru, beti zer edo zer irixten da. Etsipenez



gelditzea da txarrena. Gaiñera, kristau geranez, urtean egun bat artu bear genduke ekaitzaren aurka otoitz egiteko.

Ori entzutean, taldean zegoan Jose Miel Odriozolak, Leola edo Legarola baserriko nagusiak, itza arturik, au zan erantzun ziona, orain Ernio-Txiki izenez ezagutzen degun mendi ori izendatuz:

– Mendi gain ortatik beera sartu zan arri erauntsia, eta mendi mutur ortantxe gurutzea jartzea me-rezi luke, geiago olakorik egin ez dezan.

Ori aditzean, erretoreak, buruarekin baiezkoa bezela egiñez eta bizkarrean eskuarekin joaz, onela esan zion:

– Bejondaizula zuri! Oso egiteko ona izango litza-ke.

Orrela jardun omen ziran, eta danak ontzat eman omen zuten. Baiña, erabakirik artu gabe, bakoitza bere etxe aldera aldendu ziran.

Urrengo astean bertan, Leola baserriko nagusiak, egurrezko gurutzea egin eta aundi samarra gaiñera, bizkarrean artu eta, Jesukristok Kalbariora bezelaxe, aldapa gogor askoan gora, len esan zuan lekuraiño jaso, zuloa egin eta zutik egoteko moduan utzi zuan.

Etzan jolaseko lana. Nekaldi eta izerdi pats ederrak jasan bearko zituan, ori guztia lortzeko. Leola baserritik Ernio-Txikira, utsik sasoikoa igotzeko, berrogei ta amar minutu bear ditu. Aldapa gogorra eta aundia benetan; eta, gurutzea bizkarrean zuala, pentsatu besterik ez dago nolako gurutz bidea izango zuan. Baiña, ala ere, jaso. Ura sinismena eta adorea! Bestela, bertan beera utziko zituan gurutzeak eta Ernio-Txikiak.

Jose Miel orrek, berak egin zuan orrekin naikoa

zala uste zuan; eta, urrengo igandean mezetara etorri zanean, edo elizatik erten da gero, kontu kontari zeudela, bat-batean onela dio:

– Nik lengoan esan nuan gurutzearen kontua, eta egin. Eraman eta len izendatutako tokian jarrita utzi det.

On Lorentzo, ori entzunik, era ontan mintzatu zitzaion:

– Jose Miel, an goien gurutzea zutitzea ondo dago. Baiña bein gauza egiten asi ezkerro, Elizako legeak agintzen duten bezela, bete bear ditugu gai auetarako dauzkagun baldintzak. Beste iñork nai baldin balu gurutzetxoren bat toki ortara jasotzea, aukera ori izango du. Eta gero egun bat izendatuko degu, mendi orretara igo, gurutz bidea eta bear diran otoitzak egin eta onespina emateko.

Erabaki ori artu zutenean, Argin, Azkue, Gorostiola eta Zulaika baserrietakoak, gurutze bana jaso eta len zutituta zegoanaren ondoan jarri omen zituzten. Beste baserri geiagotatik ere eramango zituzten gurutzeren bat edo beste. Baiña nik ez det oien az-tarnarik; eta, aitatu gabe utzi baditut, barkatu dezaidatela nere ezjakintasuna, batere asmo txarrik gabe egin baidet.

Erretoreak, bere garaian, mendi gain orretan zein igandetan eta zein ordutan billera izango zan aditzera eman zion erriari, nai zuan guztia etorri zedilla; eta, eguna iritxi zanean, aurrez esanda zegoan bezela, baserri eta kaleko jende mordo bat, eta bertako lau apaizak –On Lorentzo, On Sebero, On Juan eta On Anizeto–, danak Aiako enparantzatik abitu omen ziran, errogatibak edo eskariak abestuz.

Gutxi gorabeera ordu beteko bide gogorra igaro

eta gero menditxo ortara eltzean, lenengo gurutz bide-a egin zuten, jarraian gurutzeak onetsi, denborale gaizto eta ekaitzen aurka indarra izan zezaten; eta bereala On Lorentzok itzaldi bikain bat, esanez:

– Sinismenez otoitz eta eskariak berari zuzentzen badizkiogu, bizitzeko bear dan laguntza emango digu Zeruko Aitak, eta ekaitz gaizto guztietatik gordeko gaitu.

Itzaldia eta otoitz giroa bukatu ziranean, galdera au egiñez inguratu zan erretorea jendearengana:

– Gurutzeak onetsi eta jarri ditugu. Orain toki onek izen berezi bat bear du. Zer jarriko diozute?

Ori entzutean, Jose Miel Leolak esan omen zion:

– Gurutzeak bertan dauden ezkerero, nik Ernio-txiki jarriko nioke.

Alaxe, an zegoan jendeak ontzat eman zuanez, izen orrekin bataiatuta gelditu zan mendi ori, eta betirako, nere iritzian. Gaur, beintzat, Ernio-txiki izenarekin ezagutzen degu.

Ernio-txikiko gurutz bide, onespen, itzaldi eta abar, ango eginkizunak bukatu ondoren, beeraka ekin zioten. Baiña ez nolana. Jende guztia lau zatitan banatu eta talde bakoitza apaiz batekin, berak errosarioa esan eta jendeak erantzunez. Onelaxe igarro zuten errira arteko bidea.

Ernio-txiki mendi gain ortan, geroztik, bakoitzak bere jaiera edo debozioz, gurutze geiago jarri dira. Gaur amar bat egongo dira gutxienez, eta lenengo gurutzea jarri zanetik, San Isidro egunez, arratsaldean, urtero bertara igotzen dira aiarrak; eta, egun ortan giro txarra gertatu ezkerero, urrenko igandean.

Orrelaxe ospatuz, etorri zan orain dala ogei bat

urtera arte. Ortxe izan zuan alako zabartu-aldi bat, urte batzuk tartean utsegiñez eta abar; eta orduan-txe, lau urtetatik irutan arria egin zuan, eta jasa gogorak gaiñera.

Orduan, aztuta zegoan denborale gaizto arekin bildurturik, berriro asi dira Ernio-Txikira San Isidro arratsaldez joaten, eta benetan gaiñera. Izan dira azken urte auetan arriak puskatu dituan erri batzuk. Baiña aiarrak uste osoa daukate, Ernio-Txikira igo eta otoitz egiten badute, Jainkoak entzungo dituala beren otoitzak, eta ez duala arri jasa eta ekaitz gaiztorik egingo.

Garai bateko israeldarrak ere, beren Jainkoarekin bat eginda zebiltzanean, beti babesten zituan beren etsaietatik; eta, Jainkoarekin aztutzen ziranean, etsaien mendean erortzen ziran.

Aiako errian ere beste orrelako zerbait gertatzen dala esan bear. Ernio-Txikirekiko arreman oietan sinismen beroz dabilzanean, denborale gaiztoetatik babesturik arkitzen gera; eta, zabartu edo aztutzen geranean, abisu edo oroigarriak bialtzen dizkigu.

Orrelaxe baita gizonaren izatea. Danetik osatuta jartzen geranean, aztutzen gera Jainkoarekin; aztutzen gera auzokoekin; baita guraso, lagun eta erriarekin ere. Eta, arreman ori darabilkigunean, askozaz obeto bizitzen gera, besteren premiekin ere gogoratuz. Orixe baita giza-bizitzaren ardatza eta muiña.

Oraindik ere sinismendun gera. Eta sinismenak jarrai dezala indarrean, mundua mundu dan arte. Baiña gure aurrekoen garaietan, oraingo aldean, jende elizkoia eta otoitz zalea zala garbi ikusten da. Bearbada, orduan ere danak etziran gogo aundiarekin elizara joango. Baiña beste guztiak joaten ziran

garaian joan gabe gelditu ezker, gauza lotsagarria izango zan, orain askorentzat joatea dan bezela.

Ernio-Txikirekin asi naiz, eta agertu dizutet bere sorreraren zergatia edo arrazoia, eta Aiako erriak beregan dauzkan sinismen eta uste onak.

Ernio-Txikiz jabetu nintzan  
oso gaztea nintzala,  
eta geroztik mendi gain orri  
beti badiot itzala.  
Estualditan ain izan zera  
babestzaille serbitzala,  
gure eskariak zure bitartez  
Jainkoak entzun ditzala,  
arri jasa ta ekaitzetatik  
luzaro gorde gaitzala.

Aiako erri sailletan kokaturik dagoana da Pagoetako mendia ere. Laurgain eta Altzola bi auzo oien mendi saillekin osatzen da Urruzumeko gaillurra edo tontorra. Gain ortan daude beste gurutze aundi bat eta babesleku bat, *Urruzume Aterpea* deitzen zaiona.

Garagarrillaren lenbiziko igandean ospatzen da Pagoetako jai edo billera eguna. Noiz edo nola sortua ote da billera egun ori? Gaurko gazte askok, eta zarren batzuek ere bai, galde lezateke gauza ori.

Zarauzko abertzaleak, eta aiar batzuk ere bai, omen ziran gurutze ori egiten lagundu edo parte artu zutenak. Guerra aurreko urtean, 1935'garrenean, Zarauzko abertzaleen artetik sortu omen zan Pagoetan gurutzea zutitzeko amets ori. Baiña orduan nola etzegoan gaurko erreztasunik gurutzea egiteko gauzak jasotzeko, ortarako Aian billatu zituzten itzai eta

idiak; eta batak besteari lagun egiñez, zutitu omen zuten gurutzea.

Onespen eguna, urte artako garagarrillaren 2'a, igandea gertatu omen zan; eta orduantxe onetsi. Eguerdiko amabietan, meza santua eta ondoren onespena. Gero jarri omen zituzten ikus-festa geiago ere: dantzari txikiak, itzaldiak eta Basarri, mutil gaztea, bertsotan. Gurutzgintzako zuzendariak eta Zarauzko abertzale jendeak Sarobeberri baserrian omen zeukaten bazkaria enkargatua, eta erromeria ere bai.

Goizetik oso giro ona eta jendea izugarri bildu omen zan egun artan Pagoetako gaiñean. Baiña meza denboran goibeltzen asi omen zan; eta, ango lanak bukatu eta bazkaltokira bitartean, izugarrizko trumoa eta euri jasak arrapatu omen zituan.

Ez dakit zergatik. Baiña garaia dalako edo lenengo urtetik orrela asi zalako, Pagoetako igande ortan eguraldiak ia urtero orixe egiten du: goizetik giro ederra, eguerdi aldera lainotu, eta gero trumoa eta euri jasa.

Orain lau urte ere, 1987'ko Pagoetako jai ortan, baztarrak bapo astindu zituan. Goizetik trumoi-eguzki beroa, amarrak aldera aize nastua indartsu, eta gero, lau t'erdiak inguruan, izan zan aize bildurgarria. Baztarretan oker aunditxoak egindako otsak izan ziran. Lau edo bost ildako eta zenbait gauza eta zugaitz ere purrakatuta utzi zituan. Azkenean ikusten nago jai ori aldatu bearrean izango gerala.

Gauza guztiak izaten dute beren sorrera, eta Pagoeta mendiko orrek ere orrelaxe eman zuan bere lenengo pausoa.

Tartean, urte batzuetan, izan zuan politikarenga-

tik etenaldi koskor bat. Baiña berriro oso indartsu jarraitzen du, eta jarrai dezala aurrera ere Pagoeta gaiñeko euskaldunen urteroko billera orrek.

Orain sei urte, 1985'eant, urrezko eztaiak izan zituan Pagoetako gurutzeak, eta orduan bertso auk eskeiñi nizkion:

Berrogeitamar igaro dira,  
urte ortan det entzuten,  
Pagoetako gurutze ori  
nola zutitu ziguten.  
Garagarrillan bigarreanean  
onetsirik jarri zuten,  
derrigorra zan gertakizun au  
ongi ospatzea aurten.

Urrezko eztaiak ospatu ziran  
egun bereko igandez,  
Pagoeta gaiña goiz-goizetikan  
dana betea zan jendez.  
Aita Agirretxe meza emale,  
ta bertan, itzaldi trebez,  
eskatu zuan oitura orri  
jarraitutzeko mesedez.

Erakundeko bat mintzatu zan  
gurutze orren kondairan,  
esan zun egin zuten gizonak  
zein eta nungoak ziran.  
Ildakoentzat otoitz txiki bat  
eskatu zuten segiran,  
malko galantik ikusi nuan  
ixuritzen nere jiran.

Bertsolarien saioa gero,  
ezin ziteken bestela,  
era ontako egun batean  
jakiña bear dutela.  
Ta Otamendik eta Egañak  
jai ortan egin zutela,  
gure Basarri txalogarriak  
lenengo artan bezela.

Bazkaldutzero Aiara jetxi  
bat egiñikan bi erri,  
Zarauzko alkate jaunak gero  
gurutzgintzan oroigarri  
plaka eder bat eskeiñi zien  
maian zeuden ainbat zarri,  
danen izenez Beristain jaunak  
eskuetan zuan jarri.

Errien ordezt bi alkateak bai  
ederki erakutsi:  
Zarautzek erregali Aiari  
ta Aiakoak Zarautzi.  
Anaitasunezko lokarri au  
arren ez dedilla autsi,  
gizalegezko arremanari  
olaxe luzaro eutsi.



## GERRAREN EMAITZAK

Nere bizitzan lenengo gogoratzen detan gertakizunik aundien eta entzutetsuena, 36'ko guda edo gerratea izan zan. Nik iru urtetik laura nituela piztu zan, baiña gerra aurreko oroitzapenekin asiko naiz.

Nik nere gurasoei entzun izan nien, edo esaten zuten, guda edo gerrate bakoitzaren aurretik beti izaten dirala alako ezaugarri batzuk. Eta orduan ere alamoduzkoak izan ziran.

Guda asi zan baiño illabete pare bat lenago, illunabar batean, Aiatik begiratuta, Zumaia gaiñean odei antzeko gauza gorri-gorri bat agertu zan; eta itxas gaiñean piskanaka-piskanaka Frantzia aldera ezkutatu zan. Askotxo omen ziran ari begira bildurrez egonak, eta odol ixurtzea adierazten zuala esan zutenak ere. Ez dakit bada ez bada esan zuten, ala zerbaitek barrundik bultza eginda; baiña ala gertatu zan.

Beste goiz batean, bederatziak aldera gutxi gorabera, ez dakit gerra asitako egunak ziran ala zerbait lentxeago, sartaldetik sortaldera Argin baserriaren gaiñetik eta gertuan, suzko bola bat isatsarekin, ko-

meta baten antzekoa txikian, igaro zan, Argin-muño gaineko tontorra bai jo ez jo. Bi bizitzetakoak begira egon giñan zer gauza ote zan ura. Baiña geiago iñork etzuan aztarnarik eman. Ara nola ziran gerra aurreko gertakizunak.

Nik nere guraso eta senide zarragoei entzuten nien:

– Gerra asi omen da.

Amak negar egiten zuan. Aita ere bildurrez. Senide zarrenak ere alamoduz egongo ziran. Bai-baizekiten gerra batek ekarri zezazkean alderdi negargarriak: gosea, gorrotoa, odol ixurtzea eta abar eta abar. Baiña neretzat etzuan ezer esaten. Ez bainuan ezagutzen gerraren zoritxarrik. Obe gainera. Gaur neri ere, orduan nere gurasoei bezelaxe, bildur geiago emango liket. Komeni bada, ez dedilla geiago gertatu olakorik.

Aiara, lenengo, *gorriak* deitzen zieten gudari edo soldaduak sartu omen ziran. Abuztuaren 7'an esaten zuten gure aurrekoak. Baiña Aiara sartu aurretik, Belkoain, Zarate, Andatz-zarate eta Zelatun gaindegi oietan egon zan guda edo frentea; eta Aiatik toki oietako tiro otsak oso ondo entzuten ziran.

Aian, orduan erretore, On Leandro Urretabizkaia deitzen zan bat zegoan. Len Afrikako gerran kapillau ibilia eta estutasun asko pasea nunbait izaki, eta izugarrizko bildurra omen zion gerrari. Gure aitari, eta beste geiagori ere bai noski, ala esaten omen zien: gain samarreko etxeetan bizi ziranak, beeko zuloetan zeuden baserrietara jexteko, gerra bertara iritxi baiño len, gero etzala denborarik izango ta.

Gaur Agorregiko ola edo *ferrería* dagoan ondoan,

ortik eun metrotara, Arginberri baserria zegoan orduan, eta geroxeago ere bai. Orain dala urte batzuk Diputazioak artu zuan; eta ordurako ondatu samarra zegoalako, bota edo kendu egin zuten. Gaur ezkutatua dago. Ez dago Arginberri baserriaren aztarnarik. Nere aita zana ere antxe jaio omen zan, eta bere aurrekoak Elordi baserrikoak omen ziran. Gaur biak desegiñak daude.

Baiña Aiako erretorearen gertakizunaren ariari jarraituz, ara zer ondoren beltza etorri zitzaion. Orduan Arginberri baserriko nagusia zan Xanti Urangari abisoa bialduta omen zegoan, gauren batean bildurraldi edo sustoren bat emango ziela.

Ikusten danez, erretorea, Aian bera bizi zan etxetik Arginberri baserrira iges egiteko prest jarria zegoan; eta, iñor errian konturatu gabe, gau erdi aldera noski, irten eta gaua. Bidea ere ondo ezagutzen ez, eta Argin baserriaren inguruko baso tartean bideak galduta edo erabat nastuta, gora eta beera asia izango zan.

Argingo zakurra, katean egoten zana, erabat kartarrotuta gelditu omen zan, nunbait arek sentitzen zuan batenbat nola zebillen, eta gau erdi ondorenean asi eta goizaldera arte zaunka eta zaunka ari zala. Azkenerrako, zaunkarik egin eziñik mutututa gelditu omen zan *Troski* zakurra.

Argin baserrikoak, berriz, zakurra ala sentitu zutenean, zerbait bazala pentsatu zuten, patrulla zelaritarien bat edo antzeko zerbait, eta bildurrak aidean gau osoan, noiz baiño noiz ate joka asiko ote ziran.

Onela gaua igaro eta gure beste bizitzako aita, Felix Arrillaga, jetxi omen zan Anketa deitzen zioten soro barrenera; eta, an zebillela, ikusi omen zuan,

soroaren azpiko aldean zegoan zelaian, gizona etzanda belar tartean. Lenbizitik, batenbat lo ote zegoan pentsatu eta inguruan anka otsak ateratzen ibilli omen zan. Baiña azkenerako antzeman omen zion ilda zegoala.

Orduan gure aitarengana etorri omen zan, baiña zein zan ezagutu gabe. Gertatzen zanaren berri gure aitari eman zion, eta orduan biak jetxi omen ziran, gizon ura ilda zegoan tokira.

Era ontan ikusi zuten: eskubiko besoa azpira antxean artua omen zeukan; ezkerrekoan karpeta bat, eta makilla aldamenean. Galtza *mil rayas* eta txaketa. Gaiñontzean etzioten ezer berezirik nabaitu. Baiña begira saio bat egin arren, oraingoan ere ezagutu gabe itzuli ziran.

Al zituzten azterketa guztiak egin ondoren, andik etorri eta biak errira jo zuten, gertatzen zanaren berri emateko.

An, ordurako, erretorea galdu zala zurrumurrua zabaldua omen zegoan; eta, kontu aietaz jabetu ziranean, zekiten guztia kontatu zioten juezari. Bereala jaun arek, gazte batzuk angarillarekin arturik, bi berri-emaleak gidari zirala, beren bideari ekin zioten.

Gogoan daukat oraindik ere, Argin-muño gaiñetik beera jende taldea nola jetxi zan, angarillak edo kamilla artuta, ildakoa zegoan belardi artara. Argin baserriko batzuk ere jetxi ziran laguntzera.

Jueza gorputzarengana iritxi zanean, aurpegiz gora itzuli eta patriketako paperak edo agiriak ikusi zizkionean, zein zan agertu ere bai, esanez:

– Au Aiako erretorea da.

Ori entzutean, arrituak izan bear zuten, gizon ura paraje artan ilda arkitzean.

Jarraian, gazteak bizkarrean angarillan artu eta berealaxe etorri ziran gorputzarekin Argin baserriko atarira. Lurrera eratxi ta antxe eduki zuten. Mandire zuri batekin estalia ekarri zuten, baiña an kendu zioten une batean, nai zuanak ikusi zezan.

Ni artean mutiko txikia nintzan; baiña gogoratzen naiz aurpegiaren alde bat, aren gaiñera erorita egona zegoalako-edo, beltz-gorri odol kolorea artua zeukala gizarajoak.

Itxoin aldi bat egin ondoren, gazteak gorputza angarillaren gaiñean artu eta erriko depositura eramán, olako gertaeretan legeak agintzen duan bezela.

Urrengo egunean edo andik bi egunera, gai onetan ez daukat ziurtasunik, baiña nik nere etxekoei entzun nienez, illetak aundikiro ospatuak izan ziran, naiz eta garai gogor eta estuak izan. Gaiñera, etzan arritzeko, San Esteban parroikiko buruzagia bera izanik.

Gero, erretore orren anai bat Aian bizi zan. Bizarduna zan eta Joakin *Bizar* deitzen zioten. Anai ori argiña izan ofizioz; eta, andik puska batera, berak egin zuan anai zanaren oroigarriko gurutze antzeko arria. Azkue baserritik Argin baserrirako bidean badago Azkue-zabaleta deitzen dan bide gurutze bat, Aiatik Oriora dijoan bidean, eta antxe jarri zuan gurutze ori. Etzan ildako tokia, baiña ortik jende geiago igarotzen da, eta arrazoi orrengatik nunbait: oroigarri ura ikustean, norbaitek otoitz egingo zuala pentsaturik, seguru asko. Gauza orrek bultzata ausartuko zan ori egitera.

Gurutz-arri zabal artako itzak era ontan daude: «*Aquí falleció Don Leandro Urretavizcaya, el día 2 de Septiembre de 1936. R.I.P.*».

«Emen il zan» esaten du eta gezur txiki bat ortan-  
txe jarri zuan. Baiña zergatik egin zuan dakigun ez-  
kero, barkatzeko modukoa dala uste det nik. Gaur  
eskela guztietan jartzen da «bere animaren zuzenda-  
ria»; eta ori edozeiñek daki amarretatik bederatzitan  
gezurra jartzen dutela, oiturazko gauza bat besterik  
ez da ta. Onekin neurturik, lengo ori etzan oker  
aundia. Gaur ere antxe dago gurutze ori.

Afrikako gerran bala tartean bizirik atera zan  
ura, baiña oraingoan balak iritxi baiño lenago il. Ara  
nola izaten diran gauzak. Baiña gerraren zurrunbi-  
lloak irentsi zuan gizarajoa. Eta gerra artan Aian  
ildakoetan zein izango lenbizi eta erriko erretorea  
alajaiña. Bildur aundia zuala gerrarentzat eta bazuan  
arrazoirik asko. Esan zitekean etorkizuna aurrez iku-  
sita zeukala. Ala gertatu zan beintzat.

Apaiz jaun orrek len proatua  
gudatearen morrontza,  
eta dardaraz azkar jarri zan  
entzutean tiro otsa.  
Danak batera sortu zitzaizkan  
bildur, ikara ta lotsa,  
gauetz etxetik iges asi ta  
bidean lertu biotza,  
gerraren bidez Aian lenengo  
gertatu zan eriotza.

Zaratetikan asi zanean  
tiro eta iskanbilla,  
Argin-berrira abiatu zan  
bere babes-toki billa.  
Bidea galdu, gaiñera gaua,  
sorturik ainbat naspilla,

estutasunez belardi baten  
bertan gelditu zan illa,  
gerra igesi zijoan ura  
pakean bizi dedilla.

Lenago aitatzen nuan nola *gorriak*-edo abuztua-  
ren 7'an iritxi ziran Aiara. Gero, erretorearen eriotza  
nola izan zan adierazi det. Orain goazen ortik aurre-  
ra, gertatu ziran gorabeeren berri ematera.

Iraillaren 20'an sartu ziran Aian nazionalak edo  
Francoren gudariak, eta etziran une gozoak izanak.

Egun aietan, erriko jende elduak erri zai edo  
guardia egitera eramaten zituzten. Gure aita zana ere  
orduan antxe. Ni, beste senide zarragoekin, Agorregi  
gaiñeko barrutian gertatu giñan. Aiek belar jiratzen  
eta ni jolasean nenbillela, burruna edo zarata bat asi  
zan: *run-run-run*. Garai artan nola automobil gutxi  
ibiltzen zan, ni gora begira zer azalduko ote zan; eta  
non agertzen dan egazkin edo abioia, eta nere anai  
Andresek esan zuan:

– Reketeak Aian sartuak izango dituk, eta goazen  
emendik etxera azkar.

Abitu giñan, nik anaiari eskua eman eta al zanik  
azkarren. Asi ziran Aia gaiñetik tiro otsak, eta gu ere  
aguro betik gora. Argin baserritik bide edo estrata  
barrenera iritxi giñanean, an zetozen *gorriak* deitzen  
zitzaien gudariak edo soldaduak bidea betean. Ango  
bota otsa! Jakiña, Aia gaiñeko mendietatik ari baizi-  
ran besteak, *gorriak* igesi anak astindu bearra zeu-  
katen.

Nere anai Andresek emezortzi urte edukiko zi-  
tuan orduan; eta, ura ikusi zutenean, soldaduak asi  
zitzaizkion bidea erakustera aiekin joateko esaten.

Baiña anaiak aitzaki au jarri zien: nola ni mutiko txikia nengoan, eta bakarrik uzterik etzeukala. Nundik nora joan bear zuten erakutsi zien eta libre utzi zioten.

Gu bereala etxean giñan. Etzan giro kanpoan egoten. Danetik tiroa entzuten zan. Aian kanpakiak jotzen eta *gorriak* igesi.

Gure aitona zana ere nunbait ere, soroan-edo, kanpoan lanean omen zan. Ibilpidea ere ondatu samarra; eta, egiñala guztian etxera zetorrela, etxe aurreko erregesagarraren azpian itxoin aldi bat artzen zegoala, *zasta!*, sagarraren gerrian bala bat. Orduan-txe laster sartu omen zan etxera.

Ondoren, danok beste bizitzara aldatu giñan, bi bizitza baiditu Argiñek, eta nola alderdi ura tiroetatik babesago egiten zan. Danok antxe bildu ta erreza-tzen ari giñala, atari aldetik deadarka asi ziran. Zer ote zan bildurrez, beste bizitzako Andres atera zan, eta reketeak edo dalako gudari oiek, armaz josita, an barruan gorriak gordeta zeudelakoan. Orduan mandire zuri bat leiotik zintzilik jarri eta alaxe aldegin zuten.

Baiña gorriak aldegin baiño lenago, baziran gauza geiago gertatuak. Andatza, Zarate, Andatz-zarate eta gain oietan frentea zegoan garaian, atzetik beste esi bat beti edukitzen omen dute olako tokietan; eta Aiatik asi eta goraldera, eta Orio alderako gaintxoetan ere bai, danean egon omen ziran gorrietako soldaduak.

Batzuek, Aiako kanposantuaren barruan, antxe omen zuten parapettoa; besteak baserrietan: Ortegi, Sarobe eta Odoltsun. Oietan babestuta egon omen ziran, oillo, ardi eta eta arrapatzen zuten gauza guz-



tia janez. Eskatzen zutena eman egin bear. Ordena gutxiarekin ibiltzen omen ziran. Askotan mozkortuta.

Azkenean, oso urrera sartu omen ziran reketekak. Orduan Sarobe eta Ortegi baserrietan bazkaltzeko eltzekada aundiak omen zeuzkaten; eta, etsaiak bertan ikusi zituztenean, jateko guztiak arrika tira eta aldegin omen zuten, al zuanak beintzat. Ba omen ziran tiroz bertan ildakoak ere.

Jatekoak bota zituzten aiek, neri auxe gogoratu arazten didate: «gerrako esaera da: etsaiari urik ere ez».

Eraso artan ildakoak dexente izan bear zuten. Gure auzoan dagoan Gorostiola baserrian ere, gorririk, igesi zijoazela, zauritutakoak iru utzi omen zituzten, zaintzeko esanda. Gorostiolakoak ere bildurtu ta Aian zeuden nazionaleri abisatu omen zieten nola erituak zeuden. Etorri omen zan patrulla bat. Lenbizi sendaketa edo kura egin, eta gero kanposantura eraman eta antxe il omen zituzten.

Ara nola izaten diran gerrako legeak eta gorabee-rak. Gaur ere, gerra dabillen tokietan, orrelaxe egongo da justizia. Kultura eta aurrerapenak badaude, baiña gerra beti gerra. Orrek ez du errukirik eta barkaziorik.

Orrelaxe izan zan. nik mutikotan ezagutu nuan 36'ko gerratearen aserako itxumustu bildurgarria.

Nere anai zarrena Juan zan; eta, amazapi urte zituala, gutxi gorabeera, kaminero edo kamioetako lanean asi omen zan, Diputazioaren mende. Oriotik Txikierridira bitarte ortan omen zuten lantokia.

Aiatikan ere bost edo sei mutil joaten omen ziran. Goizeko seirak aldera jeiki, eta ordubeteko bi-dea Oriora. Jakiña, orduan danak oiñez ibiltzen zi-

ran. Ez baizegoan oraingo konturik. Orio inguruan lan koska baldin bazuten, oiñez bertaraiño. Baiña bein Agiña aldera urreratuta lantokia jartzen zitzaie-nean, Oriotik Agiñarakoa trenez egiten omen zuten.

Orrela iru bat urte lanean ibili ondoren, nere anai Juan eta beste lagun aietako batzuek, dalako gerra ura asi zanean, len zeukaten soldata irabaztea nai baldin bazuten, abertzale edo nazionalistak aien aldetik gudari joatera beartu omen zituzten. Ala, joan omen ziran gudara. Nik ezagutuko nuan etxetik joan zanean, baiña gero aztu zitzaidan aren irudia nolakoa zan.

Gudari bezela lenbiziko asi ziran lekua, Andatz-zarateko gaiña edo inguru ortan izan omen zuten. Ortxe, burruka egiñez, eutsi omen zioten puska batean. Baiña gero, rekete edo nazionalak esia edo frentea autsi zutenean, Juanen alderdikoak aurrera igesi eta besteak uzetaka atzetik. An jo omen zuten al zuanak al zuan tokira. Bizia maite zuanak joan bearko. Gero, gudari oiei *aurrera joandakoak* deitzen zitzaien.

Andres anai bigarrena ere andik laster eraman omen zuten soldadu, baiña ura nazionalekin, Franco serbitzera.

Gero, Juan, anai zarrena, Bilboko erasoaldi aietako batean arrapatu edo prisionero egin omen zuten, eta Logroñora giltzapera eraman. Anai Juan barruan eta Andres kanpo aldetik bera zaitzen gertatu omen ziran. Ara nola izaten diran gauzak.

Gerra bukatu zanean edo ondorenean, anai Andres noizbait etorri zan etxera. Baiña Juanek espetxean jarraitzen zuan, Bilboko eskolapioetan. Nik, len esan bezela, ez neukan arrastorik nolakoa zan

ere. Gure ama zana, beste norbait lagun artuta, noizk beinka joaten zan bisita egitera, zerbait eramanez; eta gero oso goibelduta itzultzen zan etxera. Jakiña dago, ba: semea kartzelan nola gelditu zan oroitze utsa, naikoa zan ama baten biotza samintzeko, errurik gabe zegoala jakinda gaiñera.

Iru urte ta geiago espetxean egin ondoren, askatasuna eman zioten nere anai Juani. Orduan arek ekarri zuan poza, eta nik ura ikusi eta ezagutu nuanean artu nuana, ez dago liburu batean agertzerik.

Gero, barruan egon zan denborako gorabeerak kontatzen zizkigun, nola askotan etsita egoten ziran beren bizitzaz. Noiznai gau erdi aldera gizon mordoa artu eta iltzera eramaten zituzten. Eta, jakiña, an zeudenak zer pentsatuko zuten? «Gure txanda ere laster izango dek». Baiña etzan ola gertatu, Jaungoikoari eskerrak. Oso ondo etorri zan etxera.

Ni beti nere anaia noiz etorriko zai egoten nintzan, eta alako batean iritxi zan egun ura ere. Nik iru urte ta erdi nituala aldegiña omen zan etxetik anai Juan; eta, etorri zanean, nik zazpi urte nituan. Ez genduan alkar ezagutzen. Ortatik pentsa, alkartu giñan eguna nolakoa izango genduan.

Geroztik amaika kontu, gertakizun eta istori berari entzuten egonak giñan sendi osoa.

Beste istori edo gertakizunen artean, orain agertuko dedan au oso gogoan artu nion. Bilbon, eskolapioetan zeudela, an egin baizuan saiorik aundiena, ia gauero jende mordoska bat kamioietan artu; binaka besoetatik alkarri lotu kate batekin; gero, kamioiaren alde banatan, aurretik atzera burni barillak, eta eskuetako kate ura burni ari lotu eta Artxanda aldera afusilatzer a eramaten omen zituzten.

Gau batean, negua izan eta otz aundia egiten zualako, guardiko bi gizonak txoferraren ondoan sartuta omen zijoazen; eta, jakiña, presoak beteta kamioia. Aldapa aundia eta oso mantxo omen zijoan; eta atzeneko bikoteak, burni artatik katea nolabait askatu eta iñor konturatu gabe iges egin omen zuan.

Preso aietako batek an inguruko baserri batean osaba eta lengusuak eduki, eta antxe eskuetako kateak moztu; eta osabak erakutsi gordelekua, aitz zakar batean zegoan kueba bat, eta jatena eramateko ere berak agindu. Ara nola izan zuten salbatzeko modua.

Baiña gero, kamioia iltzen zituzten tokira iritxi zanean, asi dira danak errenkadan jartzen, eta bi preso falta. Ingurumari aiek danak miatu ta aztoratu omen zituzten, baiña arrastorik atera ez.

Esaten omen zuten, presoak aldegin ezker, guardian zeudenak berak iltzen zituztela. Ez dakit zer egiña izango zuten guardiekin. Baiña au ala gertatu omen zan, andik urte batzuetara gure anai Juanek jakin al izan zuanez.

Nere anai Juan kartzelatik etorri zan ogei ta amazapi illabete bertan egin ta gero; eta berriro berealaxe *trabajadoreak* deitzen zitzaion talde ortara eramán zuten, eta an beste saio bat egin eta noizbait etorri zan askatu edo libraturik etxera.

Etorri ondoren, zerbaitetan ogi billa asi bear, eta lenengo Zarauzko Aitzeko arrobian ekin zion. Argin baseritik erten eta ordubeteko bidea gutxienez oiñez. Orrela urte pare bat ibili ondoren, Eibarrera esnetan asi zan. Zarautza automobillean jetxi eta gero trenean Eibarrera eramaten zituan esneak.

Orrela, egun batez, esne banaketa edo partiketa

egin ondoren, taberna batean zerbait artuz omen zegoan anaia, eta beste aldeko baztarrean ikusten omen zuan begi zearka berari begiratzen zion gizon bat. Nere anaiak, aren arpegia ikusi eta berekiko esaten omen zuan:

– Afusilatu gabea izan balitz, gizon orixe Antonio kartzelan nerekin egondakoa zala esango nian. Baiña beste norbait izango dek.

Orrelaxe bere artean pentsatzen zegoala, dalako gizon ori altxa eta etorri omen zitzaion; eta, bizkarrean eskua jarririk, esan omen zion:

– I Juanito izango aiz?

Juanito esaten baizioten kartzelan. Orduan nere anaiak, ezeztatuta edo arrituta, ala erantzun omen zion:

– I Antonio ez aiz bada izango?

– Bai, motell, bai. Ala nauk.

Orduan nere anaiak:

– I illa intzalakoan nitxeon, motell.

– Ez, Juanito. Bizi nauk, Jainkoari eta gure osabari eskerrak.

Orduan konta omen zizkion gertatutako istori guztiak. Gozatu omen ziran uste gabeko billera artan. Ura omen zan nere anaiak, beste batek esanda, sekula sinistuko etzuana. Berarekin gertatu zalako, gauza guztien berri jakin zuan. Nik ere poz aundiarekin jartzen det orain ori guztia.

Lenago gerrako gorabeerak aitatu ditut: nola anai zarrena, Juan, aurrera joan zan; gero, kartzela eta trabajadoreetan ia lau urte igaro zituala; eta alako batean libratu eta itzuli zala etxera.

Asera batean aitatzen nuan nola anai bigarrena

ere, Andres, gerrara joan zan, eta au nazionalekin edo Francoren gudari joatera beartu zuten, emezortzi urterekin gaiñera. Gaur ere gaztetxo iruditzen zaigu, eta garai artan mutiko batzuk ziran adin orretan, ezer ikusi eta ikasi gabeak. Itz batean esateko, baserrietatik iñora atera gabeak. Baiña etzegoan bar-kaziorik. Etxean premia eta miseria bazegoan ere, joan egin bear. Ori baita gerrako legea.

Lenago esan det ezer gutxi ikasiak gertatuko zira-la. Baiña, ondo pentsatzen jarri ezkerro, gaurko karrerako asko baiño bizimoduan obeto zailduak eta ikasiak egongo ziran, eta gerrarako ere etziran txar-ragoak izango.

Gerra batek izaten dituan alderdi txar guztiak, aiek ere jasan omen zituzten: bildurra, gosea, otza, zikiña eta abar eta abar.

Erasorik txarrenak izan ziran tokietan ere an gertatu omen zan. Besteak beste, Teruelkoa izan omen zan bildurgarria: elurra eta izotza, emezortzi gradu uts azpitik, eta antxe gau eta egun, goseak eta otzak iltzeko zorian. Ondoena zeudenak orrela, eta beste asko eta asko illak; eta beste mordo bat, berriz, otzarekin kangrenatu eta anakak moztuta, betirako ondatuta gelditu ziranak. Zenbat olako izaten duan gerra batek!

Gero, gerra puska bat aurrera zijoala, Palentziko sailletan pake aldi txiki batean zeudela, lurrean bala berezi bat billatu omen zuten nere anai Andres eta bere lagunak, *explosiva* edo orrelako zerbait.

Arekin jolasean ibili ondoren, eseri eta kontu kontari omen zeuden dozen erdi bateko taldea-edo, eta aien artean bat Markiñako Berrosasi baserriko semea, Ansorregi izeneko mutil aundi bat. Neronek

ere argazkian ikusi izan nuan, eta alaxe zan: besteak baiño dezentez luzeagoa.

Eserita zeudela, etsaien aldetik etorritako bala batek talde artako bi arrapatu omen zituan: Ansorregi eta nere anai Andres. Ansorregiri zintzurra zulatu omen zion; eta Andresi, ezkerreko besoa pasa, biotzaren gainean arrasto txiki bat egin eta bala kolkoan gelditu omen zitzaion.

Bereala, anbulantzian artu eta abitu omen ziran. Biak gaizki, baiña Ansorregi azkenetan. Ospitalera irixterako odol-ustuta omen zegoan, eta berealaxe il zan. Mutil on askoa omen zan, baiña etzuan suerte geiegirik izan, gure iritzirako beintzat.

Nere anai Andres, berriz, ospitalean lendabiziko sendaketa egin eta, nola Naparroa pakean zegoan orduan, Iruñeko ospitalera ekarri omen zuten. Iruñera irixterako, oso gaizki jarri omen zan, balak egingdako zuloa gaiztotu eta pasmoak arturik. Egun batzuetan il zorian egon omen zan. Baiña pixkanaka-pixkanaka sendatuz tajutu zanean, berrogei eguneko atsedeen aldi edo permisoa eman omen zioten. Bai pozik etxera etorri ere. Gogoan daukat nik ere, fusil eta motxilla, dana kargatuta, nola etorri zan.

Andres etxera etorri zanean, eiz asko zan, eta gogoratzen naiz, eskopetarentzat kartutxo gutxi eta fusillarekin egabera eta antzarrei tiroka nola jardun zan.

Berrogei egun ustez saio aundia zualakoan etorri zanean, baiña konturatzerako pasa zitzaizkion, eta berriro azaldu egin bear.

Puska batean Donostiko kuartelean egon ondoren, ostera gerra zebillen tokira edo ingurura eramane omen zuten. Berriz ere aruntza eta onuntza ibili eta,

alako batean, batere uste etzutela, gerra bukatu zala berri ematen asi omen ziran. Sinistu eziñik lenbizitik, ala esaten omen zuten:

– Gerra bukatu? Makiña batentzat bai, bukatuko dek. Baiña bestela ez dek egongo erreza.

Azkenean egia, ordea: alaxe gertatu.

Gerra bukatu arren, ez omen zituzten bereala etxera bialdu. Beste urtebete ia soldadu, gosea eta miseriaren artean, igaro bear izan zuten.

Gerraren emaitzak orrelakoxeak dira, len, orain eta gero ere bai. Ezkerrekoak eta eskubikoak danak galtzaille uzten ditu orren erasoak. Egia da bai: gerrarik onena baiño pakerik txarrena ohea zala esan zuanak, etzeukan arrazoiaren paltarik.

Bi anai izan nituan nik, gerra gogor artan murgildu ta bete-beteian ibili ziranak. Berenak eta bi ikusi zituzten: gosea eta beste zenbait miseri. Kartzela ere bai, eta nola gaiñera? Baiña, azkenean, bizirik eta sano itzultzeko suertea izan zuten.

Zenbat ote ziran ildakoak? Eta beste zenbat bizi guztirako ondatuak? Orixe izaten da gerra batek erriari ematen dion ordaiña.



## ERNIOKO GURUTZE AUNDIA

Gaur egun Ernioko gurutze aundiak ez digu gauza geiegirik esaten. Igotzen gera gaillurrera, antxe geienak atsedean aldi bat artu oi dute zer bait jan eta edanez, eta bitarte ortan gurutzeari begiraturen bat egingo diote, baiña betidandik an balego bezela; edo, askorentzako, bertan sortutako gauza bat balitz bezela da Ernioko gurutzea.

Beste gauza askorekin gertatzen zaigu ori bera. Igaro edo pasatako guztia aztu edo ez balitz bezela gelditzen zaigu; eta, gizonaren bizitzako legea ori danez, aurrera ere ortantxe jarraituko du.

Orain sartu gaitezen artutako arira edo bidera. Ernioko gurutze aundia noiz eta nola egiña ote da? Asi nadin galdera orri erantzuna ematen: ortarako sua nondik sortu zan; nolaz eraman ziran bere zuzenbideak; nortzuk izan ziran geienbat bultzatzen; zenbat denboran zutitu zuten; zenbat kostatu zan; nola ordaindu zuten; zenbat arazo eta eragozpen izan zituzten; eta abar eta abar.

1947'ko urtea zan. Garai artan erri guztietan ziran Luistarrak eta Mariaren Alabak. Aian ere baziran,

eta indarrean gaiñera. Orain norbaitek galde lezake: «Zer edo nortzuk ziran Luistar eta Mariaren Alabak?». Orduan, amabi urterekin komunio aundia esaten zitzaiona egiten zan, eta bide batez sartzen ziran neska eta mutil danak bazkide edo kongregazio ortan. Talde ortakoen izena zan ori, eta oso nortasun aundian egon ziran Euskal-Errian, gaur gauzak aldatuak badaude ere.

Luistarren lendakaria orduan Aian nere anai Andres zan; eta bere laguntzaille edo juntakoak, Blas Odriozola, Juanito Kamio eta Ramon Portitxa. Gaur kaputxino dago azkenengo au. Beste batzuk ere izan zitezken; baiña geienbat egin zutenak auek ziran. On Julian Legarra zan beren apaiz zuzendaria.

Nola euskaldunen artean oitura indartsua eta amets nagusia izan dan beti mendi gaillurrik goituenetan gurutzeak jasotzea, Andres eta bazkideko lagun danei ere gogo orixe etorri zitzaien. Alkarren artean egin omen zuten lenengo billera bat gauzak aztertzeko; eta, beren kezka eta zalantza guztien artean, egin zitekela eta egin bear zala erabaki zuten.

Andik bereala, erri maillako billera nagusia egin zuten, gaztediari beren ametsaren berri eman eta danen iritziak jasotzeko. Eztabaida askoren artean baiezkook irabazi zuan nagusitasun aundiarekin, beti bezela tartean bakar batzuk naiz-eta ezezkoak izan.

Baiezkoa geien batek eman zuan. Gurutzea egiteko asmoa ontzat artu zuten. Baiña urrengo pausoa nola zuzendu? Nonbaitetik asi egin bear zan.

Andresi gogoratu zitzaion, bere txiki denboratik asi eta beti lagun maite izan zuan On Jesus San Sebastian, Aiako semea, Asteasun orduan apaiz ze-

goan eta arekin gai ontaz itzegitea, eta zer iritzi edo zer bidetatik gauzak zuzentzen asi bear zuten galde-  
tzea. Eta, guztiaren berri On Jesusi agertu ondoren,  
ara zer erantzun zion:

– Aiatarrak bakarrik egin bearrean, zergatik ez  
Aia eta Asteasuko gaztediak, biak bat eginda?

Orduan, gai ontaz bildu ta itzezin ondoren, bi  
errietakoak alkar artu ta pronto jarri ziran. Zuzenda-  
ri eta batzordeetakoak erabaki au artu omen zuten:  
gurutze ori zutitutzea Ernioko gaillurrean; eta, sinis-  
men suak eta gaztetasunaren indarrak bultzata, bero-  
-bero eraso omen zioten, artu zuten erabaki ura lor-  
tzeko komeni ziran zuzenbideak egiten.

Nola gauza asko bear zan ortarako, lendabizi an  
eta emen ateak jotzen asi omen ziran, erri eta erbes-  
te. Baiña, beti oi dan bezela, erantzun ezberdiñetako  
jendea arkitu omen zuten: batzuek, purrustada egin  
eta kontu oiekin alde egiteko andik esanez; eta bes-  
teak, maitasunez artu eta uste zuten baiño esku zaba-  
lago erantzun zutenak ere arkitu omen zituzten. Da-  
netakoak baidira Jaunaren baratzan.

Ara nondik nora ekin zioten ateak jotzen: Aiako  
luistarren zuzendaria zan eta Anoetan larogei ta  
amar urte inguru zituala il berria dan On Julian Lega-  
rra, lendabizi Añorgara joan omen zan porlan fabri-  
kara. Bertako nagusi Errezola jaunarekin laguntasun  
aundia omen zuan; eta, zer asmo zituzten eta zer nai  
zuan agertu zionean, gurutzea egiteko bear zan por-  
lan guztia agindu omen zion Errezola jaunak. On  
Julian apaiza ez omen zan aserre etorria, naiko porla-  
na lortu zuanean.

Urrengo irten aldia Legazpiko Patrizio Etxebe-  
rriarengana egin omen zuten. On Jesus San Sebastian

apaiza, Asteasuko luistarren zuzendaria, eta Andres Lertxundi joan omen ziran, nola Ernioko muturrean gurutze aundi bat zutitzeko asmoak artu zituzten, eta artarako burnia nai zutela esanez.

Patrizio zanak (g. b.) oso ondo artu omen zituan. Bear zuten burni guztia izango zutela agindu ere bai. Gaiñera, berak erakutsi omen zien, gurutzea ondo egitea nai baldin bazuten, burniak nola edo zer eratan jarri bear zituzten. Orduan, On Jesus eta Andres oso pozik etxeratu omen ziran.

Burni, porlan eta bear ziran beste gauzak zuzendu ondoren, Ernioko muturrean gai artan zekitenekin azterketa bat egitea nai zuten: gurutzea egiteko lekua aukeratu, oiñarria nola egin, zenbat aundikoa, eta abar eta abar.

Gauza aiek danak zuzentzen asteko, uztaillaren lenengo igandea jarri omen zuten. Asteasuko eta Aiako bi taldek, danen ordezkari igo bear zuten egun ortan. Bi talde oiekin batera, beste bi gizon, Zarauzkoak, gurutzea egin bear zutenak, gai artako *teknikoak*. Bata Iñaxio Bidarte, eta bestea Pepe Zaikola; lenengoa etxegintzako nagusia, eta bere enkargatua bestea. Goian bitez. Pepe ori izango zan gero Ernioko gurutzea egingo zuana, Aiako Patxi Lertxundi lagun zuala. Garai artan biak jarduten baizirran etxegintzan.

Len esan detan bezela, uztaillaren lenengo igande artan, Asteasuko, Aiako eta bi zarauzarrak, bazkalondoan danak Iturriotzen bildu omen ziran, eta andik gora Zelatuna. An aurrez esanda omen zeukaten Antonio Aitzarte artzaia.

Zelatungo bi borda ere artzai orrenak omen ziran. Taberna ere eukitzen zuana. Gaiñera, Zelatun

eta Ernio mendiko buru edo nagusi bezela bera omen zan. Muga guztien berri ere orrek omen zekian; eta Ernion gurutzea egiteko baimena ere Errezilko udal-letxetik lortzeko itz emanda omen zegoan. Gauza oiek guztiak gogoan izanik, Aitzarte bera ere Ernio-ko gaillurrera joan arazi omen zuten.

Goiko muturrera iritxi ziranean, Zarauzko Bidarte eta Pepe asi omen ziran beren neurketak egiten, eta gurutzearen oiñarria ateratzeko tokia aukeratzan; eta, gauzak aztertu ondoren, esan omen zuten:

– Auxe da neurri auetako gurutzea egiteko tokia.

Orduan Antonio Aitzartek esan omen zuan:

– Toki ortan gurutzea egitekotan, nik ezin nezake baimenik lortu, Errezilko erri sailletatik kanpora dago ta. Sail ori Albizturkoa da, eta baimena andik lortu bearko dezute.

Ernioko gorabeerak ikusi eta jakin ondoren, jetxi omen ziran danak Zelatuna; eta Aitzarteren bordan, gazta ta ogia beste ardo pixka batekin artuz, egon aldi txiki bat egin eta beeraka abitu omen ziran.

Etxera bidean zetozela, erabaki omen zuten, Albizturdik baimena ekartzera aste artan bertan joan bear zala; eta alaxe egin omen zuten. On Jesus San Sebastian apaiza eta Andres Lertxundi izan omen ziran Albizturren; eta, alkate jaunarekin gai orri buruz izketaldi bat egin ondoren, gurutzea egiteko baimena eman omen zien. Oso pozik itzuli omen ziran On Jesus eta Andres.

Bi errietakoak lenengo Erniora igo ziran egun artan, goiko jira egin eta Iturriozko atarian beren ibillaldia amaitu aurretik, beste erabaki ontan oiñarritu omen ziran: uztaillaren 16'an gurutz bide gogorri asera ematea. Artu omen zituzten bear ziran neurriak, eta alkarri itz emanda agurtu omen ziran.

Uztaillaren 16'a iritxi zanean, goizean-goiz mutil gazte mordo bat Aiatik abitu omen ziran, Andres Lertxundik aurrez abisuak eginda zeuzkan bezela, atxur, pikatxoi, palanka, borra, aizkora, trontza, soka eta arrapatu zituzten trepeta guztiak bizkarrean artuta; eta, jakiña, lenbiziko pausotik oiñez –orduan ez baizan kotxerik eta motorrik–, bakoitza berrogei bat kiloko zamarekin, eta Ernioko muturra jo arte. Geienbat aiarra omen zan lenbiziko egun artan.

Iritxi omen zan ainbeste buruauste eta ainbat denboran gogoan zerabilkiten asmo ura egi biurtzen asteko ordua.

Ernioko gaillurrean, lenbiziko egun ortan, bi lan omen zeuden bearrezkoenak: bata, gurutzearen oiñarri edo zimendua artzeko zuloa egin, arriak atereaz; eta bestea, gurutzea zutitzen laguntzeko bear zan aldamia egiteko egur tantaiak inguratzea Ernioko aitz mutur ortara.

Igo zan mutil jendea bi sailletan banatu omen ziran. Batzuk, gurutzearen oiñarri zuloa egiteko arri ateratzen; eta, lan ura itxuraz egiteko, artan oitura zeukaten bi arrobi gizon eraman arazi zituzten: Anjel Arruti eta Iñaxio Ostolatza, azkenengo au illa. (G. B.) Beste mutil mordo bat laguntzen zutela, oso lan bikaiña egin omen zuten, naiz-eta bear zan ainbesteko zuloa egin gabe gelditu.

Beste mutil taldea, berriz, egur karraio. Ernio inguruan ez da pago txaraka edo pago motz batzuk besterik; eta pago oien adarrak oso proportzio txarrekoak omen zeukaten: iru bat metro luze tankerakoa, bi gizonentzat naikoa, mutur aldea bear zan neurrikoa jartzezkeroz, ipurdia oso lodia gertatzen baizitzaien. Baiña besterik nola etzegoan, zegoanare-

kin saiatu bear. Ura omen zan ibillera, ura, aitz mal-  
kar aietan gora, sokak erantsi eta pago adar aiek  
atera eziñik!

Bere zailtasun guztiarekin ere, illuntzerako tantai  
mordoa jaso omen zuten Ernioko muturrera, naiz  
toki txarretako lantegiak izan. Gazte jendea indar-  
tsua eta lanerako gogotsua jartzen danean, orrelako  
gauzak lortzen ditu.

Nola zuloa egiten, ala egur karraio, bietan lan  
aundiak egin omen zituzten. Baiña bietan geiagoren  
bearrean gelditu omen ziran. Egun artan lanean jar-  
dun ziranetako batek baiño geiagok esan omen zu-  
ten:

– Gaurko lan auek emen diran errezenetakoak  
baldin badira, dioten bezela, etziok gurutzea egiten  
erreza. Bukatu gabe gelditu bearko dik.

Lan zailak eta astunak izango ziran, eta garbi  
ikusten da ala zirala. Baiña etzuten asmatu etzala  
gurutzea bukatuko esan zutenak. An dago gurutzea  
zutik, egiñaren lekuko.

Lenengo lan egun gogor ura bi gauza aietan igaro  
ondoren, jetxi omen ziran bakoitza bere etxeetara.  
Zerbait atsedendu eta pixka bat aztu zanean lenbizi-  
ko egun artako tratu gaizto ura, andik bi egunera  
berriro igo omen ziran, Santa Marina egunez; eta  
orduan Asteasuko arrobi gizon sonatua zan Txomin  
Ibia jaso arazi omen zuten dinamita mordoa batekin,  
gurutze oiñarriko zuloa bukatzera. Egunaren buruan  
makiña bat tiro jaurti omen zuan. Bai oi u galantak  
egin ere. Baiña gurutzearen oiñarri zuloa bear zan  
bezela bukatuta utzi omen zuan. Baita bear ziran  
egurrak ere egun artan jaso omen zituzten gurutzea  
egiteko ingurura.

Ordura arteko lan guztiak gogorak izan baldin baziran ere, andik aurrera zetozenak ziran ortik onerakoak. Porlan, burni eta bear ziran trepeta guztiak kamioietan jaso omen zituzten Andatz-zarateko gainera. Baiña an bukatzen zan orduan bide zabal edo kamiorik gertuena, eta Andatz-zaratera bildu omen zituzten Irutegi baillarako edo Aiako erriaren goi aldeko idi pare mordo bat. Asteasu goi aldekoak ere bai omen ziran pare bat edo beste. Baiña geienak Aiakoak.

Jarri, al zuten gauzarik geien gurdi bakoitzean, eta danak goraka abitu omen ziran. Bai alai asko noski. Garai artako gurdiak, geienak txistulariak izaten ziran; eta beste amar bat itzai, danak orruz, batzuek aurretik «aida!», eta besteak atzetik aundiagorekin erantzunez.

Orrelaxe igo omen ziran Sain barrenera. Toki au Iturrioztik gora dago, Zelatunera irixteko kilometro bat-edo falta duala; gurdi bidea bukatzen dan lekua. Gaur ere alaxe dago bide ori.

Toki ortatik gora gauza aiek danak jasotzeko, Aiako Etxeta baillarako amabost abere omen zeuden idiak irixteko zai. Gurdietan jaso zuten guztia, gero andik Zelatungo Aitzarteren bordara abere aien bidez aldatu omen zuten.

Zuzenean Erniora jasotzea geiegi baizan egun artarako, lenengo eguneko lana Andatz-zaratetik Zelatungo bordara jasotzea izan zuten; eta ori ere etzan txantxetako lana, jaso zuten zama gogoan izanik: zazpireun kilo burni, irurogei ta amar zaku porlan, gurutzearen kaja egiteko olak eta beste zenbait gauza gogoratzen ez diranak.

Lan bikaiña egin zutena. Baiña danak bildurtzen



zituana urrengo alda aldia omen zan: Zelatundik Erniorakoa. Ura bai latza eta gogorra! Pentsatu besterik ez dago: pertsona sasoiko batek, bide ori igotzen, normalean berrogei minutu bear izaten ditu. Ez bide luzea dalako, baizik estua, traketsa eta bildurgarria izanik, eragozpen asko eta aundiak zeuzkan abereekin igotzeko.

Utsik igotzeko txarra baldin bazegoan, bizkarean zama jarri eta nolakoa izango ote zan? Edo nola igoko ote ziran? Orrekin zeukaten kezka eta buruaustea, eta etzan gutxiagotarako lantegi ari arpegi ematea. Baiña gurutzea zutitzekotan, etzeukaten beste biderik. Derrior aitz malkar artantxe gora igo bear.

Lendabiziko gurutzea egiteko burutapena izan zutenetik, amaika kezka eta lo galduak izango ziran. Baiña Zelatundik Erniorako bide artan gauza karraio ekiteko ordua iritxi zala konturatu ziranean, orduantxe bai kezka eta larria barruan bazutela kontatzen dute ango zuzendaritza zeramakitenak.

Pentsamentu onetxek ematen zien larritasuna: bilerak egin, gaztedi guztia gurutz lanetarako gertu jarri, porlan, burni eta beste gauza asko lortu, inguru guztietan beren asmoen berri zabaldu; eta Zelatundik Erniorako bide ori garaitzen ez bazuten, atzera egin bear. Dana galdua zeukaten. Lotsagarri gelditzen ziran jendearen aurrean. Orretxek ematen omen zien eztenkada gaiztoa, eta orretxek sortzen barrungo korapilloa. Etsai gogorra zeukaten garaitu bearra. Baiña, itxura danez, etzeuden aurrez-aurre proatu gabe uzteko. Ez orixe.

Asera batean, gurutzea egiteko gauza guztiak era ontan jasotzeko asmoa zuten: kamio edo bide zabale-

tik, al zuten bide guztian, idiak eta gurdiekin gauzak eramatea; eta idiak gelditzen ziran tokitik gorakoa, asto, mando eta beorren bidez Ernioko gaillurrera jasotzea.

Baiña Zelatundik gorako ori ain bildurgarria zala konturatu ziranean, onoko beste pentsamentu au bururatu omen zitzaien: nola gurutzea egiteko gai edo materialetan, gaiñontzeko guztiak batean baiño arlear edo ondarra bakarrik askoz geiago bear zuan, Ernioko muturrean bertan ori egitea gogoratu zitzaien.

Baiña, ortarako, arri jotzeko matxaka eta ura erabiltzeko motorra jaso bear. Orrekin sortu zitzaien beste arazoa, eta tresna oiek Erniora jasotzea etzan izango auntzaren gau erdiko eztula. Zelatundik Erniorako bidea abereentzat txarra eta bildurgarria baldin bazan, idientzat Bidaniko kamio ertzetik Erniora beren gurdi eta trepeta oiekin igotzea ba omen zan bestea bezin bildurgarri; eta, karraio ori lortu ziteken edo ez jakiteko, Errezil aldeko bi idi zale sonaturi deitu omen zioten, bidea ikusi eta beren iritzia eman zezaten.

Ibili omen ziran tokirik txarrenak zeaztasunez aztertzen; eta, zeuzkan zailtasun guztiak ikusi ondoren, esan omen zuten:

– Gu prest gaude lan orretarako. Baiña segurantz geiago izan dezagun, bi idi pare oietaz gaiñera beste dozena bat mutil jartzen badituzute guri laguntzeko, orduan bai, esan liteke seguru jasoko ditugula tresna oiek Ernioko gaillurreraino.

Orduan, gurutz lanetako ardura zeramakitenak, itzaien eskaerari baiezkoa eman zioten, oso pozik gaiñera: bear ziran mutillak izango zituztela idiei la-

guntzeko; eta matxaka eta motorra jasotzeko eguna uztaillaren 26'a izendatu omen zuten; goizeko seietan Bidaniko bide gurutzean idi eta gizon danak biltzeko, eta makinak ere ordu artarako an izango zirala.

Alkarri itz emanda, danak banatu omen ziran bakoitza bere tokira, lortuko zuten itxaropenez, baiña bildur galanta bakoitzak bere kolkoan zuala. Zer gertatuko ote zan?

Aurrez izendatu zuten bezela, uztaillaren 26'an, Santa Ana egunean, idi, gurdi eta gizon danak an omen ziran esandako ordurako. Motorra eta matxaka zerbait beranduxeago iritxi omen ziran. An omen zeuden, batzuk ogitartekoa jan eta ardo pixka bat edanez. Mutil jendea lasai antzean.

– Baziok naiko denbora. Laster jasoko dizkiagu –omen zioten batzuek.

Kontu oiek entzutean, Ernio azpiko bere jaiote-txean larogei ta amalau urterekin il berria dan Errementetei Errezilko itzaiak esan omen zien:

– Motellak, goizeko preskura au aprobetxatu bearko diagu. Gaur bero bildurgarriren bat egin bear dik.

Ori esan eta bereala ekin omen zioten igaro bearra zeukaten gurutz bide gogor ari. Puxka batean ondo joan omen ziran. Baiña asi omen zitzairen geroz eta zaillagoa. Antxe danak estu ta larri. Mutil mordo bat, idien buru edo uztarritik sokak erantsi eta tiraka; beste mordo bat, atzetik gurdiari eldu ta bultzaka. Izaten omen zituzten uneak, giza indarrez danak jasotzen zituztenak. Goizean laster iritxiko zirala esaten jardun ziran aiek ederki aldatu omen ziran.

– Emen gora idiak eta gurdia etziok igotzerik. Au eziñezkoa dek -esaten omen zuten gero.

Orduan etzan lengo konturik. Abitu ziranean, bi orduan aixa igoko zirala uste omen zuten. Gero ix-tilluak.

Errementetei itzaiak goizean bero aundia edo bildurgarria ote zetorren tankera ematen ziola esaten jardun omen zala aseran aitatzen nuan. Bai ederki asmatu ere. Ez dakit antzemanda esango zuan. Baiña bai bete-betean gertatu arek esandakoa. Gaur Aian bizi diran zarrenak ere ala aitortzen dute: aien denboran ezagutu dan berorik aundiena ura izan zala.

Eta jakiña: bi orduan aixa igoko zirala uste zuten aientzat, eta talde artako geientzat, uste zuten aldean denbora asko bear izan zuten, batez ere bi eragozpen auengatik: bata, pentsatzen zuten aldean bide zaila eta gogorra gertatu zitzaielako; eta bestea, oraindik ezagutu zuten berorik aundiena egin zualako.

Batzuek esaten dutenez, berrogei ta zortzi gradu-taraiño iritxi omen zan. Neri ere gogoratzen zait bero bildurgarria zala egun artan, eta utzi zituan seiñaleak berak esaten dute: intxaur sokolin, sagar ale, udare eta igali edo fruta guztiak, eta zugaitz edo arbola gazteen gerriko azalak eta ostroak, eta baita lardi edo sasi sail galantak ere, zearo erreta utzi zituan. Oietzaz gaiñera, baziran egun artako beroarekin bei bat eta idi bat ere itoak Aiako errian. Ara nolako oroigarriak utzi zituan.

Gertakizun auen berri eman ondoren, sartu gaitzen lengo gurutz bidera. Bi orduan mendeko lana uste zuten ura, zazpi ordu pasatzeraiño luzatu zitzaien; eta Keixetaren txabolak lenago zeuden tokiraiño edo gurutz bidea asten dan lekuraiño bakarrik jaso omen zituzten, dalako Santa Ana egun kiskalga-

rri artan, matxaka eta motorra. Gizonak eta idiak ia itoan gelditu omen ziran, gero Basarrik jarri zituan bertsoetako batean garbi ikusten dan bezela:

Santa Ana egunez arri matxaka  
goruntz jasotzen asirik,  
ia gelditu ziran mutillak  
arnas bideak itxirik.  
Urteko egun beroena zan,  
alako penitentzirik,  
gurutzeari esker mutillak  
gelditu ziran bizirik.

Lenago nion bezela, Santa Ana egun ura etzi-tzaien goizean uste zuten bezelakoa gertatu. Ordu pare batean Ernioko gaillurrean trepeta guztiak aixa jarriko zituztela zan aien itxaropena. Baiña zazpi ordu pasa eta aietatik erdiak, beroa, egarria eta ezi-ñarekin ia itoan, gorriak ikusi eta ala ere bear zan tokiraiño iritxi gabe gelditu omen ziran egun artan, eziñak menderatu eta etsi arazita.

Pentsatu besterik ez dago: an ibili ziran idi aiek, orduan etxera eraman eta goizeko irurak iritxi omen ziran mingaiñak ezkutatu zituztenerako. Jakiña, be-roak eta nekeak mingaiñak atera erazten dizkie idi eta abereei. Ontatik pentsa nolako tratua artuko zu-ten idiak eta aiekin ibili ziran gizonak.

Lenbiziko egunean lortu gabe gelditu baziran ere, andik iru egunera, uztaren 29'an, bete zuten beren egin bear gogor ura: Keixetaren txaboletatik artu eta Ernioko muturrera. Bide gutxi, baiña bai traketsa ta txarra.

Iritxi ziranean, Errementetei itzaiak, idien au-rreran jarri eta ala esan omen zuan:

– Ernio mendia dan ezkeroztik, gaur iritxi dek lenbiziko idi pareta eta gurdia.

Neronek ere ondo mintzatu zala esango nuke: apenas iñungo liburutan idiak Ernion izandako berri-rik ematen dutenik edo agertzen danik.

Bi gauza bildurgarri edo gogor aietatik bat lortu zuten: matxaka eta motorra Ernioraiño jasotzea. Etzan izan jolasa. Askoren biziak ibili ziran arris- kuan eta ozta-ozta. Baiña guztiak aztu omen zitzaiz- kien, lenengo egin bear ura bete zutenean.

– Oek emen zeudek! –pozaren pozez esaten omen zuten.

Lenengo gauza astun eta aundi ura lortu zuten arren, etzeukaten denbora pasa eta jolasean ibiltze- rik. Onespen eguna jarria omen zeukaten; eta, ordu- rako gurutzea bukatu eta pronto jarriko baldin ba- zan, jarraitu bearra zeukaten atsedetik gabe.

Lenago aitatzen nuan gurutz langintza guztian bi gauza zirala zuzendari jendeari bildur ematen zioten- ak: bata, matxaka eta motorra jasotzea, eta ori lortua zeukaten; eta orain, Zelatundik Erniorako gauza karraioa zeukaten, eta eraso egin bear.

Bereala asi omen ziran; eta egunero, amar edo amabost bat abere eta beste gizon pilla bat gelditu gabe jaso eta jaso, batzuek burniak, beste batzuek porlana eta besteak ura.

Abere batzuk, aulagoak ziralako edo alako bide- tan oitu gabeak zeudelako, erdi bidea egiterako igo eziñik gelditzen omen ziran. Beste batzuk oso onak ere bai omen ziran. Ernioko aitzetan gora gauza jaso- tzen ibilli zan mandazai eta abere bikoterik onena Aiako Kandido Etxeta omen zan. Jaso omen zuan zama galantik. Ao batez ala aitortzen dute ikusi zute- nak.

Burni eta porlan, sei milla kilo izango ziran gutxi gorabeera. Baiña ura jasotzea omen zuten bestea, lan asko eman ziena. Benetan arri legorra omen zan Ernioko muturrean txikitu eta jartzen zutena; eta orrela jasotako ura, berriz, gauza gutxi edo urria omen da.

Bein baiño geiagotan gertatu omen ziran, abereekin naiko urik jasotzen ez eta mutillak baldeak artu eta Erniotik zuzenean aitz tarteetatik Zelatungo gainera erten; eta an, goitik beera, Zelatun azpiko iturrira jetxi. An ura artu bizkarrean eta berriz gora. Orrelaxe igaro omen zituzten amabost bat egun gogorak benetan, bear ziran gauza guztiak gurutzea egiteko tokiraiño jaso arte.

Gurutzea egiteko jaso bear izan zuten aldamiok ere erakutsi omen zituan bereak eta bi. Lau egur illara bear izan omen zituan, eta azkenengo biak ematea ez omen zan txantxetako lana. Aitzaren muturretik zortzi-amar metro bidean igo, bi aldeetara bosteun metroko zertzena gutxienez, eta an aidean bezela lana egin bear; eta, aize pixka bat ateratzen bazuan, dana zegoan tokian utzi eta jetxi egin bear. Zenbat olako eragozpen, emen beetik eta pasa ta gero konturatzen ez diranak.

Amabost egun gogor aien buruan, gurutzea oiñarritik goiko muturreraiño bete eta jarri zuten, eta gero gogortzen amabi egunean utzi omen zioten. Birtarte artan, alperrik zeuden traste guztiak Erniotik ezkututzen jardun omen ziran.

Beste gauzen artean, matxaka eta motorra ere jetxi omen zituzten. Baiña oraingoan Alkiza aldera, aitzetan beera, giza indar utsez, sokak erantsi eta danak amiltzeko zorian. Ez omen ziran asarre, beeko

garomanetara jetxi zituztenean. Eskuetako larruak ederki kenduta gelditu zirala esaten dute artan ibili ziranak. Ura omen zan tratua, ura! Seireun kilotik gorako tresna bakoitza, eta alako tokia gaiñetik. Gaztetasunaren indarra eta adorearen bearra izango zuten, lan eta toki aietan ala ibili al izateko.

Gurutzea amabi egunean bere artan gogortzen euki eta gero, askatu omen zuten, eta bear zituan azkenengo ikutuak eman. Zuritu eta onetsi edo bedeinkatzeko pronto jarri bearra zeukaten. An zeuden ol, egur eta trasteak kendu eta bi egun bakarrik omen zituzten lan oietarako. Jakiña, dagonillaren ogei ta amaika zan, eta denbora gutxi gauza guztiak egiteko. Baiña danak alegiñez saiatu eta lortu omen zuten onespén egunerako bear zan bezela pronto jartzea.

Aldamioko egurrak eta beste zaborreri guztia kendu eta garbitu ondoren, aldarea jarri omen zuten gurutzearen aurrean; eta, gurutzearen beso banatatik zintzilik, lurrerañoko bi zapi edo ikurrin aundi txuri-urdiñak. Luistarren ezaugarria omen zan ikurrin ura.

Iritxi omen zan, bada, ainbat denbora lenagotik asi eta egin zituzten amets, buruauste, lan eta neke guztien ondoren, gurutzea onesteko egun zoragarri eta gogoangarri ura. Eguerdiko amabietan omen zan meza ematen asteko ordua. Meza Ernion emateko baimena ere, ez omen zan lendabiziko eskatu aldian lortua. Ederki saiatuta iritxia omen zan ura ere.

Nere anai Andresek dionez, egun artan goizeko lauretan erten omen ziran etxetik Erniora lau senide, bi anai eta bi arreba. Nik, berriz, amabost urte orduan, baiña joaterik ez nuan izan, etxean aitari la-



guntzen gelditu bear izan nualako. Bestela, pozik joango nintzan besteekin batera.

Zuzendariak aurrez esanda zeuzkaten erriko neska gazte jendea, gurutzearen gastuak osatzeko egun artan diru biltze bat egiteko; eta Zelatundik asi eta Erniora bide guztia neska gazte oiekin beteta jarri omen zuten, zakutxo banarekin, zijoan lagun bakoi-tzari erropa gainean erantsita txartelak jartzeko.

Andresek eta bere lagunak, neskatxak diru eskea egiteko tokietan taldeka banatu ta jarri ondoren, goiko gaillurreraiño zazpietarako iritxi omen ziran. Zer egiña artean ere naikoa omen zegoan an: gauza batzuk kendu, besteak jarri eta bien bitartean ango aldare eta beste gauzen ardura euki, ezer puskatu eta ondatu gabe.

Eguna urreratzen ari zan bezela, beste kezka edo buruauste bat ere bazerabilkiten, eta aundia gainera. Au omen zan eguraldia. Aiek uste omen zuten, eguraldi txarra egiten bazuan, ainbat denborako lan guztiak, ezeren probetxurik gabe, alperrik galduta gelditzen zirala. Baiña ain benetan eta ainbeste aldiz eskatu zuten nunbait, eta Zeruko Aita errukitu egin zitzairen. Zoragarritzko eguraldia gertatu omen zan; eta alaxe zala nik ere gogoan det. Eguerdi beranduan, ordubiak-irurak alde artan alegia, izan zitekean aukeran berotxo. Baiña oso ona zala esan bear.

Egun artan jendea oso goiz asi omen zan Erniora inguratzen. Zuzendariak esaten dute aiek Ernioko muturrean pasa zutela goizetik meza bitarte guztia, eta ondorena ere bai; eta begira jartzen omen ziran alde guztietara, eta bide guztiak betean jendea, igo eta igo. Ura omen zan jendearen emana! Gurutze ingurutik asi eta Ernioko aitz gain guztiak, arririk iñun ikusten etzala bete omen ziran jirabira aiek.

Ordua iritxi zanean, asi omen zan meza santua. Meza emale, On Jesus San Sebastian; eta bere laguntzaille, meza bitartean itzaldia egiñez, On Julian Legarra. Aietzaz kanpo ere apaiz asko omen ziran. Gero, aldare inguruan, egunaren alaigarri, Aia eta Asteasuko dantzari txikiak beren txistulariekin.

Urrena, bere garaia etorri zanean, Jauna edo komunioa banatu omen zuten nai zuan guztiarentzat. Nere anaiak esaten du, egun artan izan zuala lenengo aldiz Ernion meza entzun eta Jauna artzeko grazia; eta gaiñera, danak ere, ori egin zutenak, lenengo aldiz izango zuten zalantzarik gabe. Garai artan, Erniora Jauna artzera joateak bai omen zituan bere eragozpenak. Gaueko amabietatik asi eta arratsaldeko ordubata eta erdia arte barau gorrian egon omen ziran Jauna artu zuten danak. Orduko Elizako legeak orixe agintzen baizuan. Ezta ur tanto bat ere etze-goan artzerik. Eta lauretan jeiki, Erniora igo, an lanean jardun ainbeste orduan izerdi patsetan, eta ezer artzerik ez, bazan ori naiko penitentzi.

Orrelaxe, meza santua bukatu zanean, iritxi zitaien gurutze berdin gabeko ura onesteko une zoragarria. Danak zutik jarri txistulariak txistua joz, apaiz On Jesusek bere otoitzak egin eta, ur bedainkatua gurutzearen gaiñera ixuriz, onetsi zuan; eta, ondoren danak »Agur, jaunak» abestuz, bukatu omen ziran meza santu eta onespena.

Meza santua eta gurutzearen onespena bukatu ondoren, gurutz egintzako ardura zutenak, geienak jetxi omen ziran Zelatun aldera. Baiña Asteasu eta Aiako luistarren lendakari biak, Joakin eta Andres, gurutzearen ondoan gelditu omen ziran. Jakiña, meza denboran gurutzea bertatik ikusi gabeko asko bai-

zegoan; eta guruzetik zintzilik zeuden bi zapi edo ikurrin aien muturrean zeuden ikur edo medalla aiei musu ematen zioten geienak. Beste galdera asko egi-ten omen zituan jendeak gurutzeari buruz; eta bi lendakariak, al zituzten erantzun guztiak emanaz, arratsaldeko bostak arte antxe egon bearra izan zute-  
la esaten dute, eta barau gorrian gaiñera.

Ezer gauza aundirik lortu nai duanak, nekeak igarotzen eta sufritzen ikasi bearko du. Bestela, alpe-  
rrik asiko da.

Ainbeste bider amets egin zuten gauza, ainbeste bildur, neke eta izerdi sortu arazi zizkien gurutzea, orra illabete ta erdian Ernioko gaillurrean zutik, egi biurtuta, ainbat milla kristauren aurrean, danak ao zabalka arrituta aitortzen zutela:

– Auxe gurutze ederra eta bikaiña! Arrigarria benetan!

Askok esan omen zuten, berak ikusi gabe, bes-  
teak esanda, etzutela sinistuko Ernion ainbeste aun-  
diko gurutzerik egingo zutenik.

Egun artan zenbat jende ote zan Ernion? Ziurta-  
sunez erantzuten ez da izango oso errez. Baiña asiko  
gera gai ortaz azterketa egin zutenen iritzi batzuk  
ematen.

Lenengo atera zuten uste edo iritzi bat izan zan,  
amar milla lagun zirala gutxi gorabeera. Baiña bi  
lendakarien iritzia emango degu. Berak, len esan  
bezela, Ernioko muturrean, gaiñerako lagun edo tal-  
dekoak Zelatuna jetxi eta gero, ia lau orduan egon  
ziran; eta arritu zirala esaten dute, begiratu lau al-  
deetara eta bide guztiak betean jendea berriro etxe  
aldera. Alako batean, Zelatuna jetxi omen ziran, eta  
aiek uste omen zuten ordurako geienak aldegiñak

izango zirala; eta, nun ala izango, artean anka jartze-ko tokirik ez omen zegoan. Ura omen zan jendearen emana! Joakin eta Andresek diotenez, amabost millatik gora izango ziran.

Badago beste bide bat ere jendea neurtzeko edo kontatzeko jartzen dutena: egun artako diru biltzailleak eman zuten iritzi bat. Erdiak ez omen zuten botatzen. Botatzen zutenak, geienak pezta. Gutxia-goakoak ere bai. Duroa botatakoak ere batzuk bai noski. Baiña askok ezin bota duroa. Ez baizan izaten. Eta ogei ta iru milla pezta bildu omen zituzten egun artan, neskatxak erabili zituzten zakutxo eta gurutze ondoan bildu ziran guztiekin. Ortatik garbi ikusten da, amar millatik gora jende asko izan zala egun artan Ernion.

Diru asko bildu baldin bazuten ere, gurutzearen gastuen erdira ez omen ziran iritxi. Ia-ia amar milla duro kostatzen omen zan bera zutitzea, eta ori bakarrik bildu. Artean koska aundia zeukaten. Urrengo diru biltzea bakoitzak bere errian egin omen zuten, eta geienak oso ondo erantzun gainera. Baserririk geienetan, amar, amabost duro ematen omen zizkioten, eta naiko borondate izan zutela esango nuke nik.

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	7
Zergatik Ernioko gurutzeak? .....	9
Iturriozko ermita .....	33
Iturriozko benta .....	51
Iturriotz: leen, orain eta gero .....	71
Idi ganaduen aroa .....	77
Santa Kruz apaizaren Aia inguruko erasoak.	89
Ernio-txiki eta Pagoetako gurutzeak .....	115
Gerraren emaitzak .....	125
Ernioko gurutze aundia .....	141

## ORAINDAIÑOKO LIBURUAK 117'garrenetik aurrera.

- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.  
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.  
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.  
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.  
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.  
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.  
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).  
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).  
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).  
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).  
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.  
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).  
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.  
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.  
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.  
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.  
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.  
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)  
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.  
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)  
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)  
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)  
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.  
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)  
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)  
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)


- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)
- 151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)
- 152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
- 153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
- 154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
- 155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
- 156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
- 157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
- 158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
- 159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
- 160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
- 161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
- 162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
- 163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
- 164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
- 165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
- 166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
- 167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
- 168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
- 169: *Basarri*: Kezka-giroan.
- 170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
- 171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
- 172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
- 173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
- 174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, I.
- 175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, II.
- 176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
- 177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
- 178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
- 179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
- 180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, I.
- 181: *Ataño*: Zigorpean.
- 182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
- 183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, II.
- 184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
- 185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
- 186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
- 187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
- 188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
- 189: *Ataño*: Eltzaorra.
- 190: *Pablo Zubiarraín*: Ia kantatuz bezela.
- 191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
- 192: *Ataño*: Odol-kutsua.
- 193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.  
195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.  
196: *Ataño*: Etorkizuna.  
197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.  
198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-  
nak.  
199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.  
200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.  
201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.  
202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.  
203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.  
204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.  
205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.  
206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.  
207: *Ataño*: Aztia usnari.  
208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.  
209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.  
210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.  
211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.  
212: *A. Zavala*: Frantzesetako bertsoak, I.  
213: *A. Zavala*: Frantzesetako bertsoak, II.  
214: *J. M. Lertxundi*: Igaroari begira.





1051049  
G-128/72



AUSPOA  
LIBURUTEGIA